# Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global eremuan

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global eremuan

creative commons

REAITORTZA – EZ MERKATARITZARAKO – PARTEKATU BAIMEN BERAREN ARABERA 3.0. MATERIAL HAU LIBRE KOPIATZEKO, BA- NATZEKO ETA JAKINARAZTEKO BAIMENA EMATEN DA, BETIERE HAREN EGILEA AIPATZEN BADA ETA MERKATARITZA HELBURUE- TARAKO ERABILTZEN EZ BADA. DOKUMENTUAN ALDAKETARIK EGITEN BADA, BESTE ERA BATEKO DOKUMENTUA SORTZEKO EDO HORRETAN OINARRITUTA BESTE OBRA BAT EGITEN BADA, HAU BEZALAKO LIZENTZIA ESKURATUTA BAINO EZIN DA BANATU. LIZENTZIA OSOA:
HTTP: //CREATIVECOMMONS.ORG/LICENSES/BY-NC-SA/ES/ EMAÚS

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

SASKITIK HERRIRA
MERKATARITZA ETA KONTSUMO EREDU ERALDATZAILEAK

KOORDINAZIOA: ASIER ARCOS
LAN TALDEA: ASIER ARCOS, AMAIA IBARRONDO, ANE ESCONDRILLAS
GIZARTE EKONOMIA ETA ZUZENBIDE KOOPERATIBOAREN INSTITUTUA, (GEZKI), MUNDUKIDE FUNDAZIOA, MUGARIK GABE ONG, NÚCLEO DE ECONOMÍA SOLIDARIA (NESOL-USP), BASORTU AGROEKOLOGIA KOOP., CRISTINAENEA FUNDAZIOA, BIDAZI ELKARTEA,BASHERRI SAREA, SARETUZ, MOVIMIENTO POR LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA DE ECUADOR (MESSE), FACES DO BRASIL, SINDESPERDICIO, LAKARI KOOPERATIBA BIDAZI
LEGEZKO GORDAILUA: SS-712-2017
ITZULPENA: IDOIA LARRAÑAGA
DISENUA ETA MAKETAZIOA: MARÍA GUTIÉRREZ
INPRESIOA: DIGITARTE  DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN, JUNIO 2017
ARGITALPENA DOAN DESKARGATZEKO:
WWW.EMAUS.COM
HTTPS://ISSUU.COM/GRUPOEMAUSFUNDACIONSOCIAL

BABESTUTA:

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

# Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global eremuan

EMAÚS
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

# Aurkibidea


**Zer da merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile bat tokiko eta global eremuan?** 4

**Metodologia** 5

**1. OINARRI TEORIKOAK** 6

**Bidezko merkatariza** 6

**Elikadura burujabetza** 9

**Ekonomía sozial y solidarioa** 11

**Tokiko giza garapena** 14

**2. OINARRI TEORIKO DESBERDINEN ARTEKO KONEXIOAK**

**Oinarri teoriko bakoitzetik egindako ekarpen orokorrak ereduari** 18

**3. EREDUA ARTIKULATZEN DUTEN PRINTZIPIOAK** 24

**4.EREDUA OSATZEN DUTEN EGILEAK** 35

**5. PRAKTIKA EGOKIAK** 44

**Garapen integraleko proiektua Nekazalgunea. Prozesua 2014-2017** 44

**Bidazi: Elikagaien eguneroko kontsumo ekologikoa** 51

**Lakari: Elikadura eta kontsumo jasangarria lantzen** 54

**Saretuz: Donostiako kontsumo kontziente, arduratsua eta eraldatzailea** 57

**San Antonio de Macará erlezainen elkarteko erle-ezti egileak. Miel del bosque seco** 60

**Faces do Brasil: Rio de Janeiro hiriko azoka organikoen zirkuitua** 63

**Cristina Enea: Haziera proiektua, tokiko baratze-barietateen elkar trukaketa eta nekazaritza ezagutzaren berreskurapenerako ezaugarriak.** 66

**Programa Brasil mundukide fundazioa** 69

**Goiener Proiektua** 72

**Mugarik Gabe** 76

**Sindesperdicio: Ingurumen eta gizarte jasangarritasuna ekonomia solidariotik** 79

**6. KONKLUSIOAK ETA IKASKUNTZAK** 82

**7. BIBLIOGRAFIA** 83

**ERANSKINA** 92

# Zer da Merkataritza eta Kontsumo eredu justu eta eraldatzaile bat tokiko eta global eremuan?

Aurkezten dugun ikerketa honek ekarpen bat egin nahi du gure laneko esperientzia bertatik, baita gure bazkideen esperientziatik ere, merkataritza eta kontsumoko eredu eraldatzaileak nolakoak izan behar dutenaren inguruan, tokiko eta global eremuan. Ez da lan edo ikerketa amaitu bat izango, eragileen arteko artikulazio modu berriei, laneko jarraibideei, erlazio moduei eta interkonexioei ekarpen bat egitea baizik, merkatu eta kontsumo eraldatzaileko interkonexioko errealitate konplexu batzuen esparruan. Hain zuzen ere, ikerketa honen helburua erlazio, inter-eragile interkonexio modu desberdinak ikustera ematea eta aztertzea da, hainbat balore, printzipio eta jarduera modu partekatzean oinarrituz “Merkataritza eta Kontsumo eredu Justu eta Eraldatzaileak, tokiko eta global eremuan” deitzen duguna sortzen dute.

Horrela, ikerketa hau azken 10 urteetan lanean egon garen hainbat korronte teoriko-praktikoetan oinarritzen da teoriko mailan. Korronte hauek ondorengoak dira: Bidezko Merkataritza, pobreziaren sorrera eta betierekotze prozesuen arazoaren egiturak erasotzen dituen merkataritza eraldatzaile bat bezala ulertua; Elikadura Burujabetza, lurra lantzeko, ulertzeko eta produktuak merkaturatzeko proposamen alternatibo bat bezala; Ekonomia Sozial eta Solidarioa, nagusi den eredu ekonomikoaren izaera integraleko alternatiba ekonomiko bezala; eta azkenik, Tokiko Giza Garapena, gaitasunetan oinarritutako garapeneko paradigma bezala. Justizia soziala ikerketarako oinarri teoriko hauen aukeraketaren azpitik sortzen da. Oinarri teoriko eta praktiko hauetatik beraien artean artikulatzen diren ikaskuntzak ateratzen dira eta merkataritza eta kontsumo eraldatzailea ulertzeko modu batean bilakatzen dira. Azterketa teoriko honen helburua, Bidezko Merkataritzaren, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Elikadura Burujabetzaren baloreak eta printzipioak zein neurritan artikulatzen diren eta zein neurritan Tokiko Giza Garapen justu, ekitatibo eta jasangarriari ekarpena egiten dioten identifikatu ahal izatea da, eremu honetan lan egiten duten entitateen bitartez. Hori guztia, korronte bakoitzetik ateratzen diren ekarpen teoriko eta praktiken bitartez bideratzen da, Giza Gaitasunen sorrerari dagokionez. Zehazki, Martha Nussbaum-ek (2011) garatutako Giza Gaitasun Zentralak. Gaitasunak, aukeratu ahal izanik, pertsonak benetan egiteko eta izateko gai diren horiek bezala ulertuta, korronte desberdinen artean erlazioak elkarren artean lotzeko aterki elementu bezala dira.

Era berean, proposatu diren ereduak teoriara eta praxira lotuta dauden hainbat printzipio kontutan hartu behar dituztela ulertzen dugu. Printzipio horiek ondorengoak dira:

**Tokikoa-globala artikulazioa:** Tokiko eta gertuko eremuan ekitearen aldeko apustua balioztatzen du, ondoren eremu globalean eraldatzeko.

**Genero ekitatea:** Eredu eraldatzaile guztiek berezkoa duten printzipioa, eraldaketa erreal bat ez da ulertzen, botere erlazio desberdinak eraldatzen ez badira, maila desberdinetako erlazioak.

**Ingurumenarekiko eta lurrarekiko errespetua, eskubideak dituzten subjektu bezala:** Printzipio apelaezin bat bezala adierazten da eredu eraldatzaileetan, lurraren mugak kontutan hartzen ez dituen eraldaketa erreal batek lekurik duelako, ezta gure herentzia kontutan hartzen ez duen eta datozen belaunaldiei dagokien gure erantzukizunak kontutan hartzen ez dituen eraldaketa bat ere.

**Ahulenak diren pertsonen gizarteratzea, bai iparrean bai hegoan:** Eredu eraldatzaileak dira pertsona guztien gizarteratzera bideratuta dauden neurrian. Tokiko gaitasunen ikuspegi batetik tresna bat bezala hartzen diren neurrian eta hori horrela izanik, existitzen diren mugak eta aukerak kontutan hartzen dira, pertsonek eta beraiek osatzen dituzten gizarteek beraien helburuak lor ditzaten.

**Tokiko Garapen Ekonomikoa, partaidetza eta lurraldearekiko lotura:** Eredu eraldatzaileek tokiko garapena, hiritarren partaidetza eta hauek lurraldearekiko duten lotura sustatu behar dituzte, gizartearen aldetik prozesu hauetan inplikaziorako eta ondorengo jabetzerako gako bezala.

**Kontsumo kontziente eta arduratsu bat sustatze** : hau da, pertsona kontsumitzaileari benetan duen boterea ematea eta nagusi den eredu ekonomikoaren eraldaketara zuzentzea, oinarri bertatik.

**Belaunaldi arteko ikuspegia:** egunerokotasunean ematen diren erlazioak eta irrikak nolabaiteko adulzentrismoa duten neurrian. Pertsona gazteak barneratzea, beraien sendotasunak ustiatzea eta positibo egitea erronka bat da. Era berean, balio handiko eta aberastasun sozial eta kulturala duten jakintzak eta praktikak lekualdatzean hirugarren adineko pertsonen papera nuklearra da, prozesu eraldatzaileak sortzeko garaian.En cuanto a los agentes participantes, hemos tratado de incluir aquellos agentes que en un espacio geográfico local definido tienen capacidad, o al menos potencialidad de aportar a un desarrollo sostenible y equitativo, para poder conceptualizar los modelos.

Eragile parte-hartzaileei dagokionez, zehaztutako tokiko espazio geografiko batean, garapen jasangarri eta ekitatibo baten alde egiteko gaitasuna, edo gutxienez ekarpenak egiteko ahalmena, duten eragile horiek barneratzen saiatu gara, ereduak kontzeptualizatu ahal izateko.

Azkenik, hemen aurkezten dugun ikerketa honek, eredu hauek izan behar dutena nola ulertzen dugun adibide bidez adierazten saiatzen diren izaera sozio-ekonomikoa duten hainbat ekimen jasotzen ditu. Ez dira ekimen “puruak”, hau da, ez dago ekimenik eredua osatzen duten elementu guztiak biltzen dituenik, baina zatika, ikerketa honetatik

ateratzen diren eta azken atala elikatzen duten arrakasta gako horien adibide moduan balio dezakete. Konklusio eta gomendio hauek ondoren, ikerketa honekin batera joango den praktika egokien tresna-gida elikatuko dute.

## METODOLOGIA

• Ikerketa honen garapena fase edo une desberdinetan gauzatu da. Hasiera batean, Dokumentazio Zentro desberdinetan informazio bilaketa bat burutu genuen, Ikerketa Kooperatiboen Zentroa eta Scopus, Dialnet, WOS –Web Of Science– bezala. Bilketa horretarako erabili ziren hitz gakoak hauek izan ziren: gizarte berrikuntza, gizarteratzea, gizarte eraldaketa ereduak, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Elikadura Burujabetza, Giza Garapena, Tokiko Giza Garapena, Partaidetza, bizitzaren Jasangarritasuna, Bidezko Merkataritza, Kontsumo Kontziente eta Arduratsua. Ikerketaren helburuen arabera aurkitutako informazio guztiaren hautaketa bat egin ondoren, 70 dokumenturekin egin dugu lan, bai literatura zientifikoko dokumentuak bai txostenak, eskuliburuak eta praktika egokien gidak. Dokumentu azterketa honek marko teorikoa eta eztabaidaren egoera lantzen lagundu zigun, baita bidezko merkataritza eraldatzaileko eredu baten printzipioak eraikitzen ere, tokiko eta global eremuan.

Bigarren urrats edo atalean, ikerketaren laburpen exekutibo dokumentu bat bidali zitzaien, konklusiorik gabe, parte hartzen zuten 5 entitateei, berrikuspena eta beraien ekarpenak egiteko. Berrikuspen honen bitartez oinarri teorikoan idatzita dagoen tokiko Giza Garapena argitu zen, baita genero ekitatearen printzipioa eta hainbat kontzeptu berrikustea ere, ekonomia feminista, bizitzaren jasangarritasuna, besteak beste. Era berean, oinarri teorikoan ekonomia sozial eta solidarioan ekarpenak gehitu ziren. Horrez gain, "eragileak" atalean funtsezkoa eta oso aberasgarria izan da kontsultatutako eragile desberdinek egindako ekarpena, ingurunearen ezagutza sakonaren ondorioz.

Hirugarren unean, informazio bilketarako gidoia eraiki genuen erdi-egituratutako elkarrizketen bitartez. Hasierako aurreikuspena elkarrizketa guztiak ahoz egitea izan bazen ere, bi kasutan elkarrizketa hauek gauzatzeko zailtasunaren ondorioz, bi pertsona hauen erantzunak idatziz jaso behar izan genituen.

Elkarrizketak burutzeko pertsonen hautaketa, beraiek parten hartzen zuten ekimenen arabera egin zen, ondorengo irizpideak jarraituz:

- Nolabait merkatua edo/eta kontsumoa tokiko inguruetan lantzen duten ekimenak.
- Izaera parte-hartzaileko edo/eta asoziazioko ekimenak.
- Bere sustatzaile edo/eta onuradun artean emakumeak eta neskak dituzten ekimenak.
- Proposatutako printzipio batekin edo gehiagorekin lerrokatuko liratekeen ekimenak.
- Geografiaren iparreko eta hegoaldeko ekimenak.
- ESS, ElB edo BMren esparruan ongi lan egiten duten ekimenak.

Fase honetan ekoiztutako informazioaren azterketa, eredua artikulatzen duten printzipioak kontutan izanik burutu da. Informazioa kontrastatzeak praktikan nola artikulatzen den sakontzea posible egiten du, ekintza eraldatzaileen garapena eta, horrek konklusioak ateratzen lagundu digu.

Laugarren eta azken urratsean, praktika egokien azterketa gauzatzen da, ikaskuntzak atera eta ikerketarako gakoak diren elementuak atera ahal izateko. Lortutako emaitzekin, ekonomia solidarioarekin, bidezko merkataritzarekin eta elikadura burujabetzarekin lotutako edo erlazionatutako merkataritza eredu eraldatzaile justu baten elementu gakoak aztertzea eta identifikatzea posible izan dugu, gaitasunen sorreran eta giza garapenean kokatuta.

# 1. OINARRI TEORIKOAK

Aurretik planteatu dugun moduan, oinarri teorikoak gaikako hiru ardatzen arabera artikulatzen dira: Bidezko Merkataritza (BM), Elikadura Burujabetza (ElB) eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS). Hiru korronte hauek azken laugarren korronte batek kokatzen ditu, Tokiko Giza Garapena. Honek oinarriak elkarren artean artikulatzen eta erlazionatzen laguntzen digu.

## BIDEZKO MERKATARITZA

Egungo panorama ekonomikoa, eragile desberdinen arteko erlazioak liberalizazioko prozesu etengabe batez markatuta dauden merkatu mota baten bitartez zehaztuta dago, bai merkatuen bai produktuen, zerbitzuen eta kapitalen liberalizazioa. Testuinguru honetan, filosofia neoliberalak merkatuko indarrak kokatzen ditu jarduera ekonomikotik eratorritako arazoen irtenbide ia bakarra bezala, langabezia, hazkunde ekonomikoaren geldialdia, etab. besteak beste. Azken urte hauetan, nazioarteko merkataritza transakzioen gorakada handi bat egiaztatu bada ere, hauek ez dute lortu pertsona guztiei modu berdinean onura ematea, are gehiago, jarduera ekonomiko globalaren hazkunde honekin batera, errealitate mingarri bat nabarmendu da, modu globalean desberdinkerien eta pobreziaren gorakada bezala. Bidezko merkataritza ekonomia alternatiboei edo solidarioei dagokien merkatu bat da, merkatu asketik desberdinak diren arau batzuekin burutzen da, inplikatuta dauden aktoreei, helburuei, baldintzei eta printzipioei dagokionez. Osagai ideologiko bat du, neoliberalismoaren aurka kokatuz, nazioarteko merkatuaren bidegabeko arauak aldatzeko helburuarekin eta merkatua herrien eta zapalduak dauden gizarte sektoreen beharretara ezartzea. (Quesada, M.E., Gach, H.M., 2012).

Horrez gain, beharrezkoa da aipatzea eta kontutan izatea Bidezko Merkataritza ez dago garapen ekonomiko heteropatriarkal sistema batean sartuta egoteak dituen ondorioetatik kanpo. Izan ere, historian zehar ekonomia eremu neutral bat bezala aurkeztu zaigu, sistema heteropatriarkal batean neutroa den hori maskulinotik sortua da, errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politikoko sistema guztiak egituratzen dituen ardatz hegemoniko bezala. Hain zuzen ere, gu inguratzen garen sistema heteropatriarkaletik eratorritako genero desberdinkeriek, bereziki ahulak diren biztanleriako sektoreetan zuzenean eragiten dute –emakumeak eta neskak–, ondorioz, pobreziaren feminizazioko prozesu zentrifugoekin aurkitzen gara, eta hauek modu kontzientean eta dituen ezaugarrien arabera landu behar dira.

Testuinguru honetan, eta are gehiago gaur egun, krisi sistemiko eta dimentsio anitzeko krisi suntsitzaile[1] batean murgilduta gaudela, nagusi den sistemaren iluntasunak behin egiaztatu ondoren, berriak ez diren formula desberdinek garrantzia handiagoa irabazten dute eta alternatiba bezala eraikitzen dira.

Merkatari erlazioen formula hauetako bat bidezko merkataritza da. Fenomeno hau ez da berez berria, gutxienez 60 urteko ibilbidea du, bere sustraiak 50. hamarkadako Beneluxen baititu.

Bidezko Merkataritzaren mugimenduaren adierazle nagusiak adostu zuten, FINEn[2] biltzen direnak:

> “Bidezko Merkataritza, nazioarteko merkatuan ekitate handiagoa bilatzen duen merkatu proposamen bat da. Garapen jasangarri baten alde egiten du, merkatu baldintza hobeak eskainiz eta baztertuta dauden ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, bereziki Hegoaldekoak. Bidezko Merkataritzako erakundeak, kontsumitzaileen babesarekin, ekoizleak laguntzera inplikatuta daude modu aktiboan, nazioarteko ohiko merkatuaren arauetan eta praktiketan aldaketak lortzeko sentsibilizatu eta kanpainak garatu.







1 Gure garaia markatzen duen krisia, dimentsio ekonomiko eta finantzariotik haratago doan krisia bezala ulertzen dugu, dimentsio ekologikoari, gizatiarrari eta sozio-politikoari ere eragiten dio.
2 FINE: 1998 urtean sortutako eta Bidezko Merkataritzako nazioarteko eta europar erakunde handiek osatutako Sarea: FLO - Fair Trade Labelling Organization (Bidezko Merkataritzaren Ziurtagiriaren Erakundea); EFTA: European Fair Trade Association (Bidezko Merkataritzako Europar Elkartea) (2001); NEWS! Network of European World Shops (Munduko Denden Europar Sarea); eta OMCJ, antzinako IFAT (Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea)

Hala ere, 2008 urtearen amaieran FLO eta IFAT-ek definizioaren beste proposamen bat adostera iritsi ziren, definizioa ondorengoa litzateke:

> **Bidezko Merkataritzak merkatu egiturak eta praktikak eraldatzea bilatzen du, pertsona pobreen eta desabantaila egoeran dauden pertsonen alde, bereziki hegoaldean bizi deiren pertsonen alde. Berdintasunean eta gardentasunean oinarritutako merkatu lankidetza eraikuntzaren bitartez, alde batera utzita dauden pertsona ekoizleak, langileak eta hauen komunitateak euskarritzen duten garapenaren alde egiten du bidezko merkataritzak. Ohiko merkatuari alternatibak aurkeztearen eta lobbing beste modu batzuen bitartez, Bidezko Merkataritzak biztanleria "ahaldundu" egiten du, prozedura justuetan oinarritutako nazioarteko merkatu sistema baten alde presioa egiteko**
>
> ”

Bi definizio hauek aztertu ondoren, bigarrenak nazioarteko merkatuaren arauak eta praktika aldatzeko beharraren inguruan ari dela ikus dezakegu, ikuspegi kritiko eta erradikal bat hartzen duen aldi berean: merkatu egitura eta praktika eraldatzea beharrezkoa da pobreen diren pertsonen alde, eta horretarako, mota honetako merkatuak talde honentzat eskaintzen dituen onurak biztanlegoari erakustea beharrezkoa da, ohiko merkatuaren aurrean egin daitekeen presio modu bezala. Helburua ez da bakarrik merkatu justuago bat lortzea, mundu mailan merkatu sistemak eraldatzea baizik, hori horrela izanik, konpromiso ekonomikoa inplikatzeaz gain, konpromiso sozial eta politiko bat inplikatzen du.

Hain zuzen ere, Bidezko Merkataritza ulertzeko modu desberdinak daude eta, bere esan nahiaren kontzeptuzko ikuspegien arabera eta horren bitartez lortu nahi denaren arabera, esan nahi desberdina izango du. Sintesi azkar baten moduan, ondasun edo/eta zerbitzuen hornitzaile txikiei nazioarteko merkatuetara sartzea lortzeko, elkar trukaketa sistema bat bezala defini daiteke (Eurpean Fair Trade Association, EFTA. 1998). Merkatuetara sartzeko modu hau hainbat helburu eta irizpideetara lotuta dago, ipar-hego, ipar-ipar, hego-ipar eta hego-hego eragileen arteko erlazioak bermatzea bilatzen dute, horizontalagoak, ekitatiboak, parte-hartzaileak eta jasangarriak. Bidezko Merkataritzaren paradigma honetan gure bazkideak errespetatzeko eta merkatuan ekitate eta justizia baldintzak kontutan hartzearen ideia dago azpian, eskubide bat izango balitz bezala.

Bai lan ustiapena bai ingurumen ustiapena pobreziaren eta desberdinkeriaren sintomak baino zergatiak direla zehaztu daiteke, eta zergati hauek, merkatuko logiken desdoitze ekonomikoak, endemikoak eta sistemikoak ekonomiaren eta nazioarteko merkatuaren funtzionamendua egituratzen duten testuinguru batean kokatzen dira. Hori horrela izanik, sistema berri bat sustatzeko garaian, estrategia batean oinarrituz egitea estrategikoa dirudi. Estrategia hori lehenengo zergati horietan eragiteko sortu behar da, modu horretan merkatu erlazio berriak gauzatuz, ez bakarrik operadore indibidualek eta produktu zehatzetan hornikuntzako kateek burututako estandaren betetzearen egiaztapen arrunt baten bitartez.

Hori kontutan izanik, estrategia honen posizionamenduak, giza eskubideen errespetuarekin erlazionatutako legezko arau zehatz batzuk zuzen betetzeak duen garrantzia handia onartzen du, nahiz eta beste alde batetik, ez du nahikoa ikusten. Egungo merkatuko erlazioen sakontasunean egindako eraldaketa baten alde egiteko, transakzio ekonomikoak garatzen diren testuinguru sozial eta politikoan aldaketa errealak sustatu behar dira. Hori kontutan izanik, Bidezko Merkataritza mugimenduak, bere ondorengo funtzionamendua zeharkatuko duten oinarrizko printzipio batzuk bereganatzen ditu. Bidezko Merkataritzako mugimendua zuzendu behar duten oinarrizko printzipioak ondorengoak dira, BMME/WFTO[3] (Antzinako IFAT) eta FLOk 2008 urtean adostasunean osatuak:

**Aukerak sortzea desabantaila ekonomikoak dituzten ekoizleentzat:** Pobrezia merkatuaren bitartez murrizte helburuen funtsezko atal bat da. Erakundeak alboratuak dauden ekoizle txikiei babesa ematen die, bai familia negozioak, independenteak edo elkarte edo kooperatibetan biltzen direnak. Beraientzat atea irekia bilatzen da segurtasun ekonomiko gabeziatik eta pobreziatik, norberaren trebezia ekonomiko eta propietatera. Erakundeak hau gauzatu dadin ekintza plan bat du.

**Gardentasuna era erantzukizuna:** Erakundea gardentasunez jarduten da bere kudeaketan eta bere merkatu erlazioetan. Bere aktore guztien aurrean erantzule da eta emandako merkatu informazioen sentsibilitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzen ditu. Erakundeak modu egokiak eta parte-hartzaileak bilatzen ditu bere langileak, kideak eta ekoizleak barneratzeko, beraien erabaki hartze prozesuetan. Informazio garrantzitsuak merkatu bazkide guztiei ematea ziurtatzen da. Komunikabideak onak eta irekiak dira, horniduren kateko mailan guztietan.

**Bidezko merkataritza-jarduerak Merkatu Praktika Justuak:** Erakundeek modu arduratsuan salerosi egiten dute, alboratuta dauden ekoizle txikien gizarte, ekonomia eta ingurumeneko ongizatea garatzeko eta ez dute negozioko diru-sarrerak handitzea bilatzen beraien kontura. Be-

3 OBMME / WFTO: Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea / World Fair Trade Organization

raien konpromisoak modu arduratsuan betetzen dituzte, profesional eta garaiz. Hornitzaileek beraien kontratuak errespetatzen dituzte eta produktuak garaiz entregatzen dituzte, adostutako kalitatearekin eta ezaugarriekin.

**Bidezko prezioa ordaintzea:** Prezio justu bat, nahastuta dauden guztien artean adostu den prezio hori da, elkarrizketaren eta parte hartzearen bitartez, ekoizleei ordainketa justu bat ematen zaie eta merkatuak ere euskarritu dezake. Bidezko Merkataritzako prezioko egiturak dauden lekuetan, hauek produktuen prezioen kalkulurako gutxiengo bat bezala erabiltzen dira. Ordainketa justua, sozial mailan onartua den ordainketa bat ematea da (tokiko testuinguruan), justua den hori ekoizleek beraiek onartua dena. Era berean, lan berdinagatik ordainketa berdina printzipioa jarraitzen dute, bai gizonentzat bai emakumeentzat. Bidezko Merkataritzako erakunde inportatzaileak eta marketing egiten dutenek, ekoizleek eskatutako trebakuntzaren alde egiten dute, beraien produktuei prezio justu bat jartzeko gai izateko.

**Haurren lanik eta behartutako lanik EZ:** Erakundeak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena betetzen du, baita haurren enpleguaren gaineko nazional/eskualdeko legeak ere. Erakundearen baitan dago ziurtatzea lan egiteko lekuan edo/eta bere kideekin edo lankideekin lan beharturik ez egotea.

**Ez Baztertzeko, Genero Berdintasuna eta emakumearen Ahalduntze Ekonomikoa eta Elkartzeko Askatasuna izateko konpromisoa:** Erakundeak ez du bazterketarik egiten enplegua eman, konpentsatu, entrenatu, sustatu, botatzean edo erretiroa hartzeko garaian, arraza, gizarte maila, jatorri, erlijio, ezgaitasun, genero, sexu orientazio, sindikatu-kidetza, afiliazio politikoa, GIB/HIES estatus edo adin arrazoiengatik. Erakundeak genero berdintasuna sustatzeko politika argi bat eta plan bat du, emakumeak eta gizonak produktiboak izateko behar dituzten baliabideak eskuratzeko gaitasuna izatea bermatzen duena, baita politika orokorrean eta beraien bizitzeko baldintzei eta beraien bizitzei itxura ematen dien arauzko eta instituziozko ingurunean esku-hartzeko gaitasuna ere.

**Lan baldintza onak bermatzea:** Erakundeak lan-inguru ziurra eta osasungarria eskaintzen die langile edo/eta kideei. Erakundeak, gutxienez, lege nazionalak eta eskualdekoak betetzen ditu, baita osasunari eta segurtasunari buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) hitzarmenak ere. Langileentzako edo/eta kideentzako lan-ordutegiak eta lan-baldintzak lege nazionalek eta eskualdekoek nahiz LNEren hitzarmenek ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

**Gaitasunak Garatzea:** Erakundearen helburua, alboratuta dauden ekoizle txikientzat garapenaren eragin positiboak handitzea da bidezko merkataritzaren bitartez. Erakundeak langileen edo kideen gaitasunak garatzea bilatzen du. Ekoizle txikiekin zuzenean lan egiten duten erakundeek berariazko jarduerak garatzen dituzte, ekoizle horiei beraien kudeatzeko gaitasunak, ekoizteko gaitasunak eta Bidezko Merkataritzako tokiko/eskualdeko/nazioarteko eta egokiak diren beste merkatuetara sartzeko dituzten trebeziak hobetzen laguntzeko.

**Bidezko Merkataritza sustatzea:** Erakundeak Bidezko Merkataritzaren printzipioak eta merkatu globalean justizia handiago baten beharra ezagutzera ematen ditu, Bidezko Merkataritzaren bitartez. Bidezko Merkataritzaren helburuak eta jarduerak sustatzen ditu antolakuntzaren gaitasunarekin adostasunean. Erakundeak bere bezeroei, erakundearen beraren informazioa, merkaturatzen dituen produktuen eta produktuak egin edo landatzen dituzten erakunde ekoizleen edo kideen informazioa. Marketing eta publizitate teknika zuzenak erabiltzen dituzte beti.

**Ingurumena errespetatzea:** Bidezko Merkataritzako produktuak ekoizten dituzten erakundeek, beraien eskualdean bertan manten daitezkeen jatorrietatik datozen lehengaien erabilera maximizatzen dute, posible den guztietan tokiko ekoizleetatik erosiz. Energiaren kontsumoa murriztea bilatzen duten ekoizpen teknologiak erabiltzen dituzte eta posible den guztietan, ingurumena kaltetzen duten berotegi-efektuko gasen isurpena murrizten duten energia berriztagarriko teknologiak erabiltzen dituzte. Beraien hondakinek ingurunean sortzen duten eragina txikiagotzen saiatzen dira. Bidezko Merkataritzako nekazaritza-produktuen ekoizleek ingurumen-eraginak txikiagotzen dituzte, beraien ekoizpen metodoetan ahalik eta pestizida gutxien erabiliz edo posible den kasuetan pestizida organikoak erabiliz.

Modu honetan, printzipio hauek jarraituz, Bidezko Merkataritza karitate bezala hartzen ez duen ikuspegi bat lortzen da, aldaketarako adostasun baten emaitza bezala, aldaketarako konpromisoa. Ekoizleek Bidezko Merkataritzaren onura posibleak erabili beharko dituzte beraien baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzeko, bereziki beraien gizartean ahultasun egoera larrienetan dauden kideentzat.

Beste alde batetik, bidezko merkataritzaren hazkunde kuantitatibo eta arauen hazkundearekiko modu paraleloan, hainbat sektoretan, sortu zen garaiko printzipioen zama ideologikoa eta eraldatzailea berreskuratzeko kezka esperimentatu da, Ekonomia Solidarioa eta Elikadura Burujabetzaren proposamenekin kontzeptuzko loturak eta lotura praktikoak ezartzea bilatuz. Krisi sistemiko eta dimentsio anitzeko krisi testuinguruak, bere isla kausa globalen, ondorio zuzenen eta nagusi den sistemaren aurrean alternatibak eraikitzeko beharra geroz eta gertuago dagoen bizipen bat delarik, berrikuspen eta gerturatze hau bizkortu du.

Emaús Gizarte Fundazioak ikuspegi zabal, solidarioa, eraldatzailea, erantzunkidea eta hegoaldeko eta iparreko errealitateen integratzailea duen Bidezko Merkataritza bat defendatzen du. Hori horrela izanik, Elikadura Burujabetza eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa diren bezalako paradigmak eta lan lerroak dituen konfluentzia bat planteatzen da, aipatutako bi eremu horiek modu naturalean artikulatzen eta osagarri egiten direla ulertzen dugulako.



## ELIKADURA BURUJABETZA

Landa erakundeek eta mundu osoko nekazalgoak azaro berdinak partekatzen dituzte, bakoitza bere tokiko errealitate desberdinei aurre egin behar dieten arren: elikadura krisia, lurren akaparamendua, elikadura eskandaloak, landa eremuko krisia, bioteknologia, klima aldaketa eta landa eremuaren eta aniztasunaren suntsipena, beste hainbat alorren artean. Globalizazioaren ondorio nagusienetako bat, mugen eta estatuen gainetik hegan egin duten transnazionalak buru diren ekintza neoliberal kolektibo bat izan da. Aktoreak mundializatu egin dira, baina baita beraien mekanismoak eta eraginak ere, balioan jartzen dunari eragiten, gure antolatzeko, bizitzeko, moduen eraginez.

> “
>
> **Elikadura burujabetza herriek elikadura osasuntsu eta egoki bat izateko eskubidea da, metodo ekologiko eta jasangarrien bitartez ekoiztuta kultura errespetatuz, elikadura eta nekazal sistema propioak erabakitzeko eskubidea izateaz gain. Politiken eta elikadura sistemen erdigunea, elikagaia ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten aspirazioak eta beharrak dira, merkatuen eta multinazionalen eskakizunak izan ordez**

*Vía Campesina, Elikadura Burujabetzari buruzko Nyéléni-ko Adierazpena (Mali, 2007)*



Elikadura Burujabetzaren kontzeptua Vía Campesinak sartu zuen modu garrantzitsuan 1996 urtean, FAOren Elikaduraren Mundu Goi-bileraren esparruan, elikadura eremuan sistema kapitalistaren aurrean erreakzio bezala eta aurreko mendeko 80. hamarkadatik ematen ari den teoria neoliberalen hedapen orokortuaren aurrean erreakzio bezala. La Vía Campesina definitzen da:

> “
>
> **La Vía Campesina milioika nekazari multzokatzen dituen nazioarteko mugimendua bezala definitzen da, ekoizle txiki eta ertainak, lurrik gabeko herriak, indigenak, migratzaileak, mundu osoko nekazari langileak, nekazalgoaren elikadura sistema agroekologikoak defendatzen dituena justizia soziala eta duintasuna sustatzeko bitarteko bezala, multinazionalen aurka eta gure elikadura sistemak, gure komunitateak eta ingurumena suntsitzen duen eskala handiko nekazaritzaren aurka**

Elikadura Burujabetzaren helburuen artean ondorengoak aurki daitezke:

- Elikagai osasuntsuak, kulturari dagokionez egokiak eta metodo jasangarrien bitartez ekoiztuak diren elikagaien eskubidea sustatu.

- Komunitateen eta bere ingurumenaren alde egiten duen nekazari ekoizpen eredu jasangarri baten garapena sustatu.

- Herriek beraien nekazal eta elikadura sistemak definitzeko eskubidea sustatu, elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten pertsona horien aspirazioak, beharrak eta bizitza moduak elikadura sistemen eta elikadura politiken erdigunean kokatuz, merkatuen eta enpresen eskaeren aurretik.

- Elikagaien tokiko ekoizpenari eta kontsumoari lehentasuna eman.

- Tokiko nekazariak inportazio merkeetatik babestu eta bere ekoizpenaren gaineko kontrola posible egin.

Kopuruz geroz eta gehiago diren kolektiboak barneratzea, sareak sortzea, esperientziak elkar trukatzea eta testuinguru global mundialaren eraldaketek, Elikadura Burujabetzaren diskurtsoaren eboluzio progresibo bat probokatu dute. Elikadura Burujabetza aberastuz joan da eta egun, hain zuzen ere, gizarte eredu berri bat praktikan jartzeko esparru politiko bat ordezkatzen du. Alde batetik, sistema neoliberalari erabateko ukapena helburu duten beste borr-

oka asko bateratzea lortzen da (mugimendu ekologistak, hirikoa mugimenduak, ingurumen justiziako mugimenduak, erauzketa enpresen aurkako mugimenduak, gerra-gatazkengatik kaltetuen mugimenduak, etab.). Beste alde batetik, nagusi den esparrutik desberdinak diren gizarte erlazioen eta eredu ekonomikoen (ekoizpena, merkatua, kontsumoa) eraikuntzan oinarritutako dimentsio berriak barneratzen dira (ekoizpen jasangarria, erabaki hartze politikoetan partaidetza demokratikoa, etab.). Zentzu honetan, Elikadura Burujabetza mugimenduaren eraginkortasun politikoa agenda politikoan barneratzeari dagokionez eta bere aldarrikapenetan aurrera pausuak lortzea, neurri handi batean tokikoa-globala konexioko eta beste gizarte eragileekin aliantzako klabean ulertu eta funtzionatzen jakitea dela ikusi dugu.

> **Elikagaien ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren paradigma aldaketa bat posible izango da soilik eralketa politika, ekonomikoa eta gizarteko esparru zabalago batean. Eta lortzeko ezinbestekoa da erresistentzia, eraldaketa eta gizarte mobilizazioko espazioen bultzada[4].** *(VIVAS, E. 2009)*

• Aberastasunaren sorrera, kapitalaren akumulazioa eta bidegabeko gizarte birbanaketa bat, gaurkotasuna adierazten duten globalizazio neoliberalaren zeinuak dira. Hala ere, globalizazioaren dimentsio ekonomiko honi dimentsio kulturala, pertsonala eta soziala gehitu behar zaizkio. Prozesu honen ondorioak pertsonek jasaten ditugu, lehiakortasun askearen eta onura pribatuaren bilaketaren mesedean, homogeneizatu egin ordez desberdindu eta hautatu, baztertu eta zatitu egiten duen prozesua. Horrez gain, natura ez da bizitza estiloan bertan barneratzen, “kontsumitu” edo “erabili” egiten da atsegintasuna, asetasuna edo onura ekonomikoa eskaintzen duen arabera baizik. Zentzu honetan, eredu kapitalista heteropatriarkalak, nagusi den ereduari alternatibak planteatzen dituzten subjektu politiko antolatuen osaketa eta sendotzea geldiaraztea bilatzen duten, baloreetan eta gizarte erlazioen eraikuntzan joera orokor batzuk zehazten ditu.

Marko globalean, ekoizpen/kontsumitzaile eredu kapitalista globalizatuaren azterketak ondorengo gogoetak planteatzen ditu:

• ELegedi-markoak enpresa handien eta enpresa transnazionalen interesei egokituz diseinatzen, interpretatzen eta finkatzen dira, beste bide batzuek eta kolektiboaren ongia defendatzen duten mugimenduen eta erakundeen erresistentziaz gain.

• TTIP, PP, CTES, APE eta TISA bezalako nazioarteko merkataritza markoek, merkataritzaren eta ekoizpenaren inbertsioen babeseko eta desarauketako mekanismoak jasotzen dituzte, gizarte eta osasun irizpideak alde batera utziz, gizarte zibila ordezkatzen ez duten eta beraien akziodunen onura besterik bilatzen ez duten enpresa transnazionalen eskakizunei erantzuna emanez.

• Eredu honek ura eta elikadura bezalako ondasun komunen eta oinarrizko eskubideen pribatizazio eta merkantilizazioa barneratzen ditu.

• Ongizatearen ikuspegi patriarkal, kapitalista, indibidualista eta mendebaldeko bat saltzen da, ondorioz merkatu global baten uniformitatera eramaten du.

• Gizarte mugimenduei egiten zaien mespretxua eta enpresari gurtu egitea barnean ditu, gizartearen aktore bakar “baliagarria” bezala.

Egungo sistema ekonomikoak sustatutako baldintzapen hauen aurrean, eskala globalean elikagaien ekoizpenean, banaketan eta kontsumoan paradigma aldaketa bat sustatzeko beharra eta eskubidea zehazten dute errealitateek. Nekazalgoaren %80 baino gehiago tokiko edo eskualdeko eremuan funtzionatzen du, eta gehiengo handi bat bide informalen bitartez egiten du. Hain desberdinak diren merkatu hauek mundu mailan kontsumitzen den elikagai fluxuaren gehiengoa hartzen dute. Tartea tokiko eremutik eskualdeko eremura bitartekoa da eta espazio hauek landa guneetan, hiri kanpoaldean eta hirietan kokatuta daude. Aipatutako merkatu hauek tokiko, eskualdeko edo/eta nazional mailako elikadura sistemetara konektatuta daude: elikagaia eremu zehatz batean ekoiztu, prozesatu, merkaturatu eta kontsumitzen da, ondorioz balio erantsia eremu horretan geratzen da eta partekatu egiten da, modu horretan enplegu sorrera sustatuz.

Ekoizpenari / merkaturatzeari / kontsumoari dagokionez, nagusiki globalizazioaren eredu neoliberalean oinarritzeak industrializatutako elikagaien ekoizpen batera, Hegoaldeko herrialdeetan kostu baxuko ekoizpen batera eramaten du eta hazkuntza eta onura ekonomikoko bilaketa etengabean. Horrela, gure herriak eta hiriak aldatuz joan dira, merkataritza-guneak sortu dira, herrietako denda txikiak itxi egin dira, baserriak utzi egin dira… eta hori guztiarekin, komunitarioa, kultura eta herri jakinduriaren balioa galtzen joan da, gizarte sareen balioa: azken batean, kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko banaketak, ondorioei eta gure ekintzen eta, tokiko eta global mailan probokatzen ari garen baldintza sozial, ekonomiko eta ingurumeneko baldintzen arteko erlazioari dagokion itsutasun honetan eragin handia du.

EAE, Ipar global honetan eta Europar Batasunaren egituraren barruan kokatua, ez dago elikagaien ekoizpen eta kontsumoko jarraibide hauetatik alde batera. Gure komunitatea nekazaritza txikiaren desagerpena sortzen duen dinamika esportatzaile eta homogeneizatzaile globalizatuan murgilduta dago nagusiki. Bizi dugun egoeraren ideia bat egiteko, 2013-2011 urteen artean EBan ustiapenen %20

4 http://blogs.publico.es/dominiopublico/1112/la-cara-oculta-de-los-supermercados/ 2016/09/02an

galdu ziren. EAEn 1980 urtean zeuden 50.000 pertsona ekoizleetatik, egun ez dira 9.520 baino gelditzen. 1999-2005 urteen artean, batezbesteko %43 baserri uzte eman dira, eta 2007 urtean nekazal biztanleria aktiboa guztiaren %0,73 besterik ez zen. Ildo beretik, NPEren laguntzen %49 onuradunen %5ak jaso ditu. Produkzio eremuan, oro har, kimiko asko erabiltzen dira, abereentzako elikagaien menpekotasuna, eta lurren akaparamendu joera globalarekin lerrokaturik, lurrak eskuratzeko arazo larri bat ematen da nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenerako. Kontsumitzaileek tokiko ekoizpenaren %5 besterik ez dugu kontsumitzen, gainerako inportatua da, modu honetan garraioaren menpekotasun osoa izanik, merkatua eta nazioarteko prezioen menpekotasuna, baita gure bioaniztasunaren eta gure elikaduraren kalitatearen galera bat ere.

Euskal Herrian Elikadura Burujabetzaren printzipioa EHNE-Bizkaia nekazari sindikatuaren bitartez barneratua izan da, La Vía Campesinaren eta Europar Nekazaritza Koordinakundearen kide aktiboa. Tokikoa-globala ikuspegitik, Emaús Gizarte Fundazioa, aldarrikapenak eta tokiko proposamenak biltzen dituen bi espazioen parte aktiboa eta kide sortzailea izan da, beti ere LVCko proposamen globaletan kokatuta; lehenengo Elikadura Burujabetzaren aldeko Aliantza (2009) eta aurrerago, 2013 urtean, Elikadura Burujabetzaren aldeko Espazio politikoa Euskal Herrian.

## EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Ekonomia solidarioa kontzeptu eta praktika bezala jasoko da, landu nahi ditugun ereduak horretan oinarritzen direlako. Modu honetan, kontzeptuaren hurbilketa desberdinak landuko ditugu, bai europar testuinguruan bai Latinoamerikako testuinguruan.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaz hitz egitea, sistema kapitalistak dituen desberdinkeriez, bidegabekeriez hutsez hitz egitea da. Ekonomia solidarioa (edo ekonomia soziala) bezalako proposamenak ezin dira ulertu, perfektua ez den testuinguru sozio-ekonomiko global bati erantzuten diola kontutan izan gabe. Testuinguru global horretan pertsona guztiek ez dituzten garapen pertsonaleko eta bizitza duin bat bizitzeko aukera berdinak izaten. Merkatua eta logika ekonomikoak jarduera ekonomikoaren helburuan bihurtzen diren mundu bat, eta pertsona baliabide produktibo bat gehiago besterik ez den horretan, baliabide naturalak irabazien akumulazio logikaren zerbitzura dauden horretan, genero arteko botere erlazioak ekitatiboak ez diren horretan eta genero femeninoaren baliabideak aprobetxatzen diren horretan duen balioa ikustera eman gabe, eta kapitalaren akumulazio dinamikak geroz eta boteretsuagoak eta pertsona gutxi batzuetan kontzentratzen diren horretan. Sintesi modura, sistema kapitalista ondasun eta zerbitzuen sorrera prozesu batean oinarritzen da, baita planeta eta bertan dagoen bizitza narriatzen duen gehiegizko ekoizpen eta kontsumo eredu batean ere. Era berean, pertsona guztientzat duintasunezko bizitza kalitate bat bermatzeko eta bizitzaren jasangarritasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren jarduerak alde batera uzten ditu eta ez ditu ikustera ematen.

Duela hamarkadetatik dugun errealitate honen aurrean, arazo honi erantzuna ematen saiatzen diren ekintzak eta jarduerak sortu dira eta denbora aurrera joan ahala, aurreko parrafoan aipatutako dimentsio anitzeko arazoari aurre egiteko praktika egoki multzo bat artikulatzen duten pentsamendu korronteetan eraiki dira.

Pérez De Mendiguren, Etxezarreta, eta Guridiren, (2009) hitzetan:

> **Ekonomia Solidarioa Ekonomia sozialaren ardatz beretik sortzen da, eta erlazio ekonomikoak beste parametro desberdin batzuetatik berriz pentsatzeko saiakera bat da. Kapitalaren logikaren aurrean, esfera publiko eta pribatuen goraka doan merkantilizazioaren eta gehiengo onuraren bilaketaren aurrean, Ekonomia Solidarioak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarren arteko laguntzan oinarritutako, ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantzaketa erlazioak eraikitzea jarraitzen du. Kapitalaren eta honen akumulazioaren aurrean, Ekonomia Solidarioak pertsonak eta pertsonen lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean, merkatuei paper instrumental bat emanez beti pertsona guztien eta bizitzaren erreprodukzioaren ongizatearen zerbitzura.**



Ekonomia Solidarioa terminoak, kontzepzio eta ikuspegi teorikoen, errealitate sozio-ekonomiko eta instituzionalen, eta enpresa eta asoziazio praktiken multzo heterogeneo bati egiten dio erreferentzia. XX. mendearen azken laurdenetik, ekonomiaren papera eta gizarte garaikideetan ekonomia prozesuak modu desberdin batean ulertzeko goraka doan pertenentziako zentzu bat garatzen ari dira. (13 or.)

Ekonomia Solidarioaren beste hurbilketa bat Carlos Askunzek (2007) ematen du:

> **Ekonomia Solidarioa, egun ekonomia kapitalista oinarritzen den lehentasunezko sistemaren gogoeta alternatibo batetik abiatzen da. Ekonomia bitarteko bat bezala –eta ez helburu bezala- aldarrikatzen duen ikuspegi bat eta praktika bat da, garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzura, pertsonen bizitza kalitatearen eta bere gizarte ingurunearen hobekuntzaren alde egiten duen tresna bezala. Beraz, bere sustraiak pentsamendu eta jarduera ekonomikoaren gogoeta etiko eta humanista batean sakontzen duen ikusmolde bat, pertsona eta komunitatea garapenaren erdigunean kokatzen dituen ikusmoldea.** *(p.101)*

Egile honek, ikuspegi honek ekonomia solidarioa guztiz **eraldatzailea** den praktika batean bihurtzen duela argudiatzen du, nagusi den lanaren iritziarekin aurrez aurre talka egitean (eta beraz, pertsonaren iritzia), ekoizpen modu bat gehiago bezala, kapitalaren eta lurraren mailan. Jarduera ekonomikoa pertsonaren zerbitzura jartzeak (ekonomia feminista bezalako beste korronte batzuekin partekatutako Tesia, eta beste modu batera esanda –bizitzaren jasangarritasuna-), eta tesi kooperatibistak baina haratago joateak ere (lana jarduera ekonomikoaren erdigune bezala), nagusi den eredu kapitalistak defendatzen duen ikuspegi guztiz desberdina da.

Beste alde batetik Polanyi-k[5] (1976) ekonomia modernoan ematen den segregazioari kritika bat egiten dio, ekonomia eta gizartearen artean. Egile honek berak, pentsamendu ekonomiko klasiko eta neoklasikoaren oinarriei kritika epistemologiko eta ontologiko bat egingo dio bere instituzio analisiaren alternatibatik abiatuz, jarduera ekonomikoak inskribatzen diren jatorri politiko, kultural eta sozialean sartzea du helburu (Lasheras Sanchez. A.1999). Izan ere, merkatuko ekonomiaren bere kritikak, gizartearen giza funtsaren desintegratzaile bezala, merkatu beraren abordatze politiko eta eraldatzaile bat inplikatzen du ezinbestean. Zentzu honetan, Laville-k (2004) ekonomia soziala kapitalismoaren hedapeneko ondorio sozialen erreakzio bezala sortzen dela ulertzen du. Ekonomia solidarioa, gizarte ekonomia berriaren adierazpen bezala, ekonomia eztabaida politikoaren lehenengo lekuan kokatzen du berriro. Horrela, García Jané-ren (2012) ustetan ez da soilik ekonomia kapitalistaren desberdina den ekonomia bat posible izatea, dagoeneko existitzen dela baizik. Bere iritziz izen desberdinak hartzen dituela da, egilearen eta testuinguruaren arabera: ekonomia soziala, elkartasunaren ekonomia, ekonomia solidarioa…, baina edozein kasutan, ekonomia kapitalistatik desberdina den arrazionaltasun batekin lan egiten duten eta justizia, elkartasuna, partaidetza, lankidetza, komunitatea eta jasangarritasuna bezalako baloreen bitartez aurrera egiten saiatzen diren, milaka praktika babesten ditu. Praktika hauek irabazirik bilatzen ez duten beharrak asetzea (lan, elikadura, etxebizitza, hezkuntza, partaidetza beharrak) bilatzen dute, nagusi den ekonomiak egiten duen horren aurkakoa. Kapitalaren propietatearen inguruan modu autoritarioan antolatu ordez, modu demokratikoan egiten dute eta lanaren erdigunean pertsonak kokatuz. Ingurumen gizarte ingurunea, erabili eta botatzeko baliabide iturri bat bezala hartu ordez, bitarteko honen zati banaezina bezala hartzen dira eta hau babesten eta hobetzen saiatzen dira.



Beraz, egile honentzat, ekonomia sozial eta solidarioa izaera oso desberdinetako esperientziek osatzen dute, batzuk ekoizpenean zentratuta (lan kooperatiboko moduan), beste batzuk merkaturatzean (bidezko merkataritzako moduan), kontsumoan (kontsumo arduratsua), maileguan (finantza etikoak), monetaren zirkulazioan (moneta sozialak eta bertako monetak), eta beste batzuk propietatean eta baliabideen kudeaketan (ondasun komunak). Horietan guztietan milioika pertsonek parte hartzen dute, gizarteratze gradu desberdinekin eta antolatzeko modu desberdinez baliatuz: asko kooperatibak dira (lan, kontsumo, kreditu… kooperatibak), beste batzuk elkarteak, gizarteratze enpresak, fundazioak dira, eta beste zenbait lankidetza sare informalak bezala lan egiten dute *(García Jané, 2012).*

Ekonomia Solidarioak, beraz, ekonomia egiteko esperientzia desberdinak biltzen ditu bere etapa guztietan (ekoizpena, banaketa, kontsumoa eta aurrezkia), elkartasunaren inguruan egituratzen delako ezaugarritzen delarik bere gorengo balio bezala. *(Guerra 2002).*

Ildo honetatik, gure merkatuetan egun nagusi diren modu eta baloreen korronte kritiko bat izan nahi du. Gerraren (2002) arabera,

> **Indibidualismoa areagotu egiten den tokian, ekonomia solidarioak komunitarismoa sustatzen du; lehiakortasuna bultzatzen den tokian, ekonomia solidarioak lankidetza bultzatzen du; irabaziak bilatzen diren horretan, ekonomia solidarioak onura justua bultzatzen du; materialismoak irabazten duen hartan, ekonomia solidarioak giza behar guztien asetasuna bultzatzen du; kontsumismoa jarraitzen den lekuan, ekonomia solidarioak kontsumo arduratsua bultzatzen du; merkatu librea goresten den leku hartan, ekonomia solidarioak bidezko merkataritza proposatzen du; azken batean, hazkunde ekonomikoaz hitz egiten den horretan, ekonomia solidarioak nahiago du garapenaz hitz egin giza eskala batean.**
>
> *(p.23)* ”

Hori horrela izanik, gaur egun ekonomia solidarioaren bi korronteren existentzia onartzen da: Latinoamerikarra eta europarra (Chávez eta Monzón 2006; Guerra 2004, Coraggio 2004, Pérez De Mendiguren eta lag. (2009). Latinoamerikako korrontea 80. hamarkadakoa da eta egile erreferenteen artean Razeto, Da Ros, Guerra, Coraggio, Arruda edo Singer ditu. Era berean, gutxienez beste hiru korronte identifikatzen dira latinoamerikarraren barruan, beraien artean elementu komunak partekatzen dituzte eta neurri handi batean, europar korrontea baino joera politiko eraldatzaileago bat hartzeko ezaugarria dute. Horrela, Razetok (1999) gizarte mugimenduen ekintza eraldatzailearen bideaz hitz egiten du, ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan ikuspegi kritiko batetik. Luis Coraggio-k (2011) honi gehitzen dio, Lanaren Ekonomia sistema alternatiboa bezala planteatzen dela, beste arau batzuekin, demokratikoagoak diren beste botere erlazioekin, beste baloreekin eta beste zentzu estrategikoarekin: guztien bizitzaren erreprodukzio zabalduaren optimizazioa, kudeaketa kolektiborako elkarrizketa eta lankidetzako, erabakitze kolektiboko, beharren onarpeneko eta estrategien diseinuko mailak dira. Bere aldetik, Paul Singer-ek (2002), ekonomia solidarioan erreferente den egilea eta brasildar korrontearen adierazlea, agian brasildarra da kritikoena eta diskurtso politikoena duena: Ekonomia solidarioa gizarte desberdinkerien eta langabeziaren aurka borrokarako estrategia posible bat da:

> **Ekonomia solidario baten eraikuntza estrategia alternatiba horietako bat da, kapital handiaren ondorioz probokatuak izan diren ekoizpen eta lan erlazioetan ematen diren aldaketak aprobetxatzen dituena, ekoizpena eta elkar trukeak antolatzeko modu berrien oinarriak emateko eta sustatzeko, merkatu kapitalista ohiko batean gobernatzen den horretaz oso desberdina den logika batean oinarrituz. Hori guztia kontutan izanik, pentsa daiteke, urte batzuen ondoren, ekonomia solidarioak norbere kontura eginiko ekoizpenean (norbanako edo kolektibo moduan, adibidez kooperatiba baten bitartez) barneratzeko aukera emango diela askoei, pertsona horiek gaur egun enplegu bat lortzeko aukerak oso eskasak izango liratekeela kontutan hartuta** (p.138).

Ikus daitekeen moduan, egile hauentzat ekonomia solidarioa, neurri handi batean, **errealitatearen izaera eraldatzaileko tresna** bat bezala da. Nagusi den eredu ekonomikoaren aurrean alternatibak eman eta biltzeko gai dena, beti ere pertsonen bizitza kalitatea hobetzera bideratua eta kapitalaren akumulazioa pertsona gutxi batzuen eskuetan uztearekin bat ez etorriz.

Azkenik, Ekonomia Solidarioaren inguruan egiten ari garen berrikuspen honetan, europar korrontea landuko dugu, korronte honen adierazle nagusienetako bat Laville (2004) izanik. Horretarako, lehenengo urratsa bezala, XIX. mende hasieratik Ekonomia Soziala bezala izendatuak bizitako prozesu historikoa kontutan izan behar dugu. Terminoak argitzeko asmoz eta Ekonomia Soziala (eta ez Solidarioa) hartzen den horren inguruko zalantzak argitzeko, Chavez eta Monzón-ek (2010) emandako definizioa jasotzen dugu:

5 Karl Polanyi (Viena, Austria, 1886ko urriak 25 – Pickering, Ontario, Kanada, 1964ko apirilak 23) antropologia ekonomikoa eta ekonomia ortodoxoaren kritikaren eremuan lan egin zuen gizarte zientzialari eta filosofoa.

> Enpresa pribatu multzo bat modu formalean antolatuta, erabakitzeko autonomiaz eta atxikimendu askatasunarekin, merkatuaren bitartez bere bazkideen beharrak asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak ekoitziz, ziurtatuz edo finantzatuz eta bazkideen artean irabazien edo soberakinen aldika egindako banaketa, baita erabaki hartzea ere, ez daude kapitalarekin edo bazkide bakoitzak emandako kotizazioekin zuzenean lotuta, bazkide bakoitzari bozka bat egokituz. Era berean, Ekonomia Sozialak modu formalean antolatuta dauden, erabakitzeko autonomia duten eta atxikimendurako askatasuna duten, familien alde merkatukoak ez diren zerbitzuak ekoizten dituzten entitate pribatu horiek ere biltzen ditu. Mota honetako entitateetako soberakinak, egongo balira, ezin dituzte eskuratu sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek.

Ikus daitekeen bezala, definizioak hainbat ezaugarri biltzen dituzten entitate motei egiten die erreferentzia, gizartea eraldatzeko "ekonomia egiteko" modu bat baino gehiago. Agian hau izan daiteke Ekonomia Sozialaren eta Ekonomia Solidarioaren arteko desberdintasun nagusienetako bat, azken batean, bere karga politikoa.

Baina Ekonomia Solidarioaren europar korrontera itzuliz, ekonomia sozialeko sektorea osatu duten hainbat entitatek (Kooperatibak, mutualitate, etab.) instituzionalizazio prozesuak jasan dituzte, prozesu hauek, batzuetan, baloreen eta jokatzeko moduen nolabaiteko galera bat sorrarazi du. Egoera honen aurrean, Jean Louis Laville bezalako egileek "ekonomia sozial berria" kontzeptua sortu dute, Perez de Mendiguren, et al. (2009, 15or) hitzetan "geroz eta gehiago erabiltzen den Ekonomia Solidarioa kontzeptuan bihurtu da, Amerikan ematen ari ziren eztabaidekin elkargune bat sortzea ekarri duelarik". Egile hauen hitzetan, ekonomia solidarioaren kontzeptualizazioa Europan bi ikuspegi hartu ditu, alde batetik ikuspegi makroa, ekonomia modu berri batean ulertzeari egiten dio erreferentzia, egungo paradigmaren nagusitzearen klabean eta demokratizatzeko, ekonomia, gizartea eta politikaren arteko banaketarekin defendatzen duelarik haustura. Ikuspegi bidimentsionala da, dimentsio sozio-politikoa eta sozio-ekonomiko barneratzen dira.

Bigarren planteamendua, ikuspegi mikro bati dagokio, nolabait enpresa-azterketa sakonago bat egiten da. "Bere arreta esperientzia zehatzetan kontzentratzen du eta erakundeen azterketan oinarritzen da bereziki, beraien funtzionamendua, beraien ezaugarriak, juridiko moduan dituzten desberdintasunak, beraien jarduerak zuzentzen diren sektoreak, beraien baliabideak kudeatzen dituzten modua, edo beraien bideragarritasuna ziurtatzeko gerta dakieken arazoak" (Perez de Mendiguren, et al 2009, 16 or.). Hala ere, ikuspegi honek "argitasun" politikoa galtzen du, errealitateari gehiago gerturatzeko asmoz, hainbat kasutan arrisku bat bezala ikus daiteke.

## TOKIKO GIZA GARAPENA

### Aurrekariak. Garapen iraunkorra kontzeptuaren jatorria

Garapena kontzeptua aldaketa sakoneko egoera batean aurkitzen da eta azken hamarkadetan garapena izan denaren oinarriak eztabaidatzen daude.

Garapena, historian zehar aldatzen joan den kontzeptu bat da

- Ez du definizio zehatz edo mugatu bat.
- Etengabeko eboluzioan dago: gizarte bakoitzak definitzen du, une historiko bakoitzean.
- Garapena etorkizuneko kategoria bat da:
- Gizarte batek izatea espero duen horren proiektua da.
- Beraz, desiragarria eta posible kontsideratzen den hori da.
- Garapenak gizarte legitimazioa behar du.

**Garapenak gizarte legitimazioa behar du.**

Historian zehar, garapen ekonomikoaren aldeko kezka etengabea izan da ikertzaile desberdinentzat, baita gizartearentzat ere; baina, XX mende hasieran garapen hori lehen aldiz osatuko da diziplina anitzeko ikuspegi batetik.

Hasiera batean jauzi kuantitatibo baten beharraz hitz egin zen, Hirugarren Munduko herrialdeen garapenean. Beranduago, jauzi kualitatibo baten beharra planteatu zen, hau da, Garapen Iraunkor baten beharra. Giza Garapenaren inguruan, Nazio Batuek proposatutako planteamenduek jarraituko diote, eta une honetan kontzeptu berri baten sorreraren testigu izaten ari gara: Giza Garapen Iraunkorra kontzeptua, aurreko bi ikuspegiak barneratzen saiatzen den kontzeptua.

### Garapen jasangarria. Eztabaida handiko kontzeptua

Bigarren Munduko Gerraren ondoren, industrializatutako herrialdeak garapenaren paradigman bihurtzen dira munduko gainerako herrialde guztientzat. Modu honetan, herrialde guztien erreferentziazko helburua modernizazioa da eta gainera, horientzat guztientzat "posibletzat" hartzen da.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, hazkunde ekonomikoaren gaineko eztabaidaren norabidea aldatu egin zen. Garai hartan, mugarik gabeko hazkundearen aurkako ahotsak sortu ziren, planetaren muga biologikoak kontuan hartzeko beharraz ohartaraziz, krisi ekonomikoa ingurumenarekiko eta bizitza kalitatearekiko gauzatzen ari zen efektu kaltegarriak gero eta nabariagoak ziren testuinguru batean (Meadows eta lag., 1972; Daly, 1989). Ingurumen baldintzen larritasunaren eta baliabide naturalak urriak zirela pertzepzioaren aurrean, ingurumena aldagaia barneratzen hasi ziren hazkunde ekonomiko ereduetan. Baina, aldagai hau hazkunde ereduetan barneratzerako

6 Club de Roma (The Club of Rome) pertsona ospetsu batzuek osatzen duten erakunde bat da, Munduko Ordena Berri bat ezartzea bilatzen dutelarik. Club de Roma osatzen dutenen artean aurki daitezke: zientzialari garrantzitsuak (batzuk Nobel sariak), ekonomialariak, politikoak, estatu buruak, baita nazioarteko elkarteak ere.

garaian, kontrajarrian dauden bi alde nabarmentzen dira: alde batetik, alde neoklasikoak, Ingurumen Ekonomian eratorri dena; eta beste aldetik, Ekonomia Ekologikoa deiturikoa. Ingurumen ekologiatik, baliabide naturalak teknologiagatik aldatzeko aukera kontuan hartzen da eta baliabide natural horiek kontabilizatzeko eta eredu ekonomikoetan barneratzeko teknikak planteatzen dira. Paradigma neoklasikoaren oinordekoa da eta printzipio marjinalistak aplikatzen saiatzen da eragileen erabakien analisietara, ingurumen-baliabideen esleipen hobekiena definitzea bilatuz. Ingurumena, baliabide naturalen hornitzaile bat bezala ikusten du, sormenezko zerbitzuen, zerbitzu ekologikoen hornitzaile bat bezala, baita hondakinen hartzaile bat bezala ere, eragile batek sortutako kalteak hirugarrenek jasaten duten kostu bat sortzen dutelarik, hirugarren hauei zerbitzuren bat gabetzen diete.

Ekonomia Ekologikotik, 80 hamarkada amaieran sortua, diziplina anitzeko ikuspegi bat proposatzen du, ekologia, biologia, termodinamika, etika eta beste zientzia batzuen elementuak barneratzen dituelarik. Hazkunde esponentzial bat mantentzeko ezintasuna nabarmentzen da, mugak dituen planeta batean aurkitzen garelako.

Hain zuzen ere, iraunkortasun indartsu edo ahul baten aldeko ekonomisten posizionamenduak, hauek hazkunde ekonomikoaren uztearen alde edo aurka baldintzatzen ditu. Hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar Club de Roma-k hainbat txosten argitaratu zituen diziplina anitzeko ikuspegi batetik eta polemika handi bat sortu zuten. Lehenengo txostenean (Merasovic, 1972), herrialde garatuentzat hazkunde baliogabea proposatzen zuten, baliabide naturalen mugak kontuan hartzen zituen garapen eredu alternatiboak bilatzeko premiazko beharra nabarmenduz. Club de Roma-ren[6] (Merasovic eta Pestel, 1975) bigarren txostenak, neurri batean bere jarrera moderatu zuen, baina planetaren baliabideen eskasian. Hazkundea amaitzeak dagoeneko ez zuen larritzen, baina "hazkundea, hazkundea beragatik soilik, zenbaki- eta tamaina-zentzuan, denboran mugagabe ezin duela jarraitu" planteatzen zuen (Merasovic eta Pestel, 1975, 27 or.).

Testuinguru honetan, Garapen Iraunkorra kontzeptuaren inguruan sortutako eztabaidak, 1987 urtean Nazio Batuen Ingurumenaren Batzordearen lan azpimarragarriaren argitalpena sorrarazi zuen, Gro Harlem Brundtland-en agindupean, orduan Ingurumena eta Garapeneko Munduko Batzordearen presidentea, "Nuestro Futuro Común" izenekoa (CMMAD, 1988 (1987)) eta "Brundtland Txostena" bezala ezagutua. Lan honek, garapen iraunkorra kontzeptuaren instituzionalizazio prozesuan inflexio puntu bat ezarri zuen, ordu arte eztabaida akademiko bat besterik izan zen eta horren ondoren, esparru politikora eramango zuten.

Horrez gain, Garapen Iraunkorra kontzeptuaren definizio hedatuena azaldu zuen:

> **Garapen Iraunkorra, oraingo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, beraien beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasuna estutasunean jarri gabe**
>
> *(CMMAD, 1988 (1987), p. 67).* ”

Aurreko lerroetan azaldutako planteamendua onartuz, Garapen Iraunkorrak inplizitu moduan hiru dimentsioko hautemate bat barneratzen zuela baieztatu daiteke, bertan, bektore ekonomikoak, ekologikoak eta soziala barneratzen zirelarik.

### Giza Garapena eta Giza Garapen Jasangarria

Giza garapen ikuspegia, 1980 hamarkadan nagusi zen garapeneko Munduko Bankua edo Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) bezalako nazioarteko erakundeen proposamenekin kritikoa zen testuinguru batean sortu zen. Testuinguru horrek, hazkunde ekonomiko nazionalaren eta gizakiaren norbanakoaren aukeren zabalkuntzaren arteko lotura estua suposatzen zuen. Pertsona askok, horien artean Mahbub ul Hag Doktore ekonomista pakistandarrak (giza garapen paradigmaren formulazioan rol garrantzitsu bat bete zuen), garapen alternatiboko eredu baten beharra onartu zuten hainbat arrazoiengatik, horien artean:

- Une horretan zegoen onura ekonomikoak zabaltzeko eta pobrezia errotik kentzeko, merkatuko indarren dirujario efektuaren boterearen gaineko konbentzimendu orokorraren aurka, gero eta ebidentzia handiagoa;
- Egiturazko Doikuntzako Programen giza kostuak nabarmenagoak bihurtu ziren;
- Gaixotasun sozialak (delitua, gizarte-ehunaren ahulezia, VIH/GIB, kutsadura, etab.) sakabanatzen jarraitzen zuten, hazkunde ekonomiko sendo eta sistematikoa eman arren;
- Laurogeita hamarreko hasieran demokratizazio olatu batek itxaropena handitu zuen, pertsonetan zentratutako ereduen sorreraren inguruan.

Testuinguru honetan, helburu zabalagoak kontuan hartu beharko lituzkeen ikuspegi berri bat behar zen:

- Ez bakarrik ekonomikoak: BPGaren hazkundea ez zen banatzen ari eta ez zen iraunkorra, eta BPGaren fetitxea aldatzea behar zen.
- Perspektiba orokorrak: ez bakarrik nazionalak edo eskualdekoak.
- Iraunkortasuna epe luzera: berehalakoan bakarrik ez pentsatzea.

Zentzu honetan, giza garapena kontzeptua, garapenaren teoria heterodoxoen esparruan ekarpen esanguratsuenetako bat bezala hartu daiteke eta Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) planteatu eta definitu zuen 1990 urtean (A Dar, 2004). Ildo horretan, Amartya Sen-ek (1981), teoria honen defendatzaile nagusietako bat eta Giza Garapenaren definizioan PNUDeko lankide nagusiak, laurogei hamarkadaren hasieran, pobreziaren zergatia argudiatu zuen esanez: ez zela errotzen baliabide nahikoa ez zegoelako, hauen eskuragarritasun eza zegoelako baizik.

Horrekin batera, Sen-ek ikuspegi baikorra adierazten zuen baliabide naturalen agortzearen aukeraren aurrean, munduko populazioaren beharrak asetzeko nahikoa baliabide ez izatearen ideia alde batera utziz. Era berean, ikuspegi berri honen esparruan, gobernuz kanpoko hainbat erakunde sortu dira, nazioarteko lankidetzatik lan eginez ekarpen baliotsuak burutu dituzte.

Garapen Iraunkorra kontzeptuarekin gertatzen den bezala, Giza Garapena kontzeptua oinarrizko beharren asetasunetik abiatzen da, garapenaren oinarrizko elementu bezala, baina garapenak, dimentsio ekonomikoez gain beste batzuk aurkezten dituela azpimarratuz. Ikuspegi berri honek, pobreziaren murrizketan oinarritutako garapena defendatzen du, hau da, beharrak asetzeaz hitz egiten ari da, ez aberastasun materiala gora egiteaz.

Laburbilduz, giza garapena kontzeptu zabal eta integral bat da, “gizakiaren aukerak zabaltzea posible egiten duen prozesu bat” daramana (PNUD, 1990, 34 or.), garrantzitsuenak bezala nabarmentzen direlarik: bizitza luze eta osasungarri bat gozatzea, ezagutzak bereganatzea eta bizitza kalitate egoki bat lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko aukera izatea. Ikuspegi honetatik, garapenaz hitz egin daiteke pertsonek gaitasun gehiago eskuratzen dituztenean eta ez bakarrik, ondasun edo zerbitzu material gehiago kontsumitu ahal ditzaketen unean.

Giza garapena kontzeptuak, pertsonen aukerak zabaltzeko prozesua erakusten du, baita hauek lortu duten ongizate maila ere. Modu honetan, bi alderdi desberdintzea posible da: bat, giza gaitasunen prestakuntza, osasun egoera hobeagoa edo ezagutza gehiago bezala; eta bi, norbanakoak eskuratutako gaitasunak erabiltzen dituzten moduak, bai lanerako bai atsedenerako. Giza-boterea gauzatzeko hiru dira oinarrizko gaitasunak: bizitza luze eta osasuntsu bat lortzeko aukera, indibidualki eta sozial mailan baliotsuak diren ezagutzak eskuratzea eta begirunezko bizitza maila batez gozatzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzeko aukera izatea. (Chacón Castillo Benjamin)

Ongizatea beraz, hainbat osagaien bitartez neurtu beharko litzateke: ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera; ondasun eta zerbitzu horien aldatze funtzioa, bizitza planen aukera errealetan; eta norbanakoaren asetasun maila zehatz baten hartutako aukera eraldatzen duen ebaluazio funtzioa. Garapen honek, jendearentzat aukera irekiak zabaltzea bilatzen du, bizitza osasungarri bat, sormenezkoa bizitzeko eta bere gizarte ingurunean parte hartzeko bitarteko egokiekin. Hori horrela izanik, Giza Garapena pertsonen askatasunean bideratzen da eta ez baliabideen metatzean.

Ordu arte, herrialdeetako aberastasuna per capita nazio-produktu gordin terminoetan neurtua izan zen, eta Giza Garapen kontzeptuarekin konexioan, PNUD-ek, 1990 urtean Giza Garapen Indizea (IDH) proposatu zuen, biztanleriaren baldintza ekonomiko eta hezkuntza eta osasun baldintza bezala, herrialde desberdinetan. Geroztik, PNUD-ek urtero Giza Garapen Txostenak argitaratzen ditu, konparaziozko egoera islatzen delarik, programa honetan parte hartzen duten ehun eta hirurogeita hamar herrialde baino gehiagoren garapen terminoetan. Baina, bai Giza Garapenari bai bere adierazlea den IDH-ri egotzi daiteke, garapen prozesuaren etorkizuneko iraunkortasuna kontuan ez hartzea, hazkundearen ingurumen kostuak barneratzen ez direlako IDH errentaren osagarrian .

Giza garapena beti malgua izan da eta “amaiera ireki” bat izan du definizio zehatzagoei dagokionez. Giza garapenaren dimentsioak, pertsonen aukerak zabaltzeko moduak bezain hainbat existitu daitezke. Giza garapenarentzat gakoak edo lehentasunezko parametroek denboran zehar eboluzionatu dezakete eta herrialde desberdinen artean eta herrialde bakoitzean bertan ere aldatu daitezke.

Giza Garapena kontzeptuaren eratorria bezala, Giza Garapen Jasangarria kontzeptua sortu zen, lehenengo kontzeptua bezala, gizakia beraien kezken erdigunean kokatzea planteatzen dutelarik, gizakia beraren gaitasunak hobetzea lehentasunezkoa dela kontuan hartuz, bere beharrak asetzeko. Ikuspegi honetan ingurumena dimentsioa barneratzen da, herrialde aberatsetan ematen den garapen ereduaren bateraezintasuna agerian jarriz, munduko biztanleriaren osotasunaren beharren asetasunarekin. Bateraezintasun hau, bereziki, herrialde aberatsek duten baliabide naturalen kontsumo maila gainerako herrialdeetara hedatzeko ezintasunaren ondorioa da.

Giza Garapen Jasangarriaren filosofia honek hainbat kontzeptu barneratzen ditu:

- Giza Garapena, pertsonen aukeren hedatzea bezala ulertuz, termino ekonomiko, sozial (berdintasunaren aldeko banaketa, berdintasuna, etab.), kultural eta politikoetan.

- Iraunkortasuna, oraingo belaunaldiaren beharren asetasuna bezala ulertua, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna konpromisoan jarri gabe, beraien beharrak asetzeko.

Beste hitz batzuetan, Giza Garapen Iraunkorra kontzeptuak hiru dimentsiotako hautemate bat barneratzen du, bektore ekonomikoa, ekologikoa eta sozio-kulturalak osatzen dutelarik, hiru sistemez osatuta dagoen makrosistema bat osatuz, dagokion prozesuekin. Hiru dimentsioko hautemate hau oso onartua izan da bai instituzio eremuan (Munduko Bankua, Europar Batasuna) bai eremu akademikoan..

## a) Tokiko giza garapena– Tokiko garapena

Tokiko garapeneko prozesuak lurralde espezifiko batean gertatzen dira, beraz, tokiko garapenaz hitz egiten dugunean, lurralde baten garapenaz ari gara. Baina lurraldea ez da espazio fisiko bat soilik. Lurraldea ez da gauzak gertatzen diren leku bat bezala ikusi behar, aldagai bat bezala baizik, gizarte eraikuntza bat bezala. Lurraldea baldintzatzailea eta baldintzatua da aldi berean, aktoreen eta komunitateen ekintzengatik.

“Tokikoa” denaren definizio posibleak existitzen dira eskala mailan (biztanle kopuruaren edo kilometro karratuen arabera), edo nolabaiteko autonomia duen interakzioen sistema, edo unitate politiko-administratiboa; baina “tokikoa” modu zehatzean definitzeko bere korrelaziozko nozioari dagokiona besterik ez dago, globala dena. Zerbait lokal bezala definitzen bada, globala den zerbait dagokiolako da. (Gallicchio. E. 2002)

Tokiko-eskualdeko garapenak hiru dimentsio ditu:

a) dimentsio ekonomikoa b) dimentsio sozio-kulturala eta c) dimentsio politiko-instituzionala. Lehenengo dimentsioak lurraldea hartzen du kontuan esparru bezala eta prozesu ekonomikoaren aktore bezala, eskualdeko politikak enplegu betea lortzera bideratuta daude eskualdeko baliabideekin, eguneroko eginbeharretan berrikuntza alderdiari garrantzia ematen dio, enpresen eta bere ingurunearen artean ikaskuntza interaktibo bat sustatzen du eta egiturazko eraldaketa prozesuaren nukleoa giza kapitala da. Bigarren dimentsioak alderdi soziokulturalak hartzen ditu kontuan, garapen prozesuaren erabakigarri bezala, lurraldearen eraldaketan eragiten dutelako. Hirugarren eta azken dimentsioak, bere analisiaren elementu zentraletako bat bezala erakundeak ditu; erakunde hauek, garapen prozesuak estimulatu, lagundu eta babestu behar dituzte, gizarte kohesioaren alde egiten duten bitartean, oinarrizko zerbitzuen hornikuntzaren eta pertsonen eskubideen babesaren bitartez. Era berean, hezkuntza zerbitzuak sustatzen eta hobetzen dituzte, ezagutzen trebakuntzaren eta hedapenaren bitartez. Azken finean, oinarrizko beharrak betetzeko gaitasuna sortzea da, edo, beste modu batean esanda, pertsonen aukerak areagotzea bertako eremuan.

Giza garapen iraunkorraren helburua, bertako eremuan, azken hamarkada honetan, bai garapenaren alderdi teorikoan zein garapeneko lankidetza erakunde eta instituzioen lankidetza politiketan sortzen ari diren ideia sendoetako bat da, bai globalizaziotik bai mikro den horretatik eratorri egiten diren zeharkako planteamenduei erantzuna emanez. Garapen ekonomikoa, garapen komunitarioa eta giza garapenaren artean dagoen lotura naturalki bila daitekeen espazioa, udal-espazioa edo bertako-espazioa da, garapenaren kontraesanak modu argiago eta berehalakoan hauteman eta zuzendu daitezkeen espazioa delako. Beste alde batetik, pertsonengandik gertuen dagoen gobernu-ekintza eremu bat da eta beraz, bere nahi eta beharrengandik gertu egotea espero litzateke.

Ikuspegi honetan, jatorri desberdinetatik eratorri egiten diren hiru korronte sortzen dira, baina komunean dituzten nahikoa elementu aurkezten dituzte, beraien sinergiek garrantzia handia izan dezakete, nazioarteko lankidetzaren politikak eta zereginak bideratzeko.

- Giza Garapenaren ikuspegiak, pertsonak helburuak bezala hartzen ditu kontuan eta ez garapenaren tresna hutsak bezala eta pertsonen aukeren zabaltzea azpimarratzen du, beraien gaitasunen eta askatasunen handitzearen isla besterik ezin dute izan. Giza-kapitalari, gizarte-kapitalari eta erakunde-kapitalari garrantzi handia ematen dio oinarrizko beharrak asetzeko eta ongizate handiago baten lorpenerako.

- Garapen Iraunkorraren ikuspegiak, baliabide naturalen kontserbazioa hartzen du azterketa ardatz bezala, giza beharren asetasunaren alde egiten duten neurri horretan, bai oraingo belaunaldietan bai etorkizuneko belaunaldietan. Baina, baliabide hauen erabilera eta kontserbazioa, giza-kapitala, gizarte-kapitala eta erakunde-kapitalaren erreprodukzio baldintzekin zerikusia duten, gizarte izaerako faktoreengatik baldintzatuta daude, baita kapital fisikoaren baldintzekin, nahiz eta modu desberdinean.

- Eskualde-Tokiko Garapenaren ikuspegiak, lurraldea hartzen du bere analisiaren oinarri bezala eta bere helburua, lurraldearen (bertakoa-eskualdekoa) hazkunde ekonomikoa da, marko konpetitibo globala barneratzen eta aurre egiten delarik, horretarako, dagokion bertako eta eskualde izaerako lurralde estrategiak diseinatuz eta eginez. Ikuspegi honetatik kapital fisikoari arreta berezia eskaintzen zaio, baina bereziki giza-kapitalari, gizarte-kapitalari eta erakunde-kapitalari.

Hiru ikuspegi hauek, guztiek hainbat gaiei eskaintzen dieten garrantzia dute izendatzaile bezala: gaitasunen eta aukeren hazkundea, hezkuntza, prestakuntza eta trebakuntza teknikoaren bitartez; gizarte eta erakundeen sendotasuna; bertako iraunkortasuneko estrategiak definitzeko gaitasunak eta erantzukizunak dituzten, sareetan eta erakundeetako pertsonen partaidetza. Hori guztia, gizartearen norbanakoaren ongizatearen eta ongizate kolektiboaren areagotzera bideratua. ●



# 2. OINARRI TEORIKO DESBERDINEN ARTEKO KONEXIOAK




Grafiko honek, merkatari eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile (tokiko eta global eremuan) baten proposizioaren marko teorikoa sintetizatzen du, dituen elementu desberdinak eta beraien artean existitzen diren erlazioak barneratuz.

Zentzu honetan, aurretik azaldu diren oinarri teorikoetatik planteatutako eredu eraldatzaile batek, hainbat galdera erantzun behar dituela uste dugu, eta hauen hausnarketetatik kontzeptu desberdinen arteko erlazioak eta konexioak eratorri egiten dira. Modu honetan, lan honetan kontutan hartu diren oinarri teorikoen eta printzipioen arabera, tokian eta eremu globalean merkatu eta kontsumo eraldatzaile eredu baten planteamendua, ondoren adierazten den moduan zehaztuko litzateke:

## OINARRI TEORIKO BAKOITZETIK EGINDAKO EKARPEN OROKORRAK EREDUARI

Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoari egiten dion ekarpena da, bere entitateak eragileak dira, balore eta printzipio batzuk betetzeaz eratorri egiten diren barne funtzionamenduko ezaugarri horien dagokionez, komunitateak beraien gaitasunak garatu ditzakete ingurunearekiko armonian (Garapen Komunitarioa)[1] modu orekatu, solidario eta jasangarri batean, modu honetan, komunitatearen eta justizia sozialaren garapen bat sustatuz. (Guridi. L, P. de Mendiguren 2013).

Garrantzitsua da kontutan izatea, azken helburu bezala diru-etekina duen eta pertsonen bizitza beraren merkantilizazioa sortzen duen guztiz kapitalista den logikaren aurrean, Ekonomia Sozial eta Solidarioa aurrera egiten ari

1 Grafikoa. Merkatari eta Kontsumo Eredu justu eta eraldatzaileen Marko teorikoa, tokiko eta global eremuan. Norberaren elaborazioa.

da, geroz eta aberatsagoa eta konplexuagoa den ekosistema alternatibo bat dei genezakeen eraikuntzan, dagoeneko ohiko jarduera ekonomikoaren eta honentzat beharrezkoak diren engranajeen (ekoizpena, merkaturatzea, finantzaketa eta kontsumoa) espektro desberdinak ditu. Bere eragileen arteko erlazioak elkartasuna, elkarrekikotasuna, justizia soziala eta elkarren arteko laguntzan premisetan oinarritzen dira, ondorioz, ezinbestean, sarean eta partehartzaile moduan artikulatzeko beharra sortzen da.

Hori horrela izanik, Ekonomia Sozial eta Solidarioak esperientzia zabala du bai artikulatzeko eta sarean lan egiteko[2] garaian, bai korronte alternatiboen ekarpenak onartzeko, sendotzeko eta kanpora ateratzeko, ez bakarrik Bidezko Merkataritzaren[3] edo Elikadura Burujabetzaren[4] ekarpenak, baita ekonomia feministaren[5] ekarpenak ere. Azken honetatik, Euskadi mailan, bizitzaren jasangarritasuna eta zaintzen ekonomia gaia arreta berezi batekin lan egiten ari dira. Horrez gain, ekonomia zirkularrarekin[6] edo baita Guztien Ongiarekin[7] ere erlazioak aurkitzen ditugu.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eremuan batzorde desberdinak sortu dira eta funtzionamenduan daude, merkatu sozialen[8] sustapenaren inguruan, komunikazioa, gizarte edo nazioarteko ikuskaritza. Era berean, sektoreetako lantaldeak daude, akademia, enpresa eta gizarte munduko pertsonen partaidetzara irekita daudenak (kontratazio publiko arduratsua, ekintzailetza, gizarte berrikuntza, etab. bezalako alderdietan eragiteko helburuarekin). Garrantzitsua da lan dinamika mota hauek kontutan izatea ereduari ekarpenak egiteko asmoz, bereganatze etengabea eta mugimenduaren metamorfosi jarraia posible egiten dutenak direlako.

Horrez gain, aurretik aipatu dugun bezala, Ekonomia Sozial eta Solidarioak eskarmentu zabala izateak, izaera parte-hartzaile eta batzar moduko izaera irekia duten entitateen sorreran, kudeaketan eta administrazioan, benetan egokia izatea egiten dio. Izan ere, kolektibo parte-hartzaileen kudeaketa terminoetan egindako ikaskuntzek, klabe demokratiko eta horizontalean, ikerketa honetan jasotzen diren beste bi korronte teorikoen markoan sortzen eta garatzen diren ereduen eta ekimenen aurrean ekarpen garrantzitsuak egiten dituzte.

Azkenik, eta egoera ahulenean dauden pertsonen gizarteratzeari dagokionez, Ekonomia Sozial eta Solidarioa bere hasieran –gutxienez bere europar alderdian- bazterketa egoeran zeuden pertsonen gizarteratzean eta laneratzean zuzenean edo zeharka lan egiten zuten entitateen aldetik modu nabarmenean egituratua egon zen. Bilakaera historiko honek kezka garrantzitsu bat sortu du justizia sozialeko, elkartasuneko eta elkarrekikotasuneko elementu eta ikaskuntzen inguruan, baita kontzientzia hartze eta sentsibilizazioa kaltetuta dauden pertsonen egoerara eta desberdinkeria egoera hauek sortzen dituzten arrazoietara zuzendua.

**Bidezko Merkataritzari** dagokionez, WFTO estandarrak arautzen dituzten printzipioak Ekonomia Sozial eta Solidarioko eskutitzaren eta Elikadura Burujabetzaren printzipioekin artikulatuak egon daitezkeela ikusten dugu. Bidezko Merkataritza etengabeko eraikuntzan dago, gertuko bidezko merkataritza multzokatuz, elikagaien merkantilizazioa salatuz, hobekuntza konpetitiboaren bilaketa hedatuz nazioarteko merkatuan. Bere ibilbide multzokatuaren ekarpena egiten du komunikazioa, tokiko eta nazioarteko intzidentzia, ikerketa, sentsibilizazioa, eztabaida, trebakuntza, merkatari erlazioetan irizpideak eta printzipioak ezartzea eta eskubideak onartzea eta defendatzea terminoetan. Izan ere, Bidezko Merkataritzaren 10 printzipioen irakurketa zehaztu bat egiten badugu, ereduarekin bat editen duten eta garrantzia maila handia duten elementuak ikus ditzakegu, genero berdintasunaren aldeko apustua, ingurumenarekiko errespetua, pertsona ekoizleen arteko trebakuntzen sorreraren aldeko apustu zehatz interesgarria, justizia sozialaren aldeko borroka eta arrazagatik, sexuagatik edo sexu orientazioagatik ez diskriminatzea, besteak beste.

Bidezko Merkataritza, Ekonomia Solidarioa eta Ekonomia Feministarekin elkargune eta partekatutako espazioetara eboluzionatzen ari da. Urrutira joan gabe, 2017 urteko apirilaren 28tik 30era Kordoban ospatutako XIII Idearia Kongresuan, agerian jarri zen pentsamendu ekofeministaren garrantzia Ekonomia Solidarioaren mugimenduan. Aipatutako ikuspegi hau topaketan aurreikusitako espazio guztietan zeharka sartu zen, gaur egun estatu mailan Bidezko Merkataritza ulertzeko eta praktikan jartzeko moduak nola zabalduko diren ideia emanez. Bidezko Merkataritza ulertzeko modu desberdinen ulermen integral eta konplexu baten bidean aurrera joateko ikuspegi ireki, propositibo eta aktibo hau ereduarekin lerrokatzen da eta aldi berean elikatu egiten du.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa bezala ulertzen bada, Elikadura Burujabetza lurrari gerturatzearen adierazpen maximoa bezala ikus daiteke, tokiko ekosistema naturaletara eta bere ingurune eta lurraldera, modu zabalean hitz eginez (fisikoa, kulturala, soziala, baita emozionala ere).

1Garapen komunitarioa (def): komunitatea osatzen duten eragile guztiak barneratzen dituen esku-hartze metodoa, herritarren eta instituzioen arteko partaidetza eta artikulazio prozesuak ezarriz; prozesu pedagogiko bat eta aktoreen eta bitartekari egituren parte-hartze gaitasunak sendotuz, helburu komun eta aurretik zehaztutako helburuak lortzea posible egitea, komunitateen baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko eta hauen emaitzak modu jarraian ebaluatuak izan daitezen.

1Ikusi REASen (Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioa) kasua.

2Espainiako Bidezko Merkataritzaren koordinakundeak sektore-sare bezala parte hartzen du REASen.

3Adibide bezala ikusi, gure herrietatik elikadura burujabetzaren aldeko Eskutitza, 2014 urtean Zaragozan ospatutako ESSren Nazioarteko Kongresuaren esparruan gauzatua.

4Ekonomia feminista, ekonomia eta gizartea ikusteko eta ulertzeko beste modu bat bezala definitua izan daiteke, merkatua bakarrik kontutan hartzen duen eta behetik dagoen guztia, euskarritzen duen hori, alde batera uzten duen, hau da, hiritarren ekonomia alde batera uzten duen ekonomia bat dagoen ideian oinarritua. Joera ekonomiko feminista honek, ardatz nagusi bezala pertsonen bizitza duen ekonomia baten bidean joan nahi du. (Orozco, A. 2010). Egungo ekonomia sistema kapitalista eta patriarkala da: kapitalismoak patriarkatua aprobetxatzen jakin du. Egoera honen aurrean ekonomia feministatik, denborak eta lanak modu ekitatiboago batean berrantolaketan, kontsumoa eta ekoizpena modu desberdin batean antolatzean oinarritu behar den trantsizio baten beharra defendatzen dute.

5Guztiaren oinarria sistema kapitalista ezbaian jartzea izango litzateke.

6Ekonomia zirkularra kontzeptua eskola ekologistaren oinarrietan euskarritzen da, eta "murriztu, berrerabili eta birziklatu" paradigmaren aurrean aldaketa bat proposatzen du, eraldaketa sakonago eta iraunkorragoa, giza ekintzek ingurumenean sortzen duen eragina murrizten duen eraldaketa. (Braungart M, McDonough W.2005)

7Ondasun Komunaren Ekonomia merkatu sistemaren joera duen modu bat da, bertan, enpresen (pribatuen) aspirazio arrazoien eta helburuen koordenatuak irabazi eta konpetentzia grinatik aldatuak izan daitezen, Ondasun Komunaren eta lankidetzaren alde egiteko. (Deuticke, 2010)

8REASen definizioa. Merkatu soziala, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumoko eta ikaskuntza komuneko sare bat da, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duena, lurralde zehatz batean, bai ekonomia sozial eta solidarioko enpresek eta entitateek bai kontsumitzaile indibidual eta kolektiboek osatua.

9Ikusi 5/2011 Legea, Hitzaurrea. Ondorengoa zehazten da: Kooperatiba sozietateek, desberdinak direnak, eta beraien artean, lan asoziatuko, kontsumo, etxebizitza, nekazal, zerbitzu, itsaso, mailegu, irakaskuntza, osasun, seguru, garraio sozietateek, laneko sozietateek, elkarteek, fundazioek eta mutualitateek, gizarteratzeko enpresek, enplegu zentro bereziek, eraldaketako nekazal sozietateek eta arrantzale kofradiek ekonomia sozialaren printzipio orientatzaileak partekatzen dituzte.

Elikadura gizakiak dituen beharren adierazpen oinarrizkoena eta funtsezkoenetako bat dela ezin dezakegu ahaztu. Ikuspegi horretatik, Elikadura Burujabetzak metatzen duen ibilbide teoriko-praktikoa balio handikoa da, planeta elikatu nahi izatearen oinarrizko premisatik, nagusi den sistema ekonomiko kapitalista bera elikatu baino lehen. Elikadura Burujabetzak ereduari egiten dion ekarpena, giza biziraupenerako beharrezkoak diren oinarrizko elikagaiak ekoizteko modu bat da, tokiko balore eta erabilerekin eta ingurumenarekin errespetagarriak direnak, modu parte-hartzailean, askotan komunitatean eginak eta sarean. Horrez gain, gizarteratze ahalmena du, landa eremuan enplegua sortzen duen zentzu horretan -edo dagoena mantentzen du-, gazteak landara erakartzen ditu, izaera indibidualeko zein kolektiboko trebakuntzan sortzen ditu tokiko mailan, irtenbide berritzaileak hartzen eta sortzen ditu ekimenen kudeaketaren, lurraren erabileraren -agroekologia- alorrean, tokiko idiosinkrasia babesten laguntzen du eta babeseko, lankidetzako eta elkartasunezko belaunaldi arteko loturak eta erlazioak sortzen ditu. Azken batean, agroelikadura merkaturatzeko eta kontsumoko ekosistema txikiak, eskala txikiko nekazaritza eta abeltzaintzako ekonomia errealak sor daitezkeen bitarteko bat. Egileek adierazten duten bezala “Ekonomia solidarioan giza baloreak interes ekonomikoen aurretik jartzen badira, elikadura burujabetzan, modu analogoan, ekonomia elikaduraren zerbitzura jartzen da (merkatari, finantza, etab. mekanismoak erraztu), inoiz ez alderantziz”. (Dopazo, P., D. Gustavo, 2012).

Aipatu behar da ere, egun aurrerapen interesgarriak ematen ari dira topaketa espazioen proposizioaren inguruan, zehazki EBj eta ESSren artean. Izaera parte-hartzailea eta eraldatzailea duten oinarrizko beste mugimenduekin gertatzen den bezala, betidanik eman dira eta ematen doaz tokiko mailan, batzuetan ezusteko moduan eta beste batzuetan ez hainbeste. Lerrokatze prozesu hauek ikus daiteke adibidez, gure herrietatik EBj baten aldeko Eskutitza[10], elaboratzea den bezala gertaera baten bitartez, 2014ko azaroan REASen I Kongresuan. Eskutitza 80 erakundek sinatu zuten eta erreferentzia dokumentu batean bihurtu zen 2015eko hauteskundeetara aurkeztu ziren udal hautagaitza askorentzat.

## EREDUAK TOKIKO GIZA GARAPENARI EGINDAKO EKARPENA, TREBAKUNTZEN SORRERAREN PREMISATIK

Erreferentzia bezala Guridi L. eta Pérez de Mendiguren J.C. (2014) egileek elaboratutako ikerketa interesgarria hartzen dugu, Ekonomia Soziala eta Solidarioaren boterea bereizten saiatzen dira, Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomiko-produktibo bezala, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak bai giza gaitasun zentralekin, bai gaitasun kolektiboekin erlazionatuz. Horrela, Ekonomia Sozial eta Solidarioa gaitasun horien garapenaren eta finkapenaren alde hobekien egin dezakela defendatzen da, eta ondorioz, Tokiko Giza Garapenaren alde.

Laurogeiko hamarkadan zehar, Martha Nussbaum-ek[11] Amartya Kumar[12] Sen ekonomialariarekin batera lan egin zuen garapenarekin eta etikarekin erlazionatutako gaietan. Sen-ekin batera, “trebakuntzak” ("funtsezko askatasunak" bizitza luze bat bizitzeko, transakzio ekonomikoak edo jarduera politikoetan partaidetza burutzeko aukera bezala) kontzeptua sustatu zen, garapena osatzeko alderdiak bezala, eta beste alde batetik, pobrezia berriz kontzeptualizatzea, aipatutako “trebakuntzen” pribazio bezala.

Amartya Sen-ek, gobernuak bere hiritarren trebakuntza konkretuen eta zentzu horretan egindako ahaleginen arabera epaituak izatea proposatu zuen. Dimentsio ekonomikoan bakarrik oinarritutako garapenaren ebaluazio sistemari egindako kritika esplizitu bat da, eskuarki BPG edo biztanleko errenta bezala adierazleekin neurtua. Neurketa metodo horiei bideratutako kritiken inguruan ez dugu gehiago errepikatuko, merkatu eta kontsumo justu eta eraldatzaileko eredu baten tokiko garapenari kontribuzioa ikusteko beharrezkoak lirateekeen tresna eta adierazle horietatik oso urrun daudela esatea besterik ez dago. Sen-engana itzuliz, adierazle ekonomiko eta sozialen garapenean egindako ekarpen garrantzitsuena “gaitasuna” kontzeptua izan daiteke. Bere hurbilketa, gaitasunetan edo trebakuntzetan oinarrituta, askatasun positiboan[13] bideratzen da, pertsona baten gaitasun erreala zerbait izateko edo egiteko, askatasun negatiboaren[14] ordez, ekonomian komuna dena eta interferentzia ez egitean bakarrik zentratzen dena.Gizaki bat, gai izateko, bizitza luze eta osasuntsu bat bizitzeko aukera izan behar du, garatzeko aukera izatea, hautatzeko eta hautatua izateko bere eskubide politikoa gauzatu ahal izateko eskuragarri dauden baliabideekin edo/eta bitartekoekin. Premisa hau kontutan izanik, Martha Nussbaum-ek ulertzen dituen gaitasunak jasotzen ditugu. Egileak proposatutako 10 giza gaitasun zentralak[15] dira. .

10 http://www.economiasolidaria.org/files/CARTA_POR_UNA_SOBERANIA_ALIMENTARIA_DESDE_NUESTROS_MUNICIPIOS.pdf. Consultado el 24/03/2017

11 Martha Craven Nussbaum (New York, 1947ko maiatzak 6) estatubatuar filosofoa da. Bere interesak, zehazki, antzinako filosofian, la filosofia politikoan, la zuzenbidearen filosofian eta etikan zentratzen dira..

12 Amartya Kumar Sen(Manikanj-en jaioa, Bangala (Raj britaniarra), 1933ko azaroak 3) Filosofoa eta Ekonomista indioa, 1998 urtean Ekonomiako Nobel Saria jaso zuen, ongizatearen ekonomiari egindako ekarpenen medio.

13 Askatasun positiboa bezala ulertzen da, edozein pertsonak bere borondatearen jabe izatearen gaitasuna eta bere ekintzak eta bere bidea kontrolatzen eta zehazteko gaitasuna. Askatasun nozioa da autoerrealizazio bezala. Berlin.I. "Two Concepts of Liberty"1958.

14 Askatasun negatiboa (edo eskubide negatiboa) ekintza zehaztuko ikastaro bat burutu nahi duen indibiduoari kanpoko indarkeria gabeziagatik definitzen den hori da, hau da, X ekintza ikastaro bat burutu nahi duen A indibiduoa aske izango da, bakarrik A-ri X burutzea galarazten dion Y bat existitzen ez bada. Nahi duena egiteko libre sentitzen da inork zer egin behar duen esan gabe; hitz gutxitan esanda, askea da. Berlin.I. "Two Concepts of Liberty"1958.

1.BIZITZA. Amaiera arte iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea, behar baino lehen edo bizitza bizitzeak merezi ez duen zerbait horretara murriztu baino lehen hil gabe.

2. GORPUTZ OSASUNA. Osasun onaz gozatzeko gai izatea, ugalketa-osasuna, modu egokian elikatua egotea eta etxebizitza egoki bat izatea barneratuz.

3. GORPUTZ OSOTASUNA. Alde batetik bestera modu askean mugitzeko gai izatea; norberaren muga fisikoak subiranotzat hartzea, hau da, erasoetatik salbu egon ahal izatea, sexu indarkeria, haur sexu indarkeriak, genero indarkeria barneratuz; sexu asetasunaz eta ugalketa materian hautatzeko gaitasunaz gozatzeko aukerak izatea.

4. ZENTZUAK, IMAJINAZIOA ETA PENTSAMENDUA Zentzuk erabiltzeko gai izatea, imajinatzeko, pentsatzeko eta arrazoitzeko gai, baita gauza hauek egiteko gai izatea, benetan gizatiarra den modu batean, hau da, informatua eta landua, alfabetatzea eta matematika eta zientzia oinarrizko formazio bat barneratzen dituen (baina ez dago mugatua) hezkuntza egoki bati esker. Imajinazioa eta pentsamendua erabiltzeko gai izatea, auto-adierazpeneko obrak esperimentatu eta egin ahal izateko, baita norbanakoak aukeratutako gertaeretan parte hartzea ere, erlijio, literario edo musika gertaerak, besteak beste. Burua adierazpen askatasunaren bermez babestutako moduez erabiltzeko gai izatea, adierazpen politikoa, artistikoa eta erlijiosoari dagokionez. Bizitzaren zentzua bilatzeko gai izatea norbanako moduan. Esperientzia atsegingarriak gozatzeko eta beharrezkoak ez diren kalteak ekiditeko gai izatea.

5. EMOZIOAK. Gurekin zerikusia ez duten gauzekin edo pertsonekin lotura afektiboak izateko gai izatea; maitatzen eta zaintzen gaituzten horiei maitatu eta atsekabea sentitu ez daudenean; oro har, maitatu, atsekabea sentitu, samintasunez oroitu, eskertu eta justifikatutako haserrea esperimentatu. Emozional mailan garatu ahal izatea beldurrek eta antsiek sortzen dituzten oztoporik gabe, ezta gehiegikeriek edo zabarkeriek sortutako kasu traumatikoengatik ere. (Hau defendatzeak, bere garapenerako funtsezkoak direla erakutsi daitezkeen giza asoziazio moduak sustatzea da).

6. ARRAZOI PRAKTIKOA Ongiaren kontzeptu bat osatzeko gai izatea eta bizitzaren planifikazioari dagokionez hausnarketa kritiko bat hastea. (Honek kontzientzia askatasunaren babesa esan nahi du)

7. AFILIAZIOA. A) Besteekin bizitzeko eta besteengana zuzenduta bizitzeko gai izatea, beste gizakiekiko interesa onartu eta erakutsi eta gizarte interakzioko modu desberdinetan konpromisoa hartu; bai justiziarako bai laguntasunerako gaitasuna izatea. (Honek, mota honetako afiliazio moduak osatzen eta elikatzen dituzten instituzioak babestea inplikatzen du, baita batzartzeko eta diskurtso politikorako askatasuna ere). B) Buruzaletasunaren eta ez umiltzearen gizarte oinarriak izanik, izaki duinak bezala tratatuak izateko gaitasuna, pertsona guztien balioa berdina izanik. Honek, arraza, sexua, sexu orientazio, erlijio, kasta, etnia edo jatorri arrazoiagatik diskriminazioaren aurkako babesa inplikatzen du. Lanean, gizakiak bezala lan egin ahal izatea, arrazoi praktikoa landuz eta elkarrekikotasuneko erlazio esanguratsuak eraikiz beste langileekin.

8. BESTE ESPEZIEAK.Animaliekin, landareekin eta natura munduarekin interesean eta erlazioan bizitzeko gai izatea

9. JOLASTEKO GAITASUNA. Barre egiteko, jolasteko eta aisialdiko ekintzak gozatzeko gai izatea.

10. NORBANAKO BAKOITZAREN INGURUAREKIKO KONTROLA. A) Politikoa. Gure bizitzak gobernatzen dituzten erabaki politikoetan modu eraginkorrean parte hartzeko gai izatea; partaidetza politikoko eskubidea izatea, adierazpen eta asoziazio askatasunaren babesarekin batera. B) Materiala. Jabetzak izateko (bai lurrak bai ondasun higigarriak) gai izatea ez bakarrik modu formalean, aukera erreal bat bezala baizik; jabetzaren gaineko eskubideak izatea besteekiko berdintasunean; enplegu bat bilatzeko eskubidea izatea besteekiko berdintasun baldintzetan, bidegabeko erregistro eta bahituretatik aske egotea.

15 “Crear Capacidades: Propuesta para el Desarrollo Humano”. Nussbaum, M. (2011) 53-55 or.

Taula honetan ikus dezakegu, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Elikadura Burujabetza eta Bidezko Merkataritzako baloreak, Nussbaum-ek adierazten dituen gaitasun zentralekin etengabe artikulatzen eta lotzen direla.

Ikerketa honen helburua ez da Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Elikadura Burujabetza eta Bidezko Merkataritzaren artean aurki daitezkeen konexio edo kointzidentziak sakontasunean aztertzea, giza gaitasun zentralak sortzeko ahalmenari dagokionez. Hala ere, mota honetako gaitasunak sortzen dituzten hiru oinarri teoriko hauen artean sortzen diren hainbat kointzidentzia nabarmendu genitzake, modu honetan gure analisia euskarritzen delarik:

Hiru oinarriek erdigunean **pertsona** jartzen dute, **eskubideak dituen eta bere existentziarako berezko duintasuneko subjektu bezala.** Ekonomia Sozial eta Solidarioak pertsona eta bere ongizatea jarduera ekonomikoaren helburu bezala birkokatzen baditu, Elikadura Burujabetzak, munduko nekazalgoaren babeseko eta berdintasunean, kalitatezko elikagaien hornidura unibertsaleko ikuspegi batetik eta giza existentzia berarentzat beharrezkoa den elementu bat bezala, landa munduak garatzeko eta jarduteko duintasunezko modu bat izatea planteatzen du, modu konplexu eta integral batean ikusia. Bidezko Merkataritzak, bere aldetik, "Erakundeek prestasunez merkaturatzen dute, alboratuta dauden ekoizle txikien gizarte, ekonomia eta ingurune ongizatea garatzeko" (Bidezko Merkatari praktiken printzipioa) planteatzen du, hau da, merkatari praktika horien helburu bezala pertsonen ongizatea kokatzen du. Zalantzarik gabe, azaldu den guztia Nussbaum-en lehenengo gaitasunarekin lerrokatzen da -Bizitza-, bizitzeak merezi duen arte bizitzeko gaitasuna izatea (duintasunez).

Hiru oinarriek erdigunean pertsona jartzen dute, eskubideak dituen eta bere existentziarako berezko duintasuneko subjektu bezala

Era berean, zazpigarren gaitasunarekin erlazio zuzena ikus daiteke -afiliazioa-, hiru oinarri teorikoek printzipioak dituzte, gizakiak izaki duinak bezala tratatzeko gai izan daitezen, beraien balioa besteenen berbera delarik, arraza, sexu, sexu orientazio, erlijio, kasta, etnia edo jatorri arrazoiengatik diskriminaziorik izan gabe. Izan ere, Bidezko Merkataritzaren 5 printzipioa, diskriminaziorik ezaz hitz egiten modu zehatz batean[16] . Gauza berdina esan daiteke REASen eskutitz solidarioan dagoen Ekitate printzipioaren inguruan, hainbat elementu aipatzen ditu: giza duintasuna, berdintasuna justizian eta pertsonen diskriminazio eza, lehen aipatutako arrazoiak jarraituz.

Hiru oinarri teorikoek, pertsonaren garapena modu konplexu, integral eta diziplina anitzean ikusten dute. Hori horrela izanik, ingurumena kontutan hartu beharreko elementu bat bezala hartzen dute, gizakiaren garapeneko alternatibak proposatzeko orduan (REASen eskutitzaren ingurumen jasangarritasunaren printzipioa, Bidezko Merkataritzan Ingurumenaren aldeko errespetu Printzipioa edo naturarekin lan egitea Elikadura Burujabetzan). Hiru printzipio hauek erraz lerrokatu ditzakegu, beste espeziekin bizitzeko, giza gaitasun zentralarekin.

Gizakia garatzen den ingurunea eta ingurune horrekin erlazionatzeko moduak begiratzen baditugu, Ekonomia Sozial eta Solidarioak jasotzen duen **ingurunearekin konpromisoaren** printzipioa, modu jasangarri eta komunitarioan tokiko garapenean egindako partaidetza bezala ulertzen dela ikusiko dugu. Elikadura Burujabetzak, bere aldetik, tokiko mailan ahalduntzearen alde egiten du, lurraldearen, lurraren, larreen, uraren, hazien, abereen eta arrai herrien kontrola elikagaien tokiko hornitzaileei ematen die, beraien eskubideen aldeko errespetutik eta baliabide hauek bioaniztasunaren garapenerako erabil eta partekatu daitezkeela planteatzen du. Eta Bidezko Merkataritza, bere aldetik, ekoizle txikien kultura identitatea eta tradiziozko trebeziak onartzeaz, sustatzeaz eta babesteaz hitz egiten du, bere artisau diseinuetan, elikadura produktuetan eta erlazionatutako beste zerbitzuetan islatzen diren bezala. Hiru oinarri teoriko hauetan jasotako printzipio hauek, giza gaitasun zentralaren sorrerari ekarpenak egiten dizkio, gure ingurunearekiko kontrola izatea, guri eragiten diguten erabakietan parte hartzeko gai izatea eta jabetzak edukitzea.

Garrantzitsua da kontutan hartzea ere, hiru korronteek **genero dimentsioa** aipatzen dutela, modu arin edo zehatz batean, gizartearen eraldaketa prozesuetan eragin behar duen zeharkako aldagai bat dela kontutan izanik. Ekonomia Sozial eta Solidarioak pertsonen zaintzak kontutan izatearen garrantzia aipatzen du, kontutan hartu behar den balioa bezala, zaintzen ekonomiara eta bizitzaren jasangarritasunaren bidera eramanez. Elikadura Burujabetzak, bere aldetik, gizonen eta emakumeen eskubideak kontutan hartzen ditu, baita beraien ezaugarriak elikagai osasuntsu, tokiko eta jasangarrien ekoizpenaren esparruan. Azkenik, Bidezko Merkataritzak kontutan hartzen duen, diskriminazio eza, genero berdintasuna eta asoziatzeko askatasuna printzipioak ondorengoa jasotzen du "…erakundeak politika argi eta plan bat du genero berdintasuna



16 (Ikusi erantsitako taula: Principio de compromiso con la No Discriminación, la Igualdad de Género y el Empoderamiento Económico de la mujer y la Libertad de Asociación)



sustatzeko, bai emakumeek bai gizonek baliabideak eskuratzeko gaitasuna izatea bermatzen duena…". Elementu hauek kontutan hartzea, giza gaitasun zentralekin argi lerrokatzen dira, Gorputz Integritatea eta Afiliazioa, besteak beste.

Aipatzekoa da azkenik, REASen eskutitzaren kasuan, lanaren bere printzipioan hitzez hitz aipatzen du, **giza gaitasunen sorrerako** ildoan lan egiteko beharra "Pertsonen gaitasunen beharra posible egiten duen lanaren giza, gizarte, politika, ekonomia eta kultura dimentsioa berreskuratu, biztanleriaren behar errealak asetzeko ondasun eta zerbitzuak ekoiztuz (gureak, gure gertuko ingurunearen eta komunitate orokorraren beharrak, pertsonei bideratutako zaintzaren eremua barneratuz)". Gauza berdina esan dezakegu Bidezko Merkataritzaren Gaitasunen Garapen printzipioaren inguruan -"… Erakundeak bere langileen edo kideen trebeziak eta gaitasunak garatzea bilatzen du. Erakundeek ekoizle txikiekin zuzenean egiten dute lan jarduera espezifikoen garapenean, ekoizle hauen kudeaketa trebeziak, ekoizpen gaitasunak eta Merkatuko azoketara sartzea hobetzera laguntzeko…"-. Elikadura Burujabetzatik, aldiz, espreski aipatzen ez duen arren, gaitasunen garapenari egindako erreferentziak aurki ditzakegu, kasu honetan ezagutzen, abilezien eta jakintzen garapena bezala, modu parte-hartzailean eta ikerketara lotua eta gaitasun hauek datozen belaunaldietara pasatzera lotua.

Hortaz, hiru korronteek defendatzen dituzten baloreen eta printzipioen eta Giza Gaitasun Zentralen artean lerrokatze argiak existitzen direla ikus dezakegu.

### Proposatutako printzipioen koherentzia ereduaren egituratzaile bezala:

Proposatutako zazpi printzipioetako bakoitzak merkatu eta kontsumo eredu justuen eta eraldatzaileen izaera eraldatzailea sustatzen dutela uste dugu, tokiko eta global mailan. Lehenenago justifikatu dugun bezala, hiru oinarri teorikoak, giza gaitasun zentraleko sorreran oinarritutako tokiko giza garapeneko paradigma batean modu erosoan finkatzen eta lerrokatzen dira. Zazpi printzipioek ereduari ematen dioten balio erantsiak, tokiko giza garapeneko prozesuetan modu zehatzean beti kontutan hartzen ez diren eta garrantzia handitzen duten alderdietan eragiten du nolabait.

## EREDUAREN MARKOAN EKARPENA EGIN DEZAKETEN ERAGILE ETA EKIMEN MOTAK:

Hurrengo atalean, merkatu eta kontsumo justu eta eraldatzaile, tokiko eta global mailan, eredu bati ekarpena egin dezaketen bezala identifikatu diren eragile horiek modu zehatzagoan ikusteko aukera izango dugu. Hautatzeko irizpideak askotarikoak eta izaera irekikoak izan dira, egungo errealitatearen argazkitik haratago begiratu behar dela ulertzen delako, baita eragile bakoitzak duen "gaitasun ezkutua" ere. Horrela, eskalatutako eragile sintesi bat planteatzen da, merkatu eta kontsumo justu eta eraldatzaile, tokiko eta global mailan, eredu batean bere eragin mailaren arabera.

# 3. Eredua artikulatzen duten printzipioak

Egungo garapen eredua, eta bere ondorioak gizartean eta pertsonetan, globalizazio prozesu neoliberal eta heteropatriarkal batean kokatuta dago, herritarren kopuru zabalen gizarte bazterketa prozesuetara banatu ezin daitekeen moduan lotuta. Eredu ekonomiko honen helburua, transnazional handien onura ekonomikoaren bilaketan oinarritzen da, lehiakortasun askearen hedapenaren bitartez, nagusiki.

Entitate pribatu handien onura kontutan hartze esklusibo honek, bidegabekeriak, desberdinkeriak, eskubideen galera eta pobretzea sortzen duen egiturazko indarkeria batera bideratzen du, Ipar Hego geografikoko pertsonen, kolektiboen eta herrien artean paralelismo argiekin. Modu honetan, bazterketa eta indarkeriako errealitate hau intentsitate handiagoarekin agertzen den, Hego global handi bat sortzen da, bereziki emakumeetan, landa eta indigena komunitateetan.

Hego global handi hau, interes ekonomikoak kulturalen, ingurumenen eta giza interesen aurrean lehentasunagatik ezaugarritzen da, ekoizpen eta merkaturatze bitarteko eta moduen inposizioagatik eta gizarte zibilaren burujabetza eta botere politikoaren galeratik ezaugarritzen da. Entitate supranazionalek, bai finantza bai gobernuko entitateek, adostasun handiak lortzen dituzte, tokiko eta globaleko kontzentrazioa eta menpekotasuna sortzen duten politika ekonomiko eta merkatu politikak mantentzeko. Modu honetan, korporazio handiek pertsonen eskubideak babesten dituzte eta globalizazioaren eragin sozialen, kulturalen, lan eta ingurune eraginen defentsa eta kontrol mekanismoak eskuratzeko gizarte zibilaren aukera murrizten dute.

Hala ere, globalizazio liberal prozesu honen paralelo eta gizarte zibilaren eragile desberdinen batasunarekin eta partaidetzarekin ezaugarritua, geroz eta indar eta pisu gehiago hartzen dute, dimentsio desberdinetatik aldeko diskurtso bat eta Tokiko eta Jasangarria den Giza Garapenaren inguruan mobilizazio bat eta alternatiben bilaketa proposatzen eta lan egiten duten mugimenduek eta ekimenek.

Horrela, testuinguru hau kontutan hartuta, atal honetan Merkatu eta Kontsumo Justu eta eraldatzailea, tokiko eta global mailan, garatzeko oinarri hartzen diren printzipioak aurkezten dira.

Zalantzarik gabe printzipio hauek eta ez beste batzuk aukeratu diren galdetu beharko litzateke, beste ikuspegi batetik balore bat bezala ikusi

ahalko liratekeen kontzeptuak edo elementuak printzipio bezala kategorizatzen direlako. Era berean, horietako bat edo batzuk printzipio bezala hartuak izateko indarrik.

Ikerketa honek ez du filosofoen harria izan nahi ezta horrela ikustea ere, umiltasunetik kontzeptuzko eta praktikoa den analisiko elementuak eskaini nahi ditu, ondoren sistema bat egituratzeko. Printzipio hauek, alternatiba bakar bat bezala sortu nahi izatetik urrun, modu irekian eta anitzean sortuak dira. Hain zuzen ere, horiek guztiak artikulatu eta elkar gurutzatzen dira batzuetan, beraz, gainjarri egiten dira, beste batzuk bata bestearen gainean akoplatzen dira, beste batzuk modu paraleloan laguntzen dira. Modu horretan, dinamika mugikorrak sortzen dira denboran zehar, eredua konplexuago eta aberatsagoa egiten dutelarik.

Printzipioak hauek dira, aurkezten diren hurrenkeran: **Artikulazioa Tokikoa-Globala,** errealitatearen eraldaketa tokiko eremutik ikusteko beharra bezala ulertua baina prozesu Global konplexu eta polifazetiko batean kokatuz; **Genero Ekitatea**, eraldatzailea izan nahi duen edozein prozesutan generoa dimentsioaren garrantzia eta jarduera ekonomikoaren zentzuaren ber-kontzeptualizazioa handitzen duena. Hurrengo printzipioa **ingurumenarekiko eta lurrarekiko errespetua da**, ingurumena eta lurra errespetatzea balioan jartzea beharrezkoa da, eredu eraldatzaile bat planteatzeko garaian kontutan hartu behar den elementu bezala, hau da, bere kontzeptualizazioa gainditzea ekoizpeneko baliabide huts-hutsa bezala. **Gizarteratzea** oinarrizko elementu bezala, izaera eraldatzaileko edozein ekimen garatzeko orduan. Inklusioa dimentsio anitzeko kontzeptu bat eta konplexua bezala ulertua, inklusioko tresna bat bezala erabiltzeko bezala oinarritua, komunitatetik eta giza gaitasunen sortzaile diren elkarren arteko erlazioetatik bideratua. Intersekzional ikuspegia, pertsonen errealitateak ulertzea posible egiten duen tresna bezala hartzen da, ardatz desberdinak (opresiokoak eta pribilegiokoak) elkarren artean nola gurutzatzen diren modua eta inklusio/bazterketa prozesuekin duen erlazioa oinarri hartuta.

**Tokiko garapen sozioekonomikoa, eragile desberdinen partaidetza eta hauek lurraldean duten lotura**, lurraldeko kohesio elementu bezala, lurraldearen eta bertan bizi diren pertsonen arteko loturaren garrantzia nabarmentzen delarik ekimen sozio-ekonomikoak garatzeko orduan, baita honetara modu emozionalean lotzearen eta garapenean parte hartzearen garrantzia ere. Horrek guztiak jasangarria izateko eta erresilientziarako joera handiagoa ematen dio ESS, EBj eta BM-ko ekimenen aurkako diren egoeren aurrean. Ikuspegi eraldatzaile bat eskaintzen digun **Kontsumo Kontziente eta Arduratsu** bat. Pertsona kontsumitzaile eta pertsona ekoizle ikuspegi dikotomikoa gainditzea errazten du, modu komunitarioan eta kolektiboan beraien beharrak erabakitzen eta hausnartzen duten pertsona konprometituen bidean, ekoizpen-kontsumo eta merkaturatze ereduaren eraldaketan eragiten dutelarik. Azkenik, **Belaunaldi arteko Elkartasuna** printzipioa aipatu behar da, egunerokotasunean ematen diren erlazioetan eta pultsioetan nolabaiteko adultozentrismoa existitzen da, ondorioz, pertsona gazteak barneratzea, beraien sendotasunak esplotatzea eta positibatzea erronka bat da. Era berean, pertsona adinduen papera funtsezkoa da prozesu eraldatzaileak sortzeko garaian, balio handiko eta gizarte eta kultura aberastasuneko beraien ezagutzak, jakinduriak eta praktikak belaunaldiz belaunaldi pasatzean.

## ARTIKULAZIOA TOKIKOA-GLOBALA

*"Tokiko mailan ekin, elementuak maila globalean aldatzeko eta eraldatzeko" (E1.T1. 2016)*

*"Tokian ekin, globalean pentsatu" esaera, eredu hauen esparruan ekiten duten eragileen praxiari lagundu behar dioten hausnarketa baten adibide bat bezala da." (E1.T1. 2016)*

*"Leku bakoitza, bere baitan, arrazoi global baten eta tokiko arrazoi baten helburua da, elkarrizketaren bitartez elkar bizitzen dutelarik." (Santos, 2000:290)*

*Tokiko garapen prozesu bat ezin daiteke aztertu, bera inskribatua dagoen gizarte globalaren inguruan kokatzen ez bada. Globala den hori garapen prozesu bakoitzean dago. Baina globala, zehaztasun sistemiko eta egiturazko handien azterketak ez du errealitatearen ezagutza agortzen. Beraz, tokiko mailan bereak espezifikoak diren alderdiak daude, zehaztasun globalen erreprodukzioaren eragin sinple hori izan gabe. (Gallicchio E., 2002)*

*Tokikoa dena nozio erlatibo bat bezala definitzea, lokalismoaren tranpa ekiditea posible egiten du. Baina haratago joan beharra dago. Espazio nazionalaren azpi-banaketa guztia ez da tokiko gizarte bat. Tokiko gizarte bat egoteko bi mailako baldintzak eman behar dira: sozio-ekonomikoa eta kulturala. Gizarte bat tokikoa deitzeko, baldintza sozio-ekonomiko bat -aktoreek gizartean bertan sortutako soberakin ekonomikoaren sorrera eta erabilera izatea eta horren inguruan eztabaidatzeko aukera izatea- eta baldintza kultural bat -lurraldekoak direla sentitzea, identitatea- eskatzen diogu. (Gallicchio E., 2002)*

*Merkaturatzeko eta tokiko kontsumoko ekoizpen sistemak kontutan hartzen badira, globalizazio neoliberalaren egungo testuinguruan, merkaturatzeko eta kontsumo globaleko ekoizpen kateek, lurraldearekin eta espazio konkretu batean lokalizatutako enpresa eta gizarte erakundeekin ematen diren erlazio ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ezartzen diren moduan eragin dezaketen talka bat sortzen dute. Zentzu honetan, tokikoa-global erlazioa errealitate bat bihurtzen da eta ez kontzeptu abstraktu bat. (Lozano K.M., 2006)*

*Tokiko eskala "geometria aldakor" bati itsatsita dago, landa herrixka edo eskualde txiki batetik, historia mailan definitutako herri, udalerri edo eskualde batera, gizarte aktoreak eta sozio-lurralde arazoak guztiz identifikatuak izan daitezkeen maila bat inplikatzen duelarik. (Lozano K.M., 2006)*

Ikuspegi honetatik, beharrezkoa da ikustera ematea hartzen dugun garapen mota ez dela Hego geografikoko herrialdeen gai bat soilik, ezta ipar geografikoko gaia ere, nazioarteko erlazioetan botereko eta bidegabekeriako desoreken emaitza baizik. Hori horrela izanik, herrialde batzuek duten pobrezia egoera hori, neurri handi batean, besteek esportatu duten eta planetan osoan zehar oraindik ezartzen jarraitzen duten garapen ereduaren emaitza da.

Elkarren artean konektatua dagoen eta interdependientea den errealitate bat da, eta dimentsio anitzeko eta integrala den ikuspegi batetik landu behar da. Baina orain, galdetu behar da: Nondik landu behar dira arazo globalak? Erantzuna, egile askoren arabera, tokiko errealitateetatik landu behar dira, arazotik gertu dauden errealitateetatik, bere testuinguru geografikoan, ekonomikoan, kulturalean, politikoan, baita emozionalean ere. Tokiko eremutik ekiteak globalegiak diren gertutasunak gainditzen laguntzen du, baita berezitasun bakoitzetik abiatuz eraikitzen saiatzea ere. (Arocena, 1995: 36). Egia da ere, gaur egun globalizazioak "espazio egituraren berrantolamendu bat sortzen du, gizarte prozesuak berriz konfiguratzen eta eskala geografiko desberdinengan modu desberdinean hedatzen direlarik" (Zurbano M., Gainza X. eta Bidaurratzaga E., 2011 11 or.). Baina gizarte prozesuak berriz konfiguratzen honek erantzunen prozesu gainerakorrak sortzen ditu ere, Globalizazioaren aurkako eraginei kontrajarriz, sektore ekonomiko desberdinetako eta sareetan dauden gizarte zibileko eragileen arteko artikulazio formula berritzaileen bitartez zehazten direnak, zabalagoak diren sareen esparruan eta eremu desberdinetako eragileekin harremanetan lan egiten duten ekimen ekonomiko eraldatzaileak sortzea, etab. Hau gertatzen da, jarduerako tokiko esparruak aukerak eskaintzen dituelako jabetze, konzentrazio eta garapenerako lankidetza terminoetan, jarduera globaleko esparruan eskuragarri direlarik. Gizarte eta ekonomia inter-erlazioak egoteko baldintza egokienak tokiko jarduera esparru honetan ematen dira. Erlazio hauek, nagusi diren korronte sozio-ekonomikoek defendatzen dituzten erlazioetatik urrun dauden balore eta printzipioetan oinarrituta daude. Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Bidezko Merkataritza eta Elikadura Burujabetzaren printzipio eta baloreak horren adibide dira.



## GENERO EKITATEA

*"Generoen arteko berdintasuna ez da oinarrizko giza eskubide bat soilik, mundu baketsu, oparo eta jasangarri bat lortzeko beharrezkoa den oinarria baizik."(Milurtekoaren Garapenaren Helburua -MGH- zkia.5, 2016)*

*"Pobreziaren, gatazken, baliabide naturalean gehiegizko esplotazioaren eta azken urteetako marjinazio ekonomikoaren aurkako etengabeko borrokan lortutako emaitzetatik haratago, pobreen eta aberatsen arteko desberdintasun eta desberdinkeria handia murriztea ez da lortu. Lan egiteko eremuan berdinak izanik, gizonek eta emakumeek ezin izan dituzte beraien desberdintasunak murriztu eta denboran zehar handituz doaz; genero diskriminazioa bazterketa modurik ohikoena da munduan.*

*"Ekonomia feministak haustura bat egin du ekonomian ohikoan diren ikuspegiekin, zirkuitu ekonomikoetan etxeetatik burututako lan guztia barneratuz, hauek gabe ezin baita merkatuaren ekoizpenaren funtzionamendua ulertu." (Carrasco C., 2012)*

*"Modu horretan, bizitzaren jasangarritasunak gizarte erreprodukzioko prozesu historiko bat adierazten du. Identitate indibidualen eta gizarte erlazioen egokitzapen etengabean dauden beharren asetasuneko prozesu hau konplexua, dinamikoa da eta dimentsio anitz ditu. Era berean, etengabe berreraikia izan behar den prozesu bat da, baliabide materialak eskatzen dituena baina baita, zaintza eta afektuzko testuinguruak eta erlazioak ere, hauek neurri handi batean etxeetan burututako lan ez ordainduak eskaintzen ditu." (Carrasco 2001, Addabbo eta Picchio* 2009, Picchio 2005)

Esaldi hauek genero ekitateak kontsumo eta merkatu justu eta eraldatzaile eredu bate planteatzeko garaian duen garrantzia adierazten dute, modu zehatz eta argian. Ezin da eraldaketarik eman, dimentsio hau modu desberdin eta zeharkako moduan landu gabe. Merkatu eta kontsumo justu eta eraldatzaileko marko batean lan egiten duten ekimenek, genero ikuspegia landuko dute bai beraien prozesuetan bai moldatzeko, artikulatzeko, sarean lan egiteko, etab. moduan.

Horrela, ereduak ikuspegi feminista batetik eta genero erlazioko analisi batetik landu daitezen proposatzen da, eremu guztietan. Ereduen proposamen honetan genero eta feminista ikuspegitik, merkatu eta kontsumo modu alternatiboen zalantzan jartze espezifiko eta zeharkako ikuspegi eta metodologia bat egituratuko da, baita EAE eta hegoalde globalean existitzen diren, eta emakumeen alde desberdinkeriak, ikustera ez ematea eta onarpen gabezia sortzen duten, partaidetza eta artikulazio moduena ere.

Azkenik, ereduen eredu ekonomiko produktiboa lantzea proposatzen da, bizitzaren jasangarritasuneko ikuspegi zabalago batetik. Amaia Pérez de Orozco-k (2012, 1or.) planteatzen duen bezala "adostasun handiko elementu bat, bizitzaren jasangarritasuna analisiaren erdian kokatzearen aldeko apustua da, modu honetan merkatuak alde batera mugituz". Are gehiago, egile honek berak dion bezala "ekonomia feministatik, pentsamendu egitura dikotomikoa eta sexuatua duen zientzia ekonomiko bat nola inposatu den erakutsi da, kapital balorizazioko alderdietan

zentratua (ekonomiaren monetizatuak eta maskulinizatuak diren alderdiak). Hau, ortodoxiaren zein estrabismo produktibistaren diskurtsoaren egitura da. Biek joera androzentriko sakonak dituzte, emakumeen edo/eta feminizatua den horren gabeziaren inguruan eraikitzen direlako". Hain zuzen ere, oinarrizko beharren asetasun zuzen bat bermatzeko, baita merkatuko eta kontsumoko prozesuen eta erlazioen markoan ere, etxeek eta etxeetan burutzen den lan ez ordainduak izan dezakeen garrantzia nuklearra kontutan hartu behar dugu. Era berean, termino ekonomikoetan garatzeko modua kontutan hartu behar da, baita, prozesuei aurre egitearen aldeko apustua egiten da ere ekonomizismo klasikotik urrun dagoen logika batetik, logika zabal, konplexu eta dimentsio anitzeko batetik. Ezin daiteke pentsatu, merkatuko eta kontsumoko ekimenek gertaera honen garrantziarekin zerikusirik ez dutela eta kontutan hartu behar izango da, barne eta kanpo kudeaketako, erabaki hartze bere prozesuetan partaidetza eta horizontaltasuna sustatzeko, etab. prozesu ekonomikoak lantzeko garaian. Beste alde batetik, eredu eraldatzaile hauen markoan, ekimen hauek aldika babestuko edo lagunduko dituzten ekintza edo politika publikoek printzipio bezala izango dute ere, bizitzaren jasangarritasunerako prozesuak laguntzea, ondorioz, aldi bateko laguntza neurrien kontzeptualizazio zabal eta multisektorial bat inplikatzen du.

## INGURUMENAREKIKO ETA LURRAREKIKO ERRESPETUA

*"Garapen Jasangarria, orainaldiko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna konpromisoan jarri gabe beraien beharrak asetzeko." (CMMAD, 1988 (1987), 67 or.)*

*"Ekoizpen Industrialeko, aldi berean kontsumista eta indibidualista, Gizarte batetik, ekosistemak sakrifikatzen dituena eta pertsonak zigortzen dituena, sozio-bioaniztasuna suntsituz, Bizitza Osoko Euskarritze Gizarte batera pasatzea, bizitzeko, bizitza komunitatea zaintzeko eta bizitza prozesu guztiak euskarritzen dituzten oinarri fisiko-kimiko eta ekologikoan babesteko, sozial mailan justua den eta ekologia mailan jasangarria den bide baten norabidea hartzen duena." (Latino amerikar herrialdeetako presidenteak eta ordezkariak, 2006)*

Planetak mugatuak diren mugak ditu, baliabide naturalak mugatuak dira, ondorioz, mugarik gabeko garapen ekonomiko mota batean sinestea arrazoizkoa ez dela pentsa genezake.

Hala ere, egunetik egunera, muga natural hauek modu sistematikoan saihetsi egiten duen garapen markoan barneratuta gaudela ikusten dugu, horrela izanik, neurri leungarriak proposatzen ditu, ustezko balio erantsi altuko teknologia eta I+G+b berrikuntza hobekuntza etengabean oinarritutako ingurumenaren narriaduraren aurrean.

Hain zuzen ere, ekoizpen-kontsumo-merkaturatze gure sistemaren zati handiena oso zehatza den garapen ekonomiko eredu batean oinarritzen da, mugarik gabeko hazkuntza ekonomikoko korronte ekonomiko neoliberaletan oinarrituta eta bere helburua, kapital errendimendu handienak lortzea da ahalik eta kostu txikienean. Kanpo-efektu ekonomiko desberdinak kontutan hartzen ez direla inplikatzen du ingurumen narriadura, osasun, gizarte desberdinkeria eta pobrezia, etab. terminoetan. Sistema ekonomiko horrek berak, aipatutako kanpo-efektu horiek ez barneratzeari esker bizirik irauten du. Horien kostuak monetizatuko balira eta enpresetan eta ekimenetan esplotazio gastu bezala barneratuko balira, ziurrenik, sistema beraren garapeneko koordenatuen bat-bateko aldaketa batean bilakatuko lirateke.

Horrela, ingurumena eta lurrarekiko errespetua balioztatu egin behar direla uste dugu, merkaturatze eta kontsumo eredu eraldatzaile bat planteatzeko garaian kontutan hartu beharreko elementu funtsezko bezala. Lurra eta ura eta airea, politikak eta ekintzailetzak lantzeko eta garatzeko garaian funtsezko elementu bezala nabarmentzea, horiek ekoizpen baliabide hutsa bezala ulertzea eta ondorioz, analisiko berezko elementuetara aldatzea, ekoizpeneko, kontsumoko edo merkaturatzeko edozein ekintza garatzeko garaian beharrezkoa dela dirudi.



Beraz, gure jarduerak garatzerako garaian bi ideia gako kontutan hartu behar direla funtsezkoa da. Ingurumenarekiko eta lurrarekiko eko-menpekoak eta ko-menpekoak gara. Ondorioz, funtzionamendu ekonomiko-produktiboa (kontsumoa[1] eta merkaturatzea barnean izanik), ahal den neurrian naturaren eraldaketa naturalera egokitzea arrazoizkoa da, ez ordea gure ekoizpen-kontsumo eta merkaturatze nahietara oinarrituz eraldatzen saiatzea. Hain zuzen ere, urtaroak, zikloak eta bizitzarekin armonikoa dena errespetatzea izango litzateke. Naturari lotuta gaude eta natura gabe bizitza ez litzateke posible izango. Izan ere, herrialde batzuk urrats bat haratago eman dute, baita natura eskubideak dituen subjektu bezalako izaerara igo eta arautu dutenak ere. (P.J: 2008ko Ekuadorreko Konstituzioa edo 2009an Boliviakoa[2]). Hain zuzen ere, Ekuadorreko konstituzioak bere hitzaurrean adierazten du "…hiritartasunaren elkarbizitza modu berri bat, aniztasunean eta Naturarekin armonian, Ongi Bizitzea lortzeko, el Sumak Kawsay". Boliviako Konstituzioak bere aldetik, Bosgarren Kapituluko, Lehenengo Sekzioan, "Ingurumenarekiko Eskubidearen" inguruko bi artikulu eskaintzen ditu, ondorengoa adieraziz; 33 Artikulua: pertsonek ingurumen osasungarri bat izateko eskubidea dute, babestua eta orekatua. Eskubide hau gauzatzeak, oraingo eta etorkizuneko belaunaldietako indibiduo eta kolektibitateei, baita beste izaki bizidunei ere, normal eta etengabe garatzen utzi behar du. 34 Artikulua:

"

**Edozein pertsona, norbanako bezala edo kolektibitate baten ordezkaritzan, legezko ekintzak gauzatzeko gaitua dago ingurumen eskubidearen babesean, instituzio publikoen betebeharraren kalterik gabe, ingurumenaren aurkako mehatxuen aurrean"** (2009: 11).

Aipatutako adibide hauek, lurraren paperaren inguruko kezka gorakorra irudiztatzen dute eskubideak dituen subjektu bezala. Horrez gain, aurreko bi kasuetan ikuspegi hau oso lotua dago kultura artekotasuneko eta kosmobisio indigena elementuekin, printzipio honen analisia eta inklusioa aberastuz ereduaren proposamen bezala.

## GIZARTERATZERA BIDERATUTAKO EREDUAK

*Gizarteratzeaz zergatik hitz egin? Gizarteratzea hautatze, pertsonen duintasunaren onarpenetik abiatzen da eta beraz, bere askatasunaren eta autodeterminazioaren errespetutik. Ondorioz, ikuspegi honen alderdi garrantzitsu bat pertsonaren eskubide osoen onarpena eta lehengoratzea da: bizitzara, lanera, hezkuntzara edo osasunera. (NBE & MPS, 2008)*

*"Gizarte inklusibo bat, pertsona guztiek balore berdinak dituztela onartzen duen hori da, pertsona izatearen baldintza horregatik soilik. Gizartearen eremu guztietan modu berdinean parte hartzeko eskubidea dute (hezkuntza, ekonomia, kultura, politika). Gizarte inklusibo batek Giza Eskubideen (zibilak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak) bermea ziurtatzeko mekanismoak izango eta antolatuko ditu, etnia, genero edo gizarte faktoreak edozein direla ere". (1948 urteko Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik abiatuta eraikitako laburpena)*

*"Gizarte talde desberdinetan, ezberdintasun bakoitzean dagoen balorea onartzea inplikatzen du, aniztasunarekiko errespetua eta ahula den hirugarren bat onartzea, asetuak izan behar diren behar espezifikoak dituztenak, berdintasun baldintzetan egon eta bere oinarrizko eskubideez gozatu ahal izateko." (Belgika, 2008)*

Eguneroko errealitatean ikusten den bezala, ekonomia kapitalistak geroz eta bazterketa, desberdinkeria eta bidegabekeria gehiago sortzen du, kontrol politiko eta hiritar nahikoa egon gabe. Gizarteratzeko gaitasunak «kale egiten duenean» eredu sozio-ekonomikoa bera da kale egiten duena. Kontsumo eta merkatu bidezko eta eraldatzaile eredu batek bere buruari galdera bat egin behar dio: Zertarako proposatzen dugu eredu bat elaboratzea? Erantzuna multidimentsionala da eta ezin daiteke erantzun bakar batera mugatu, baina bere helburuen artean, zalantzarik gabe, ahulenak diren pertsonen gizarteratze sozio-ekonomikorako lan egitea dagoela esan dezakegu, bai iparrean bai hego orokorrean.

Izan ere, Emaús Gizarte Fundaziotik gizarteratze aktiboaren paradigman oinarritzea proposatzen dugu, gizarteratzeko prozesuetan (baina ez horietan bakarrik) lan ordaindua barneratzea onartuz. Printzipio hau ereduaren diseinura barneratzerako garaian, beharrezkoa da, ordea, ikuspegi hau justifikatzen duten hainbat kritika esanguratsu jasotzea:

- Lan ordainduaren mitifikazioa gizarte integrazioko elementu bezala. Lan ordainduak paper esanguratsua du gizarteratzeko prozesuetan, baina beste ekarpen batzuetarako aukera ematen du, etxeko edo familiako zaintzak, partaidetza komunitarioa edo lan artistikoa bezala.

- Elkartasunetik kontraktualizaziora, eskubideen diskurtsotik betebeharren diskurtsora. Jardueraren edo gizarteratzearen konpromisoa, eskubide batean baino betebehar koaktibo batean bihurtzeko joera nabari da,

1 (2008,15)
2 (2009, 11)

langabeziaren arrazoiak langabetuak dauden pertsonen borondatean ez daudenean -eta kasu askotan, ezta beraien formazioan eta kualifikazioan ere-, nahikoa lanposturen gabezian edo hauen kalitatean baizik.

• Enplegagarritasuna, norberaren erantzukizuna eta despolitizazioa. Van Berkel eta Valkenburg (2007) bezalako egileek, indibidualizazioa ulertzeko hainbat moduk, Estatuaren eta norbanakoen arteko erantzukizunen banaketan aldaketa bat inplikatzen dutenaren ideiari eusten diote, erantzukizunaren kontzeptu moralista batetik abiatuz.

Hausnarketa hauen aurrean, ereduan kontutan hartu beharko liratekeen bi alderdietan jarri behar da garrantzia:

• Gizarte aniztasun funtzional eredu bat garatzea beharrezkoa da -bazterketa eta inklusio prozesuekin erlazionatutako norbanakoaren faktoreak alde batera utzi gabe- desberdinkeria sortzen duten gizarte egituren aldaketa sustatzen dutenak, hau da, bazterketaren egiturazko zergatiei aurre egin.

**Bazterketaren dimentsio anitzeko izaera onartzea funtsezkoa da, eta ondorioz, enplegagarritasunetik desberdinak diren beste elementu batzuk lantzeko beharra (osasuna, etxebizitza, harreman pertsonalak, etab.).** Horrela, lan ordaindua beti ezin daiteke hartu esku-hartze guztien oinarrizko helburu bezala -ezta ekimenen helburu bezala ere. Beste alde batetik, enplegagarritasunaren kontzepzio zabal baten aldeko apustu egin behar da, boluntariotzaren balio inklusiboa, familia unitatearen beste kideei zaintza, jarduera artistikoak, edo aisia onartzen duena. Zentzu honetan, inklusio aktiboa printzipioarekin koherentea den eredu batek bizitza kalitatearen eta gizarteratze mailen hobekuntza sustatu behar ditu, enplegagarritasuna helburu bat izan baino, gizarteratzeko bitarteko bat bezala izatea:

"Gizarte ezgaitasunaren eredua mikroa da: pertsona prozesuaren ardatz bezala kokatzen du eta pertsona bakoitzarekiko emandako egoera sailkatzen ditu. Era berean, ikuspegi makro bat ere badu: gizarte ezgaitasuna, neurri batean, gizarte testuinguruaren produktua. Ereduak ko-arduratu egiten du eta hortaz, ingurunea arazoaren eta irtenbidearen parte dela adierazten du. Lan, hezkuntza, gizarte eta etxebizitza inguruak, baita politika orokorrak eta hiritar guztien jarrerak ere, bazterketa prozesuen ko-erantzule dira, eta ondorioz, bere irtenbidearen parte aktiboa. Honek eremu publiko eta pribatu guztietan eragiten du, administrazio guztietan eta instantzia pribatu guztietan, patronala, sindikatuak,komunikabideak, etab. bezala." *(Pisonero, 2007)*

Horrela, inklusioaren ikuspegi honetatik, lanen eta enplegu sorreraren berrantolaketako edo/eta banaketako eta egun planteatzen ari diren gizarte eskubideak eskuratzeko, hainbat alternatiba ekonomiko kontutan hartzen dituzten kontsumo eta merkatu bidezko eta eraldatzaileko ereduak elaboratu nahi ditugu. Azken batean, ekonomia justuago, inklusiboago eta jasangarriago baten aldeko helburua eustea da, bai egitura mailan bai pertsonekin eta lurraldeetan, biztanleria gizarte eskubideen erabilera osoa bermatzen duena pertsona guztientzat.

Hori horrela izanik, gure proposamenak gizarte justiziaren ikuspegian enfasi berezia jartzen du.

Proposamenaren bitartez ondorengo ardatzak atzeraelikadura ematen da:

a) Gizarte partaidetza sustatu politika publikoetan eta bizi garen komunitateen bizitza ereduari eragin diezaioketen erabakietan, baita beste komunitateetan ere. Analisia, beharrak eta baztertutako kolektiboen proposamenak sendotuz.

b) Bazterketa errealitateak ikustera eman, hauen zergatiak, bere gertutasuna eta bere izara orokorra, baita justizia, ekitatea eta bizitza kalitatea sortzen duten eredu sozioekonomikoen eraikuntzan, baztertuta dauden kolektiboen bizipenek eta ekarpenek duten garrantzia ere.

Proposatzen ditugun ereduak gizartearentzat baliagarri izan behar dute erabat. Premisa honetatik ezinbestekoa da argitzea, kontzeptualizatzearen helburuetako bat, mota honetako ereduak abian jartzeak izango lukeen ahalmena balioan jartzea da, gizarteratzeko tresna bezala. Izan ere, gaitasunen ikuspegitik arazoari aurre egitea abiapuntu baliagarria izan daiteke, tokiko giza garapeneko, gizarteratzeko eta pobrezia eta bazterketaren aurkako borrokako prozesuak sortzeko.

Argumentu honen haria jarraituz, ESSak tokiko giza garapenaren dimentsio ekonomikoaren hobekuntzan ekarpenak egiteko dituen gaitasunak erakusteko saiakerak burutu dira berriki (Guridi L., P. de Mendiguren, 2013). Gaitasun zentralen (Nussbaum M.) eta kolektiboen (Basser eta Morgan) hobekuntza pertsonen ongizatea hobetzeko modua bezala kontutan hartuta, hauek ekonomia solidarioaren (REAS 2011) eta kooperatiboen (Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa -ACI- 1995) printzipioetara eta baloreetara lotzen dira. Analisi honen emaitza bezala, balore eta printzipioak betetzetik eratorritako, barne funtzionamenduko bere ezaugarrien ondorioz, Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateak, modu orekatu, solidario eta jasangarri batean, **komunitateak bere gaitasunak ingurunearekin** armonian garatu ditzakeen (Garapen Komunitarioa)[3] eragileak dira, garapen bat sustatuz modu komunitarioan eta gizarte justizian. Hain zuzen ere, pertsonen gizarteratzea bermatzeko garaian kolektibitatea elementu oso garrantzitsua da, beraz, dimentsio hau kontutan hartu behar da. Komunitatea funtsezkoa da gure identitatearentzat. Komunitateak indartsuagoak dira guztiak barne gaudenean eta modu aktibo eta ekitatibo batean parte hartzeko aukera dugunean, gure gaitasunak modu armonikoan eta osasuntsuan garatuz.

Gizartearen eredu inklusibo baten eraikuntzaren berezko elementu bat den, printzipio honetan multzokatua, kultura artekotasuna dago. Hain zuzen ere, kultura artekotasuna, identitate kultural espezifikoak dituzten pertsonen eta taldeen arteko komunikazio eta interakzio prozesu bat bezala ulertu daiteke. Bertan, pertsona edo talde kultural baten ideiak eta ekintzak bestearen gainetik egotea ez da onartzen, une oro elkarrizketaren eta kontzertazioaren alde eginez eta horrekin batera, kulturen artean aberastutako integrazioa eta elkar bizitza. Ondorioz, merkatu eta kontsumo bidezko eta eraldatzaileen ereduen definizioan berezko elementu bat da.

Azkenik, intersekzional ikuspegia, inklusioko eta bazterketako prozesuen zergatiaren analisirako tresna izango da, konplexutasunetik eta dimentsio anitzetik. Intersekzionalitatea gainjarriak edo elkar gurutzatuak dauden gizarte identitateen azterketa da, bakoitza dagokion opresio, menpekotasun edo diskriminazio sistemekin. Teoriak, generoa, etnia, arraza, klasea, ezgaitasuna, sexu orientazioa, erlijioa, kasta, adina, jatorria, baita identitateko beste ardatz batzuk bezalako, hainbat teoria biologiko, sozial eta kultural, maila anitzean eta askotan aldi berean ematen diren mailetan elkarri eragitea iradokitzen eta aztertzen du. Teoriak, pertsona baten elementu edo bereizgarri bakoitzean pentsatzea proposatzen du, gainerako elementu guztiekin modu korapilatsuan lotuta, identitate bera modu osoan ulertu ahal izateko. Marko hau erabil daiteke, injustizia sistematikoa eta gizarte desberdinkeria nola gertatzen den ulertzeko, dimentsio anitzeko oinarri batetik.

## TOKIKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA, ERAGILE DESBERDINEN PARTAIDETZA ETA HAUEK LURRALDEAN DUTEN LOTURA

*"Lurraldeen berariazkotasuna, gainerako pertsonetatik desberdintzen gaituen hori, komunak diren historia bat eta geografia bat gogoratzen ditu, modu partikular batean pertsona talde batek partekatzen duen jakintza, balore, arau eta sinbolo multzo bat. Lurraldearen berariazkotasunak eta produktuek, lurralde "horretan" bizi den eta "produktu horiek" elaboratzen dituen biztanleriaren identitate kulturala ekartzen du gogora." (Fonte M., Ranaboldo C., 2007)*

*"ESSko edo EBj-ko entitateek edo, adibidez, Bidezko Merkataritzako produktuak eta elikgaiak ekoizten hegoalde geografikoan lan egiten duten ekoizle kooperatibek, ohiko moduan lurraldearekin lotura sendoa dute. Ziurrenik, askotan, partaidetza izaerako irudi juridikoan dituzten entitateak izango dira, edo entitate barrura begira ekoizpen, kontsumo eta merkaturatze prozesuetan partaidetza dinamikak hartzen dituzte ondoren entitatetik kanpora islatuz eta atzeraelikadura emanez". (E1. T2., 2016)*

*"Beharrezkoa da, identitate mota bakar batekin eta aldika aktore mota bakar batekin, identitate horren "garraiatzailea", lurraldearen identifikaziora eramaten duten mekanizismoak ekiditea beharrezkoa da. Lurralde berean hainbat identitate eman daitezke, gutxi gora-beherako modu gatazkatsuago batean batera existitu". (Fonte M., Ranaboldo C., 2007)*

Printzipio honen justifikazioan sakonduz, ESSko entitateek beraien lurraldeen garapenari modu esanguratsuan laguntzen dietela defendatzen duten egileak daudela ikusten dugu, "ESSak bere onurak sortzen diren lurraldean bertan berriz inbertitzeko joera handiagoa du, akumulazio prozesuak sustatuz tokiko mailan" (Garcia Serrano eta López Serrano, 2011:30-32). Era berean, tokiko mailan dauden baliabideak mobilizatzeko gaitasun handiagoa du -tokiko ezagutzak, sareak, gizarte kapitala, konfiantza, ospea, etab.- eta ekintzailetza kultura eta enpresa-ehuna sortzeko eta hedatzeko gaitasun sendoa du, bai eremu ekonomikoan bai gizarte eremuan (Guridi L., Pérez de Mendiguren, 2013). Horrez gain, ESSaren bere osotasunetik haratago, batzuetan paraleloak eta partzialki konbergenteak diren errealitateetan nahasten diren eragile desberdinak existitzen direla uste dugu, EBj edo BMn lan egiten dutenen antzera edo tokiko mailan ikastetxeak, entitate publikoak bezalako ohikoak ez diren eragileak ere, funtsezko lan bat egiten dutelarik. Beste alde batetik, tokiko markoa ez da ahaztu behar, ekosistema osatzen duten eragile sozio-ekonomikoak komunitatearen beharrei erantzuna emango diotenak izango dira ziurrenik, modu zuzen eta gertukoan. Arrazoia hainbat faktore dira, horien artean, tokiko marko horretatik bertatik sortzen diren eragileak izatea, lurraldearekiko lotura estua eta testuinguruaren berezitasunak ongi ezagutzen dutenak.

3 Garapen komunitarioa (def): komunitatea osatzen duten eragile guztiak barneratzen dituen esku-hartze metodoa, partaidetza eta artikulazio prozesuak ezarriz hiritarren eta instituzioen artean. Horrela, prozesu pedagogiko bat eta aktore eta egitura bitartekarien partaidetza gaitasunak sustatuz helburu komun eta aurretik zehaztutako helburuak lortzea posible egiten duena, komunitateen baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko eta emaitzak modu etengabean ebaluatuak izan daitezen.

Are gehiago, lurraldea, gizarte zehatz bat ekiten duen espazioaren inguruan intzidentzia duten prozesu horien guztien egiturazko elementua da. Hortaz, tokiko garapena onartzearen aldeko argumentu nabarmenak daudela esan genezake, eragileen partaidetza zabal batekin, lurraldeari lotuta eta printzipioaren erantzuna bezala tokiko-globala ikuspegia ahaztu gabe, beraien jarduera izaera solidarioko baloreetan eta printzipioetan oinarritzen dituzten ekimenek eta ekintzailetzek gertuko ingurunean eragin positiboak dituztelako eta gainera, pertsonen gaitasun kolektiboen hobekuntzari laguntzen diotelako. ESS, EBj edo BMren markoan lan egiten duten korronteek eta eragileek, gizarte  eta partaidetza izaerako sareetan lan egitean, partaidetzaren sustapena bultzatzen dute tokiko garapen jasangarri eta komunitarioan, atzeraelikadura emanez eta egitura sozio-ekonomikoan sinergiak sortuz. Hori guztia, ingurunearekin eta gizartearekin konpromiso gaitasun handiagoa duten ekoizpeneko ekimen mota baten ahalmenean eta sorreran bilakatzen da, kanpoko aldaketetara moldagarriagoak diren ingurune sozial, ekonomiko, kultural eta fisikoarekin duten lotura dela eta, aurkako egoeren aurrean indartsuagoa eginez, gainera.

Azkenik, lurralde baten esparruan identitatearen inguruan ematen den kontzepzioari dagokionez, hitz-tarte bat barneratzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure ikuspegitik, lurraldeko identitatea aniztasuna eta ingurunea eraldatzeko balorea onartzen duena da, gizarte, ekonomia, kultura, etab. garapenaren alde egiten duten kultura desberdinen artean kontzertazio eta komunikazio prozesuak sortu. Hori guztia, tokiko mailan mugatutako marko geografiko batean.

## KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA

*“Literatura soziologikoan kontsumo arduratsuaz hitz egitean, bere kontsumo ekintzen inguruan sentsibilitate gorakor bat adierazten duten kontsumitzaile haiek ordezkatzen duten horri egiten zaio erreferentzia. Prezioa, kalitatea, produktua erraz eskuratzeaz gain beste hainbat alderdi ere kontutan hartzen dira, non eta nola izan diren ekoiztuak, baita erosketa horretaz onura lortzen duena nor den ere.” (BURNS, 1995)*

*“Pobrezia sustraitik errotzea, ekoizpeneko eta kontsumoko jarraibide jasanezinak aldatzea eta garapen sozial eta ekonomikorako baliabide naturalen oinarriaren antolamendua, garapen jasangarri baten lehentasunezko helburuak eta funtsezko baldintzak direla onartzen dugu.” (Garapen Jasangarriaren inguruko Munduko Goi-bilerako Adierazpena, 2002)*

*Kontsumo etikoa existitzen da, zeina, kontsumitze ekintza gauzatzean baloreak barneratzeagatik ezaugarritzen dena. Kontsumitzaile etiko bat, kontsumitzera doan produktu edo zerbitzu hori ekoitzi zen moduari balore bat ematen dion pertsona da. Kontsumo ekologikoa ere existitzen da, kontzeptu hau mugimendu ekologistaren urrezko hiru arauez ezaugarritzen da, murriztu, berrerabili eta birziklatu; kontsumitzaile ekologikoa ingurumenaren eta gizarte arazoez arduratzen da. Kontsumo Sozial edo Solidario bat, hau da, produktua elaboratu edo zerbitzua ekoitzi den gizarte erlazioei eta lan baldintzei dagokion kontsumo bat. Gauzatutako lanagatik bidezkoa dena ordaintzea da, bai beste herrialdeetako langileei bai bertakoei ere. (Avaria M. et al. 2013)*

*Kontsumitzea ez da soilik norbanakoaren behar edo desio bat asetzea, horretaz dugun hautematea hau izan arren. Kontsumitzen dugunean, kontsumitutako hori posible egiten duten prozesu guztietan lankidetza egiten ari gara, kontziente izan ala ez. Prozesu hauek ekonomia, gizarte eta ingurumen izaerako inplikazioak dituzte. Kontsumo arduratsua, merkatuak eskaintzen dituen aukera desberdinen artean aukeratzeko unean ondorioak kontutan hartzea da. (Peñasco Gil C., Castañeda Elena S., Ecología y Desarrollo Morales Córdova M., Barrenechea Abecia P.)*

*Kontsumo moduen des-bitartekotzak eta birtualizazioak, azken kontsumoaren kostuen parte handi bat kontsumitzaileei kargatzen amaitu dute, orain bere kontsumo baldintza beraren auto-ekoizlean bihurtu den kontsumitzailea -edo prosumidorea-… (Dujarier 2008)*







Egungo gizartea agertzen den bezala, gure gizarteetan kontsumoa zentralizatua dagoen modua gertaera “natural” bat dirudi, gizakiaren existentzia berari mugakide.

Baina gauzatzen dugun kontsumo motak dimentsio anitzeko eragina du tokiko eta global mailan. Horrela, produktuak eta zerbitzuak ekoizten eta merkaturatzen eta kontsumitzen diren moduak erosteko modu bat sortzen du eta alderantziz: kontsumitzeko moduaren ondorioz ekoizteko moduan atzeraelikadura ematen da.

Hortaz, KKAk erosketa erabakien influentzia boterearen kontziente izatea eskatzen du; erabaki hauek gure tokiko ingurunea eta dinamika globalak marraztuko dituzte. Tokiko ingurunea modu zuzenean ezagutu ahal dezakegun hori da, gure ekintzekin esku-hartu dezakegun eta gure begiekin gure bizitza moduaren eraginak ikus dezakegun hori. Horrekiko ditugun lotura materialek eta emozionalek, eremu honen gizarte, ekonomia eta ingurumen jasangarritasuna jarraitzearen zergatia modu argian ikustea posible egiten digu.

Hala ere, gizarte desberdinkeriek, kontsumitzaileen ezaugarri psiko-soziologikoek, marko sozio-kultural hegemonikoak informazioa, etab. eskuratzeko aukeran zuzenean eragiten duela ez dugu ahaztu behar, eta ondorioz, erosketa aukera kontzienteak, ohitura aldaketak, etab. ematen ditu.

Kontutan hartzea, gainera, egungo krisi sistemiko eta dimentsio anitzeko honek, gizarte desberdinkerien larriagotze bat eragiteaz gain, ingurumen gaiak ikusezin bihurtzea probokatzen ari da esfera publikoan, baita agenda politikoaren lehentasunetan leku aldatzea ere.

KKAk defendatzen duen kontsumoa ez da soilik erosketa erreaktiboko kontsumoa, kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko erlazio bat. KKA, kontsumoaz ulertzen dugunaren marko eraldatzaile baterantz aurrera doa eta marko honetan ematen diren erlazioak, proaktiboagoa den ikuspegi baterantz eta prosumidoreena (guztiak gara ekoizleak eta kontsumitzaileak, ez bakarrik produktuena baita gure errealitatearena ere). Beraien beharren inguruan, eta hauei nola erantzun, sortu eta eraiki nahi duten hiri motaren inguruan eta prozesu hauetan funtzionatu nahi duten modu kolektiboan, komunitarioan… erabakitzen eta hausnartzen duten pertsona konprometituak.

KKAk kontsumoko, erosketako, denboraren erabilerako eta truke jasangarri, ekologiko, tokiko eta ekonomia sozial eta feministako, bigarren eskuko, konponketako, artisautzako alternatibak eskaini behar ditu. Horrez gain, gure gizartearen eraldaketa eta eraikuntza kolektiboko marko bat eta tresna bat izan daiteke eta izan behar du, pertsonen arteko erlazioen, ekoizpen eta sorrerako, merkaturatze eta salmentako prozesu horien tresna bat ere, kontsumoaren ohiko terminologiaren arabera. Beraz, KKAk kontsumoagatik ulertzen dugun horren markoaren eta marko honetan ematen diren erlazioen bokazio eraldatzailea duela uste dugu, proaktiboagoa den eta prosumidoreen ikuspegi baterantz. Zalantzarik gabe, KKAk pertsona kontsumitzaileak eta ekoizleak ikuspegi dikotomikoa gainditzea errazten duen ikuspegi eraldatzaile bat eskaintzen digu. Merkaturatze eta kontsumoko ereduen terminoetan, ikuspegi dual honek -prosumidorea- parte hartzen duten pertsonak eta ekimenak ezaugarrituko lituzke. Eta, izan ere, printzipio hau osatzeko helburua duten hainbat jarduera identifikatzea posible litzateke.

• Kolektibo desberdinen artean sinergiak sustatzea, KKAren kontzepzio eta praktika integral bat bultzatzeko (zaintzak, zerbitzuak, deshazkundea, hondakinak, ofizioak-artisautza, elikadura, teknologia, moda…).

• KKA teknikak, ezagutzak, estrategiak eta praktika egokiak ikustera eman.

• Biztanleria kritiko eta kontziente bat lortzea KKAren eta kontsumismoak maila guztietan dituen ondorioen inguruan (ekoizpen ereduak, gizarte rolak errepikatzea…).

## BELAUNALDI ARTEKO ELKARTASUN PRINTZIPIOA

*“Paradoxikoki, gure gurasoek herentzian zerbait uzteko ahaleginak, eta horregatik, aukera kontserbadoreak hartzea, batzuetan gure oraingo aukerei kalte egiten diete.” (E1.T1., 2016)*

*“Era berean, norbanakoaren zahartzeak oro har jendearen kezka sortzen du, bere inguruan zahartzeko modu oso desberdinak ikusten dituelako.” (R. Fernández-Ballesteros, M.G. Caprara, J. Iñiguez eta L.F. García, 57 or., 2005)*

*Jakintzen elkar trukaketako belaunaldi arteko espazioak sortzeak, sustatzeak eta laguntzeak dituen aukerak esploratzea oso interesgarria da, inklusio, partaidetza eta komunitate inklusiboen… sorrera terminoetan. (E1.T1.2016)*

Ipar geografikoko gizarteetan, geroz eta nabarmenagoa den biztanleriaren zahartzearen fenomenoa ematen ari da. Gaur egun biztanleria-piramideak kaliza itxura gehiago hartzen ari direla aurkitzen dugu, agian osasuntsuagoa den piramide itxura hartu ordez. EAEn 10 urtetan, 2026 urterako proiekzioaren arabera (Eustat 2014)[4] , 2.077.000 biztanle inguruko biztanleria izango du (51,7 emakume eta 48,3 gizon), horietatik %26,5 65 urte edo gehiago izango ditu, %55,7 20tik 64ra tartean egongo da eta %17,8 bakarrik egongo da 19 urte edo gutxiago tartean.

Datu hauek, aztertua izatea eskatzen duen etorkizun sozio-demografiko bat ikustea posible egiten dute, ondorioak ekartzen dituelako eta ekarriko dituelako, zerbitzu publiko eta pribatuen egokitzapeneko, errenta, pentsioen, etab. transferentziako terminoetan. Baina ondorioak ez dira ekonomian eta beharren erantzunen egokitzapenean soilik emango. Horrez gain, merkatua eta kontsumo bidezko eta eraldatzaile eredu batek kontutan hartu behar eta sustraitzen dituen aukeren egoera bat ikusteko aukera ematen du.

Adierazi dugun bezala, biztanleri zahartze eta pertsona gazteen murrizte testuinguru bat da (bereziki ipar geografikoan), hala ere, kontutan hartu behar ditugun erronkak eta aukerak planteatzen ditu. Ondorioz, belaunaldi arteko ikuspegia printzipio bezala hartzen dugu, egunero ematen diren erlazio eta pultsioetan nolabaiteko adultozentrismo bat existitzen denez, pertsona gazteak barner-

atzea, beraien sendotasunak esplotatzea eta positibo egitea erronka bat da. Era berean, pertsona adinduen balio eta gizarte eta kultura aberastasun handiko ezagutzak, jakintzak eta praktikak traspasatzean duten papera funtsezkoa da, prozesu eraldatzaileak sortzeko garaian. Benetan eraldatzailea den prozesu batek hiritar guztien partaidetza eskatzen du.

Hain zuzen ere, pertsona adinduak gizarte kapital garrantzitsua dira jakintzen traspaso terminoetan, sortu berri diren eta ez hain berriak diren ekimenen laguntza praktikoa, partaidetza eta elkartasun izaera duten prozesuei akonpainamendua, aholkularitza kontrastatutako ezagutzako arlo askotan, baita beraien esperientzia praktikoarekin ere, etab. Estatuan, pertsona adinduen asoziazionismo tasa %47,6 da (%56 gizonak eta %41 emakumeak)[5] . EAEn pertsona adinduen elkarte desberdinak daude, zahartze aktibotik lan egiten dutenak[6], egun kontzeptu bezala hartzen dena baino eraldatzaileagoan eta berritzaileagoan (Hartu Emanak[7] , adibide bat da). Beste alde batetik, landa mundua berreskuratzeari eta balioan jartzeari dagokionez, ez da ahaztu behar egun pertsona adindu kopuru handia bizi dela landa munduan. "Jende gutxi bizi den lekuetan bizi diren pertsona adinduak pobrezia arrisku handiagoa dute eta osasun eta gizarte zerbitzu gutxiago dituzte. Landa zaharkitzeak arrisku espezifikoak ditu. Jende gaztearen exodoak hiri gunera landa guneen isolamendua eta bertan bizi direnen pobrezia arriskua handitu du" (Zunzunegui eta Beland, 2010).Ondorioz, pertsona hauen merkatu eta kontsumo bidezko eredu baten markoan kontutan hartu behar diren eragileen parte izan daitezke eta izan behar dute.

Azkenik, txanponaren beste aldea ez dugu ahaztu behar, pertsona gazteak. Egun, pertsona gazte kopuru handi bat bazterketa prozesu (pertsona adinduen ezaugarria ere) egoeran daude edo erortzeko arriskuan daude, enplegu, hezkuntza, etab. aukera gabeziaren ondorioz. Inklusio holistiko, integral, enpleguan zentratuta ez dagoen inklusio baten ikuspegitik (ikus inklusioaren printzipioa), pertsona gazteak gonbidatzea, sendotzea eta partekatzea kontutan hartu behar da, bai asoziatibo mailan bai beste edozein mailan. Izan ere, bi pertsona talde hauen artean sinergiak sortzearen, sektore-arteko ekintzak hartzearen ideia oso erakargarria egiten da, eta proposatutako eredu markoak horretarako ekarpena egin dezake.



4 http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011600/ti_Eustatek_webean_jarri_berri_dituen_piramide_interaktiboen_bidez_euskal_biztanleria_1976tik_2026ra_bitartean_ikus_daiteke/not0011684_e.html#axzz4iAWgfYJT
5 SimpleLógica. Adinduen kolektiboaren asoziazionismoa eta boluntariotzarako disposizioa. Espainiako Pentsiodun eta Jubilatuen Batasun Demokratikoa. 2008 [2010/8/4 kontsultatua]. Eskuragarri: http://www.imsersomayores.csic.es/documentos/documentos/udp-voluntariado-02.pdf.
6 Osasun, partaidetza eta segurtasun aukeren optimizazio prozesua bezala definitzen da, bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin pertsonak zahartzen doazen heinean. World Health Organization. Active ageing: a policy framework. Geneve: WHO; 2002.
7 Printzipioen eta burututako jardueren inguruko informazioa ikusteko www.hartuemanak.org





# 4. Eredua osatzen duten eragileak

Proposatzen ditugun kontsumo eta merkatu eredu justu eta eraldatzaileak, tokikoan eta globalean, testuinguru zehatz batean ekintza armoniko bat posible egiten duten eragile horien partaidetza izan behar dute. Era berean, hainbat mailetan nahikoa eta beharrezko konfiantzako zirkuituak eta loturak sortzen diren erlazioen ekosistema bat eraiki behar dute.

Ondorengo koadroan eragile hauen identifikazio ariketa bat burutu nahi dugu, eraginezko 4 maila desberdindu kontutan hartzen ditugu:

1. Gizarte eta ekonomia paradigma aldaketagatik gizarte eragile aktiboak

2. Kontsumo eta ekoizpen alternatiboko ereduetan esperientzia duten gizarte erakunde eta entitateak

3. Eredu eraldatzaile baten finkapenerako eragile gakoak

4. Gizarte eraldaketagatik aktibo moduan ez mobilizatutako gizarteko eragileak

Eragile hauentzat identifikatutako rolek eta aukerek kasu guztietan eredu eraldatzaile bati erantzuten diote, ikerketa honetan kontutan hartzen diren printzipioak eta dimentsioak biltzen dituen eredu hori hartuz, hau da, inklusiboa den eredu bat, tokiko-global eta genero berdintasun ikuspegiari erantzuten diona; ingurumena errespetatzen duena eta sustatzen den garapen sozioekonomiko mota lurraldearekin lotua egotea eta kontsumo kontziente eta arduratsuaren printzipioak eta belaunaldi-arteko elkartasun printzipioak errespetatzea.

| IDENTIFIKATUTAKO ERAGILEA | ROLA |
|---|---|
| G I Z A R T E  E T A  E K O N O M I A  P A R A D I G M A  A L D A | |
| MUGIMENDU ETA KOLEKTIBO FEMINISTAK | Feminismoaren sustatzaileak eta bizitzaren jasangarritasunaren paradigma. |
| OINARRIZKO GIZARTE MUGIMENDUAK ETA ERAIKUNTZA KOMUNITARIOKO ETA PARTE-HARTZAILEKO KOLEKTIBOAK TOKIKO EREMUAN | Sentsibilitate biltzaileak tokiko mailan, eragile komunitario guztien partaidetzatik.<br>Gizarte solaskideak, giza garapen iraunkorraren alde egiten duten ekimen eraldatzaileen sustapenean. |
| DESHAZKUNDEKO SAREAK | Egungo garapen ereduaren alternatiben eragileak, pentsamendu korronte desberdinen inguruko sentsibilizazioa eginez. |
| HAZIAK ETA EZAGUTZAK PARTEKATZEKO ZENTROAK | Bioaniztasunaz eta eskala txikiko nekazaritzaren mantenuaz interesa duten pertsonen eta erakundeen topaketa gunea. |
| SINDIKATUAK | Langileen interesen defendatzaileak, baita gizartean kaltetuen dauden kolektiboena ere. |
| GARAPEN MAILA BAXUAGOA DUTEN ETA HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO ERAKUNDEAK | Intzidentzia politikoaren eta sozialaren sendotasunean aliatuak eta eragileak, gizarte eta ekonomia aldaketa eraldatzaile eta justuen inguruan, tokikoan eta globalean. |
| NEKAZARI MUGIMENDUAK | Berdintasuneko eta gizarte justiziako erlazioak, lurraren babesa, elikadura burujabetza, nekazal ekoizpen jasangarria eta eskala txiki eta ertaineko ekoizpenean oinarritutako berdintasuna sustatzen dituzten ekimenen ekintza eta artikulazio unitateko espazioak errazten dituztenak. |
| GGKE | Egiturazko gizarte aldaketaren eragileak, giza garapen integral, jasangarria, inklusiboa eta ekitatibo baten eskubidearen bultzadaren eta sustapenaren bitartez, bai gizonen eta emakumeen artean bai herrien artean ere. |

| AUKERAK EREDUAREN ESPARRUAN |
| --- |
| …AKETAGATIK GIZARTE ERAGILE AKTIBOAK |
| • Eraldatzailea izan daitekeen espazio / eztabaida / ekimen guztietan genero berdintasunaren zeharkakotasuna kontutan hartzea babestea / bermatzea eta defendatzea.<br>•Genero desberdinkeriaren inguruan eta bizitzaren jasangarritasunaren paradigmaren inguruan gizarte kontzientzia sustatzea, eta konpromiso politiko erreal bat egotearen beharra eredu alternatiboak sustatzen dituzten eragile guztien aldetik.<br>•Tokiko eta lurraldeko entitateetan intzidentzia, garapeneko tokiko ekimen eta politiken artikulazioan genero berdintasunaren ikuspegia barneratzeko / onartzeko.<br>•Eredu alternatiboak sustatzen dituzten erakundeen berdintasunaren aldeko prozesuak aholkatu eta akonpainamendua egin. |
| • Tokiko entitateetan intzidentzia egitea, hauek tokiko ekimenen kudeaketa parte-hartzaileago bat posible egiteko, baita identifikazio parte-hartzaileei erantzuten dieten politikak barneratzeko ere.<br>• Komunitatearen beharrak identifikatu.<br>• Espazio inklusiboen sorrera/ laguntza/ euskarritzea sustatu (jantokiak, jarduera ludikoak, etab.). |
| • Gizarte antolamenduko eredu berriak proposatu eta hedatu, hauek erdigunean pertsonak eta planetaren bizitzaren zaintza jarriko dituzte, besteak beste.<br>• Eztabaida eta interlokuzioko espazio parte-hartzaileak eta inklusiboak eskaini, aliatuak dauden eragile desberdinentzat. |
| • Belaunaldi arteko topaketa espazioak eskaini.<br>• Eskala txikiko nekazaritza hedatu eta balioztatu.<br>• Interes berdinngatik lan egiten duten Hegoaldeko errealitateekin lotunea izatea.<br>• Belaunaldi arteko eta landa ingurua balioztatzeko topaketa gune bat izatea. |
| • Kideen erabaki hartzean partaidetza posible egin.<br>• Oinarrien mobilizazioa norbanakoaren eta kolektiboen eskubideak haustearen salaketan, eta hauen defentsan.<br>• Beste sindikatuekin eta gizarte eragileekin eraldaketa egiteko espazioak partekatu.<br>• Akademia munduaren lankidetza egin ezagutza eta ikerketa gaitasuna sendotzeko, antolamendu garapeneko politiketan eta ekintzetan modu eraldatzailean intzidentzia egiteko bidean.<br>• Egungo garapen eta kontsumo ereduak pertsonen bizitzan sortzen duen intzidentziaren inguruan ikertu.<br>• Bere oinarriei informatu garapen eredu alternatiboen inguruan.<br>• Bizitzaren jasangarritasunaren eztabaida barnera begira eta agenda politikora barneratu, bereziki lanaren eta eredu ekonomikoaren kontzeptualizazioari dagokionez. |
| • Tokiko merkatuko eta kontsumoko eredu eraldatzaileen inguruan, politika publikoen ko-eraikuntza, proposizioa eta defentsa; eta hauen artikulazioa mailan globalean aliatuak diren eragileekin.<br>• Hegoaldeko beste eragileekin lankidetza egin ezagutzak eta esperientziak komunean jartzeko mesedean, intzidentzia politikoko gaitasun handiagoa lortzeko, bai tokikoa bai globala.<br>• Hegoaldeko beste herrialde batzuetan gauzatu diren garapen ekimenetan lankidetza burutu, maila desberdinetan (lankidetza Hego-Hego). |
| •Hegoaldeko eta Iparreko nekazarien erakundeen artikulazioa eta sendotzea.<br>•Elkar trukaketa aliatuak diren Hegoaldeko erakundeekin.<br>•Erakundeen erabaki hartzeko zentroetan eragitea, ekoizpen txikiari eta ertainari eragiten dioten politika ekonomiko eta nekazarien beste norabide bat emateko.<br>•Proposamenak formulatu gain garrantzitsu hauen inguruan: nekazal erreforma, elikadura burujabetza, ekoizpena, merkatua, ikerketa, baliabide genetikoak, bioaniztasuna, ingurumena eta generoa.<br>•Merkatuko eta kontsumoko eredu eraldatzaileen inguruan, politika publikoen ko-eraikuntza, proposizioa eta defentsa. |
| • Globalizazio eredu liberala eta heteropratriarkalak lan egiten duen mekanismoak salatu, baita bere ondorioak ere, eta honentzat alternatibak proposatu eta babestu.<br>• Gure ekintzen karga politikoaren eta potentzialki eraldatzailearen gaineko kontzientzia soziala hartzea sustatu.<br>• Mota desberdinetako erakunde zibilen arteko sare-lana posible egitea, gizarte aldaketak posible egiteko helburuarekin, edo/eta helburuarako proposamenak formulatzeko.<br>•Aliatuak diren Hegoaldeko erakundeekin lankidetza egin, bai bere tokiko testuinguruan garapenaren alde egindako lanean, bai hauen ahalduntzerako eremu globalean. |

| IDENTIFIKATUTAKO ERAGILEA | ROLA |
|---|---|
| KONTSUMO ETA EKOIZPEN ALTERNATIBOKO EREDUETAN ESP | |
| KONTSUMO TALDEAK | Pertsona eta erakundeak ekoizleekin artikulatzen dituztenak, ingurumenarekin eta tokiko egoera sozio ekonomikoarekin kontsumo justu baterako sareak eta espazioak sortzeko. |
| PERTSONA KONTSUMITZAILEEK ELKARTEAK, KONTSUMOKO KOOPERATIBAK | Informazio, prezio eta kalitateko baldintza hobeagoak bilatzen dituzten kontsumitzaileen eta erabiltzaileen beharrak asetzen dutenak, kudeaketaren informazio eta ekonomia gardentasuna bermatuz. |
| KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUKO SAREAK | Kontsumo kontziente eta arduratsu baten alde lan egiten duten eragileen artean komunikazio, trukaketa eta koordinazio eragileak. |
| BERAIEN JANGELETAN ELIKADURA BURUJABETZA BARNERATZEN DUTEN IRAKASKUNTZA ZENTROAK | Elikadura burujabetzaren sustapen artikulatzaileak/ esperientzia errealak |
| EMAKUME BASERRITARREN ETA HERRI KOOPERATIBETAKO TALDEAK | Genero berdintasunaren eragileak landa eremuan. |
| ELIKADURA BURUJABETZA TOKIKO EKONOMIAREKIN, JUSTUA, ETIKOA ETA SOLIDARIOAREKIN ELKARTZEN DITUZTEN EKIMENAK | Dimentsio horiek multzokatzen dituzten praktika eraldatzaileen eragileak. |
| ZENTROETAN JANTOKIAK DITUZTEN EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO ENPRESAK | Egungo garapen ereduaren berplanteamenduaren eragileak, tokiko-lurraldeko garapen eraldatzailearentzat ondorioak sortzen dituen alternatiba jasangarria eta inklusibo bat sustatuz. |
| BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEN SUSTAPENA ETA SALMENTAN LAN EGITEN DUTEN EAEKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK | Produktuen merkatari eragile desberdinei eta kontsumitzaileei informazioa eman eta sentsibilizazioa egiten dieten pertsonak. |

| AUKERAK EREDUAREN ESPARRUAN |
| --- |
| S P E R I E N T Z I A   D U T E N   G I Z A R T E   E R A K U N D E   E T A   E N T I T A T E A K |
| • Ekimenak artikulatu.<br>• Interesa duten beste kolektiboei edo eragileei akonpainamendua.<br>• Kontsumo modu alternatiboak ikustera ematea.<br>• Kontzientzia sortu eta kontzientzia hori gauzatzea posible egitea.<br>• Gizarte eta politika intzidentzia tokiko eta lurraldeko entitateetan. |
| • Kontsumitzaileen behar komunak asetzera bideratuta dauden ekimen kolektiboak garatu. |
| • Sare bakoitzaren eragile desberdinen baliabideen, trebezien eta erlazioen arteko sinergiak bilatu, hego-ipar ikuspegia barneratuz.<br>• Beste eragileekin batera intzidentzia burutu, kontsumo kontziente eta arduratsu baten sentsibilizazio eta sustapenerako.<br>• Pertsona bazkideei / parte-hartzaileei produktuen jatorriaren inguruan informatu, baita ekoizleen eta ekoizteko prozesuen inguruan ere.<br>• Lortzen diren produktuen atzean aurkitzen diren pertsonen ezagutza erreala eskaini. |
| • Guraso eta ikastetxeetako langileengan intzidentzia.<br>• Produktuen jatorriaren eta zikloen inguruko informazioa eskaini eta hornitzaileen eta hauen esperientziaren eta gurasoen, ikaslériaren eta zentroko langileriaren arteko elkarren arteko ezagutza posible egin.<br>• Mota honetako ekimen hauek sustatu eta hauen inguruko informazioa eskaini, parte hartzen duten sareetan.<br>• Esperientzia irakaskuntzako beste zentroekin partekatu.<br>• Mota honetako esperientzien artikulazioa beste zentroetan eskaini. |
| • Genero berdintasun ikuspegi barneratzearen inguruko gizarte eta politika kontzientzia sustatu.<br>• Tokiko eta lurraldeko entitateetan intzidentzia, garapeneko tokiko ekimen eta politiken artikulazioan genero berdintasuneko ikuspegi bat barneratzeko/ onartzeko.<br>• Bizitzaren jasangarritasuaneko prozesuak kontutan izatearen garrantzian intzidentzia egin, ereduaren esparruan.<br>• Emakume baserritarraren papera balioztatzea, historia mailan inbisibilizatua egon den jarduera ekonomiko baten aktore bezala.<br>• Genero desberdinkeriak errotik kentzeko intzidentzia egitea nekazal edo/eta landa eremuan (titulartasuna, errenta, zerbitzu publikoak). |
| • Elkarren arteko ezagutzarako eta helburu eraldatzaile bat duten erakundeen artean interakzioa emateko espazio bat eskaini.<br>• Tokiko entitateen aurrean intzidentzia egitea, hauei laguntza emateko |
| • Bere kontsumoan garaiko eta gertuko materiak barneratzea.<br>• Elikadura burujabetza eta kontsumo kontziente eta arduratsua sustatu beraien zentroetan.<br>• Tokiko ekoizleekin elkar trukaketak egiteko espazioak eskaini.<br>• Tokiko ekoizleekin lankidetzak gauzatu.<br>• Beste eragile eraldatzaileekin, beraien jakinduria eta esperientzia partekatu ekonomia sozial eta solidarioko eremuan.<br>• Kide diren eragileek bat egin, ekonomia sozial eta solidarioko ekimenen artikulazioan. |
| • Kontsumo eredu kontziente eta arduratsuak, justuak eta eraldatzaileen alde egiteko ikertu.<br>• Mota honetako produktuak ikustera ematea azokak, lehiaketak, etab. bitartez.<br>• Tokiko denda txikiarekin loturak ezartzea, merkataritza bidezko eta eraldatzaile baten postulatuen inguruan sentsibilizazioa egiteko helburuarekin. |

| IDENTIFIKATUTAKO ERAGILEA | ROLA |
|---|---|
| | EREDU ERALDATZAILE BATEN FI |
| PRODUKTUAK MERKATURATZEN DITUZTEN ERAGILEAK (TABERNAK, JATETXEAK, ENPRESAK) | Ekoizpen justu bati eta kontsumo kontziente eta arduratsuaren eskaera bati erantzuten dieten produktuen bideratzaileak merkatuan. |
| UNIBERTSITATEA. | Eredu ekonomiko justu eta eraldatzaileen inguruan sakontzen eta ikerketan lankidetza egitea eta bere ildo kurrikularrean kontutan hartzea. |
| TOKIKO GARAPENEKO ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA ERDIPUBLIKOAK | Tokiko garapen inklusibo baten sustatzaileak, pertsona eta gizarte eragile guztiek bere diseinuan parte hartzearen bitartez |
| UDALETXEAK | Herritarren behar eta interesei erantzuten dieten, garapen ekonomiko eta sozialeko politikak artikulatzen dituztenak. |
| FINANTZA ERAKUNDEAK ETA FINANTZAKETA MEKANISMOAK | Ekimen eraldatzaileei eta mota honetako sistemen eragileei finantzaketa justua errazten dutenak, solidarioak eta parte-hartzaileak direlarik. |

| AUKERAK EREDUAREN ESPARRUAN |
|---|
| FINKAPENERAKO ERAGILE GAKOAK |
| • Produktu desberdinen jatorriz adierazi.<br>• Merkatu eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile hauen printzipioei erantzuten dieten produktu horiek desberdindu.<br>• Produktuen erosketa etikoa<br>• Merkatu eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile hauen printzipioei erantzuten dieten produktuen merkaturatzea.<br>• Jatetxeak Km0, begetarianoak, beganoak. |
| • Sindikatu erakundeekin lankidetza egin, jakinduriaren sendotasunean, antolamendu garapeneko politiketan eta jardueretan modu eraldatzailean intzidentzia egiteko helburuarekin.<br>• Kurrikulum diseinuan garapeneko eta ekonomiako paradigma berriak barneratzea.<br>• Paradigma berrien hedapenerako espazioak eskaini.<br>• Erakunde zibilen eta administrazioaren artean zubiak eraiki.<br>• Gizarteko eragile eraldatzaileekin lankidetza egin, jakinduriaren ikerketetan edo/eta elkar trukaketa jardueretan eta bere hedapena. |
| • Eragile desberdinen artean ekimenen artikulaziorako espazioak sortu.<br>• Hiritarren aldetik abiatzen diren tokiko garapen ekimen eraldatzaileak, tokiko edo/eta lurraldeko administraziora transmititu, baita hauen helburuak ere, bai ekonomikoak bai sozialak, eta bereziki mota honetako ekimenak sustatzeko beharrezkoak diren aldaketak araudi esparruan.<br>• Politika publikoen ko-eraikuntza eta ko-ekoizpena, merkatuko eta kontsumoko eredu eraldatzaileei dagokionez.<br>• Erosketa publiko etikoaren bitartez sustatu.<br>• Sentsibilizazioa<br>• Ikerketa |
| • Tokikoari lotutako eredu ekonomiko-sozial desberdinak ezagutzeko espazioak sortu.<br>• Tokikoari lotutako eredu ekonomiko-sozial desberdinak ezagutzeko espazioak sortu.<br>• Zentzu honetan ekimenak sustatu.<br>• Enplegu eta hazkunde inklusibo jasangarriko programa publikoak garatzea, tokiko eremuan eraldatzaileak direnak.<br>• Ekimen pilotuen garapenerako esparrua eskaini.<br>• Bere langileen artean garapen sozio-ekonomikoko paradigma berriak ezagutzera ematea.<br>• Bere kontratazio pleguetan bidezko merkataritza, elikadura burujabetza eta tokiko kontsumoa eta justua eta ekonomia sozial eta solidarioa bezalako alderdiak barneratzea. |
| • Gizarte funtzio bat duten proiektuak lagundu.<br>• Gardentasuna, partaidetza, demokrazia eta kreditua eskubide bezala dituen printzipioak dituen finantza bitartekaritza sustatu<br>• Finantzaketa bitartekaritza sustatzea, eskubide bezala gardentasuna, partaidetza, demokrazia eta kreditua printzipioen babesean.<br>• Helburu sozialak, kulturalak eta ingurumen helburuak dituzten proiektu eta ekimenetan emaile pribatuen inbertsioa bideratu.<br>Enpresa eta partikularrei banku zerbitzuak eskaini: maileguak, aurrezki eta inbertsio produktuak, kontuak eta hipotekak<br>• Ekonomia errealean inbertsioak eskaini Hegoaldeko herrialdeetan mikrokredituen bitartez tokiko instituzioekin batera, enpresen kapital sozialean partaidetza, konpromiso ekonomiko, sozial eta tokiko giza garapen konpromiso garrantzitsu bat dutenekin |

| IDENTIFIKATUTAKO ERAGILEA | ROLA |
|---|---|
| GIZARTE ERALDAKETAGATIK AKTIBO MODUAN | |
| LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA ZENTROAK | Lurraren gizarte eta ekonomia errealitatearen **baloreen** eta ezagutzaren eragileak. |
| OSTALARITZAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA ZENTROAK ETA SUKALDARITZA ESKOLAK | Elikadura burujabetza eta kontsumo kontziente eta arduratsuaren eragileak. |
| KONPROMISOA DUTEN AUZO ELKARTEAK | Ekimen justu eta eraldatzaileak garatzen dituztenak, edo/eta tokiko erakunde publikoetatik salatzea. |
| BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEN SUSTAPENA ETA SALMENTAN LAN EGITEN DUTEN EAEKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK | Produktuen merkatari eragile desberdinei eta kontsumitzaileei informazioa eman eta sentsibilizazioa egiten dieten pertsonak. |
| HIRUGARREN ADINEKO ELKARTEAK | Adin nagusikoen jakinduriak eta esperientziak balioztatzen dituzten eragileak. |
| HIRUGARREN ADINEKO PERTSONENTZAT EGUNEKO ZENTROAK ETA ERRESIDENTZIAK | Belaunaldi-arteko topaketa gunea |
| POSTULATU HAUETATIK URRUN DAUDEN BESTE ZENTRO BATZUK (ADIB. PRESONDEGIAK) | Gizarte eta ekonomia paradigma eraldatzaileen inguruan, pertsonak ahalduntzen duten gizarteratze baten eragileak. |
| GAZTEEN ELKARTEAK (LUDIKOAK, KIROL, KULTURA, ETAB. ELKARTEAK) | Gizarte errealitate desberdinen ezagutzara sartzeko asoziatuen sarbideak izatea eta tokiko eragile eraldatzaileekin lankidetza sustatzea. |

| AUKERAK EREDUAREN ESPARRUAN |
| --- |
| N EZ MOBILIZATUTAKO GIZARTEKO ERAGILEAK |
| • Balore solidarioak, ingurumenarekiko errespetagarriak, justuak eta berdintasunaren aldekoak sustatu.<br>• Ikasleek modu zuzenean baserritarren esperientziak, ekoizpen zikloak, etab. ezagutzeko espazioak sustatu.<br>• Jantokietan tokiko produktua kontsumitu. |
| • Bere kontsumoan garaiko eta gertuko materiak barneratu.<br>• Baserritarren esperientziaren eta jakinduriaren ezagutza ikaslegoari eskaini, lurraren, bere zikloen, fruituen, etab. inguruko ezagutza emanez.<br>• Espazioak eskaini tokiko ekoizleekin trukaketak egiteko.<br>• Tokiko ekoizleekin lankidetzak gauzatu.<br>• Zentroak erabiltzen dituen produktuen artean, kontsumo etiko eta tokikoari erantzuten dioten produktuak barneratu. |
| • Konpromisoa hartuta duten postulatu eraldatzaile horiek hedatu.<br>• Tokiko mailan antolatzea.<br>• Politika publikoen ko-eraikuntza eta ko-ekoizpena, merkatuko eta kontsumoko eredu eraldatzaileei dagokionez |
| • Kontsumo eredu kontziente eta arduratsuak, justuak eta eraldatzaileen alde egiteko ikertu.<br>• Mota honetako produktuak ikustera ematea azoka, lehiaketa, etab. bitartez. |
| • Bizitza esperientziak ezagutzera ematea<br>• Ezagutzen eta jakintzen belaunaldien artean pasatzea.<br>• Belaunaldi arteko ikuspegia, eztabaida eraldatzaileko beste espazio batzuetara egiten duen ekarpena.<br>• Pertsonen, eragile ekonomikoen eta lurraldearen arteko lotura balioztatu. |
| • Tokiko produktua kontsumitzea |
| • Tokiko produktua kontsumitzea.<br>• Jarduera inklusiboak burutzea sustatzea, ekimen edo/eta proiektu eraldatzaileen esparruan. |
| • Bere jarduerak ikuspegi inklusibo batetik definitu eta tokiko gizarte eta ingurumen dimentsioak kontutan izanik.<br>• Bere hartzaileen artean tokiko errealitate desberdinen ezagutza bultzatu eta hauenganako interesa eta bertan parte hartzea sustatu. |

# 5. PRAKTIKA EGOKIAK

## GARAPEN INTEGRALEKO PROIEKTUA NEKAZALGUNEA. PROZESUA 2014-2017

| | | |
|---|---|---|
| Lurraldea | Zeberio eta Arratia-Nerbioi eskualdea | |
| Ardatz nagusia | Bizitzaren jasangarritasuna<br>Landa eremu bizia<br>Elikadura jasangarriaren sustapena<br>Herriaren memoria historikoaren berreskurapena | |
| Eratorritako ekimenak | **Basortu** | **Maskilu** |
| Erakunde mota | Kooperatiba | Irabazi asmorik gabeko elkartea |
| Jarduera sektorea | Barazki ekoizpena eta frutagintza | Fruta eta barazkien artisau kontserbagintza |
| Ereduaren printzipioak | Gizarteratzea<br>Tokiko artikulazioa<br>Genero ekitatea<br>Ingurumenarekiko eta lurrarekiko errespetua<br>Lurraldearekiko lotura eta partaidetza<br>Kontsumo kontziente eta arduratsua<br>Belaunaldi arteko elkartasuna | |
| Onuradun zuzenak | 30 emakume baino gehiago<br>30 gizon baino gehiago | EZ ditugu datu horiek |
| Ekoizle kopurua | 2 emakume<br>2 gizon | 5 Eemakume<br>10 gizon |
| Web orria | Basortu.yolasite.com<br>https://maskilukontserbak.org/ | |

## 1. Tokiko eremua

Nekazalgunea proiektua 2014 urtean sortu zen Zeberioko udalak bultzatuta eta garatuta. Udala lehen sektoreko eragile desberdinen aldetik aholkatua izan zen, horien artean EHNE-Bizkaia sindikatua eta eredu agroekologikoari lotutako eskualdeko ekoizleak nabarmentzen dira. Udaletxeak bere kezka adierazi zuen biztanleria gaztearen arten enplegua sortzeko zegoen arazoaz, baita lehen sektorearen uzteaz ere, historian zehar lurralde horrek nekazal bokazio bat izan zuela kontutan izanik.

## 2. Ekimenaren ardatz nagusia

ELehen sektorea dinamizatu eta suspertu asmoz, hilabete luzeetan zehar udaletxeak garapen integraleko eredu bat planifikatu zuen, dimentsio desberdinak erlazionatuz, horien artean nabarmenduz: bizitza jasangarriko modu baten sustapena, landa ingurune bizi bat, elikadura jasangarria eta herriaren memoria historikoaren berreskurapena, ekimenaren ardatz nagusi bezala.

Dimentsio hauen guztien artikulazioak Nekazalgunea proiektua ekarri zuen, deialdi publiko ofizial baten bitartez argitara eman zelarik. Bideragarri egin zen dagokion pleguen bitartez. Deialdi horretan lurra, etxebizitza eta elikagaiak eraldatzeko zentro bat garatzeko leku bat eskuratzea eskaintzen zen. Kasu guztietan ikuspegi agroekologikoa, genero ikuspegia, ikuspegi komunitarioa, ingurumen jasangarritasuna sustatzen ziren eta gazteen eta emakumeen partaidetzari garrantzia berezia ematen zitzaion.

Hortaz, proiektuaren oinarriak ikuspegi inklusibo batekin planifikatu zirela baieztatu dezakegu, kasu honetan, gazteengana eta emakumeengana bideratuz, enplegagarritasun gutxien duten sektoreak izateagatik. Deialdi publikoan ez ziren, bertako biztanleria kanpoko biztanleriaren aurrean lehentasuna ematen zuten mekanismorik ezarri, baina proiektuak bere kritikak izan zituen lehenengo deialdiak hedapen gutxi izateagatik herriaren mugatik haratago.

## 3. Finkatutako jarduera lerroak

Lurrari dagokionez lurren banku bat sortu zen, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru Aldundietan dauden ereduetan oinarrituta. Udal lurren gabeziaren aurrean, udaletxearen zeregina lur pribatuak eskaintzea izan zen "mandatu-kontratu eredu" baten arabera, lurren lagatzea da 10 urteko iraupenez eta udaletxeak bitartekari lanak egiten ditu, baita lurrak ondo erabiltzea bermatzen duena ere. Nabarmentzen den arrakastetako bat alokairua da, ekonomiari dagokionez eskuragarria, 10 urte proiektuak garatzeko. Epe hau izateak gazteentzat planteamendu desberdinagoak egitea posible egin du, adibidez, fruitu-sailak edo instalakuntza progresibo bat bezala, hasieratik zorpetzeko beharrik izan gabe. Horrez gain, ez zen lanean alta emateko ezta ustiapenetan alta emateko beharra planteatu denbora epe zehatz batean, ondorioz, gazteak beraiek izan dira beraien lan egoera zein unetan legeztatzea erabaki dutenak, modu horretan, beraien ustiapenen bideragarritasuna balioztatzeko epe bat izan dute. Lur hauek irisgarritasun ona duten auzoetan kokatuta daude, ondorioz, komunitateak proiektu hauek ikusgai izan ditu.

Etxebizitzari dagokionez, bost apartamentu proiektuaren eskura jarri ziren, pertsona atzerritar haientzat etxebizitza eskuratzea eragozpen bat izan ez zedin. Apartamentuak baratzetik gertu dagoen gune batean kokatuta daude eta ezarritako alokairua merkatuan aurki daitezkeenak baino merkeagoa da. Orain arte apartamentuetako bat bakarra izan da okupatua.

Azkenik, baratzak eta etxebizitza dauden auzo berean kokatuta dagoen elikagaien eraldaketarako zentroari dagokionez, 10 urterako alokairu bat ezarri zen, Nekazalguneko udal pleguetan zehaztuta zegoen moduan. Ekimen hau bultzatzeko hartutako neurri nagusien artean, espazio honi emandako babes ekonomikoa, espazioa ematea eta bere irekierako izapide legezkoak eta burokratikoetan laguntza zeuden.

## 4. Proiektuaren prozesu bertatik sortutako aukerak: Maskilu Elkarte eta Basortu Kooperatibau

Nekazalgunea proiektuaz geroztik, lehen sektoreari lotutako eragile berriak sortu ziren herrian, Basortu kooperatiba eta Maskilu elkartea bezala, baita 2014 urtetik gaur egun arte garatzen joan diren eta Nekazalgunearen hasierako motibazioetara lotuta dauden beste proiektu/espazioak ere; ingurune bizi bat sortu Elikadura Burujabetza eta eredu Agroekologikoaren baitan.

- **Maskilu Elkartea:**

Maskilu-ren sorrerari dagokionez, kolektiboa izan behar zela uste dugu, norbanakoaren enpresa bat egitea ez zelako helburua, tresna bat kolektibo bihurtzea baizik. Gurea den kontserba-fabrika txiki eta artisau baterako kostuak handiak dira zentzu guztietan: ekonomia mailan pentsaezinak, burokratiko mailan denbora asko eskaini behar zaion prozesu konplexu eta ezezaguna. Eta gu, ekoizpen txiki eta sakabanatuak ditugun nekazariak izanik, gure nekazari proiektuak laguntzen dituzten azpiegiturak behar ditugu, baina baliabide naturalen gehiegizko erabilera egiten ez dutenak, ura eta energiaren gehiegizko erabilera eta prozesuen gehiegizko mekanizazioa artisau moduan egiten diren elaborazioen aurrean.

Horrez gain, koordinatzeko, elkar ezagutzeko eta logika indibidualistetatik haratago joateko modu bat da. Gutako gehienok, nekazaritzatik edo elikagai osasuntsu eta jasangarrien ekoizpenetik bizitzea erabaki dugun jende gaztea gara. Jaten ditugun elikagai gehienak hemen ekoiztuak ez direla ikusi dugu, ezta lan baldintza duinetan ere eta kalitate, osasun eta ingurumenaren zaintza irizpiderik gabe.

Elikagai gehienak industriak ekoizten ditu eta erabiltzen dituen ekoizpen ereduak jasanezinak dira zentzu guztietan. Bizi garen gizarteak ekoizten duena erabakitzea lortzea da gure erronka, nola ekoizten duen, nola saltzen den… modu kolektiboan erabakitzeko aukera izatea. Urte betez bilerak eta hausnarketak egin ondoren, 11 proiekturen artean Maskilu sortzearen eta irekiaren aldeko apustua egin genuen, gure eskualdean fruituen eta barazkien kontserba-fabrika bat sortzea positiboa zela sentitu genuelako eta irabazi asmorik gabeko erakundean osatzea erabaki genuen.

- **Basortu Agroekologia Elkartea:**

Beste alde batetik, Basortu Agroekologia Elkartearen sorrerak lurra eskuratzea gauzatu zuen, barazki eta frutagintza ekoizpeneko proiektu bat garatzeko. Azken urteetan, eskualde bakoitzean nekazaritzara bueltatze prozesu bat gauzatzen ari da jende gaztea ekimen horren buru delarik eta korronte honen parte osatu dugula sentitzen dugu. Nekazaritzaren sektorea oso zaharkituta dago, ez bago belaunaldi txandakatzerik eta sektore birsortzeko politika publikoak ez dira nahikoa, ondorioz, proiektua Zeberion erreferente bat izango litzateke, tokiko mailan, bere errealitatearen garapen eraldatzaileko proiektu bat gauzatu ahal izateko mobilizatzea lortu duelako.

Guretzat berria den nekazaritza identitate honetan, Basortu kolektiboan osatu zen posizionamendu ideologiko argi batekin: alternatiba kolektibo bat eraikitzea elikadura burujabetzaren baitan, inbertsioak, lanak eta zereginak sozializatu eta ezagutzak eta jakinduriak sozializatu eta partekatu gu eta inguruan dagoeneko finkatuta dagoen ekoizpen sektorearen artean, azken batean, ekonomia solidario eta justu bat eraikuntzan laguntzeko.

Gure misioa eta baloreei dagokionez nabarmentzen ditugu: elikadura osasuntsu eta garaiko baten sustapena; kontsumo arduratsua eta tokikoa, merkaturatzean zirkuitu laburren edo/eta gertukoen bitartez; gizarte eraldaketarako beharrezkoa den eta bizitza estilo jasangarria, solidarioa eta aktibo baten defentsarekin konprometitua dagoen kultura eta praktika agroekologiko baten sustapena; tokiko eta tradiziozko barietateen berreskurapena barazki eta fruitu elikagaietan; eta pertsona kontsumitzaile eta ekoizleen arteko beste erlazio mota bat praktikan jartzeko beharra. Gure egunerokotasunean funtsezkoa den alderdi bat genero ikuspegia barneratzea da gure nekazaritza jardueran eta horrez gain, familia, norbera eta laneko bizitza eta landa mundua bateragarri egitearen alde egitea da.

Maila praktikoan, hainbat dira Basortu-ren lan ardatzak:

• Fruta eta barazkien lursail misto baten diseinua eta kudeaketa, ekoizpen prozesu osoa kontrolatzen duten eragileak izan gaitezen proposatzen dugu eta modu honetan, nekazari bezala gure autonomia sustatzeko, kanpoko sargaien geroz eta menpekotasun gutxiago izateko.

• Maskilu kontserba-fabrika kolektiboa dinamizatzea eta kudeatzea.

• Agroekologiarekin, landa garapenarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin eta elikadura burujabetzarekin erlazionatutako espazio desberdinetan parte hartzea, tokiko eta eskualdeko mailan. Hori horrela izanik, Zeberioko agro-batzarreko kide gara, oraindik oso hasiberria den dinamika bat du, baita Arratia haraneko agro-batzarreko (IGITIE), Etxaldeko emakumeak taldeko, eta sareak eta aliantzak ehuntzen laguntzen gaituzten beste espazio puntualetako kide ere.

Merkaturatzeari dagokionez salmenta zuzenari lehentasuna eman diogu kontsumo talde desberdinak sortuz (zirkuitu gertukoa edo/eta laburra). Hala ere, gure ekoizpenaren zati txiki bat eskualdeko denda txikien bitartez saltzen dugu, salmenta zuzenaren bitartez sartu ezin dugun tokiko salmenta eta kontsumoaren arteko elkargune hori ere bilatzen dugu. Hori dela eta, denda txiki hauek elikadura burujabetza ikuspegi baten aliatu potentzial bezala kokatu daitezke. Ahalik eta merkaturatze gertukoena bilatzen dugu, gertutasun bezala kilometroak ulertzeaz gain, ekoizpenaren eta kontsumoaren munduaren artean erlazio desberdinak ezartzea ere.

Gutxi gora-behera duela urte bete Kidenda-rekin (Bilbo) koordinatzen ari gara etxeko kontserben hornikuntzarako, bidezko eta duinezko merkatuko irizpideak tokiko ekoizpenari gerturatzeko apustu gorakor bat dagoelako.

Zentzu honetan, gure proiekzioa, kontsumo taldea eskualdekoa izatea den arren (honek harremanetarako espazio gehiago izatea posible egingo luke; jendea baratzera maiz etorri ahal izango luke, etab.), egun, gure familia gehienak Bilbo bezala hiri erdiguneetan kokatzen dira. Hala ere, hiria eta landaren arteko erlazio hau modu baikorrean baloratzen dugu, eremu bakoitzaren espezifikoak diren arazoez kontzientzia hartzea posible egiten duelako, baita komunak diren arazoez ere eta horrela, modu bateratuan konpondu daitezke. Era berean, hiri erdigunek elikagaien ekoizpenean duten menpekotasuna ikus daiteke. Kontsumo talde bat osatzeko motibazioak oso desberdinak dira eta elikadurarekiko eta kontsumo arduratsuarekiko konpromiso politikoa aldakorra da. Oro har, familiak elikagaien nekazal moduaren edo industria moduaren ekoizpenaren arteko desberdintasunak ulertzen doazela sentitzen dugu eta alderdi hau beraien balore eskalan poliki-poliki garrantzitsu bezala kokatzen dute.

Otar itxiko ereduak, tokiko mailan kontsumitu nahi duen jende askoren partaidetza mugatzen duen hainbat eragozpen ditu. Familiekin burututako ebaluazioetan, astetik astera barazkiak errepikatzea edo astero nahi dituzten barazkiak ezin aukeratzea (beti garaiko barazkiak direla kontutan hartuta), familiek dituzten arazoak definitzeko askotan errepikatzen diren gaiak dira. Gure kolektiboak arazo horiei beste erantzun batzuk emateko gai ez dela sentitzen dugun arren, gureak bezalako ekimenek beraien ekoizpenak berriz orientatu beharko luketela sinisten dugu, merkaturatze desberdin baten bidean; hauek dira adibide batzuk: ekonomatoak, banatzaile alternatiboak, elikagaien otar irekiak. Zentzu horretan, ekoizpena kontsumoarekin lotzen dituzten eta kontsumitzaileak elikagaiak jasotzearen jarduera pasibotik haratago interpelatzen dituzten ebaluazio eta planifikazio parte-hartzaileak burutzea gomendatzen da. Gure azterketan, familien partaidetza funtsezkoa dela eta pertsona kontsumitzaileentzat Gradu

txikiagoan parte hartzen dugun merkaturatzearen beste esperientzia bat “Bai esaten duen erlauntza”, ekoizpen justua, tokikoa eta osasuntsuaren baloreak kontutan hartuz, web orri bat garatu du, elikagai agroekologikoen online salmenta bideratzeko helburuarekin, pertsona kontsumitzaileek eskaintzen diren produktu desberdinen artean modu askean aukeratzea dutelarik. Pertsona ekoizleek beraien elikagaien prezioa erabakitzen duten arren, zerbitzu honen kostuak elikagaien garestitze bat sortzen du, ondorioz, nolabaiteko “elitismo” baten arriskua egon daiteke epe luzera modu zuzenean kudeatzen ez bada. Beste alde batetik, ekimen honek baliozkoak diren hainbat alderdi dituela uste dugu, adibidez, erosketa aukeratzerako garaian askatasuna, otar itxi bat eskuratzeko konpromisoa hartzera prest ez dauden pertsonen beharrak bideratzeko oso baliagarria izan daiteke. Horrez gain, eskaintzak sektore desberdinetako pertsona ekoizle multzo bat harremanetan jartzen ditu, kontsumo integralago eta dibertsifikatuago bat egitea posible eginez, ohiko barazki otarra eskuratu ordez. Eskualde berekoak diren pertsona ekoizleak, banaketa modu honetara egokitzeko eta kostuak murrizteko estrategiak garatu dituzte, horien artean, otarrak emateko garaian ados jartzea, banaketan bidaiak eta denbora murriztuz.

Beste alde batetik, pertsona kontsumitzaile-ekoizle arteko erlazio berri honetan lantzen ditugun alderdietako bat, salmenta zuzenetik haratago, kontsumo arduratsua eta konprometituaren aldeko apustu honen gure konpromisoa da. Horretarako, gorputzak elikatzeaz gain ideiak ere elikatu behar dira, komunikazio baikor baten bitartez, zure ustiategiaren eta sektorearen zailtasunak adierazten jakitea, jardunaldien, topaketen inguruko informazioa ematea, garaiko barazkiak errezetekin bidali, kontsumitzaileek esan behar dutena entzun beraien bizipenei dagokionez eta beraien kontsumo moduaren alderdi eraldatzailea ikustera eman.

Ekoizpen eta gobernatze eredua, bilatzen ari garen merkaturatze eta kontsumo ereduari lotuta dago barnetik, ko-erantzukizunean oinarrituta agroekologia eredua eta Elikadura Burujabetza defendatzeko garaian. Guretzat beharrezkoa izango litzateke, komunitateko ahalik eta eragile kopuru handiena merkaturatze justu eta tokiko kontsumo batean inplikatuko balitz, osasuntsua eta garaikoa, bere inguruko nekazarien laguntza emanez. Kasu honetan kontsumo taldeak eredu hauek laguntzen dituzten euskarriak bezala osatzen dira, hau da, komunitateak babestutako nekazaritza mota bat da (ACC). ACC nekazaritza eredu hau munduko beste zenbait lekutan hedatuago dago, herritarren inplikazio handiago duten lekuetan, baina hala ere, norabide horretan urratsak ematen ari garela uste dugu.

Azkenik, kontsumo ereduetan aldaketa emateko erantzukizuna familien eta norbanakoen erantzukizuna bakarrik ez dela ulertzen dugu, eraldaketa hau beste zenbait alderdietatik eman beharko litzateke: Instituzioak, gizarte erakundeak, GGKE, ikastetxeak, formazio zentroak, unibertsitateak, etab. Eragile hauek beraien kontsumo jarraibideen eta ereduen inguruan hausnartu beharko lukete ere, eredu jasangarri eta justuago direnen bidean aurrera egiteko; elikagai osasuntsuak eta tokikoak erostea eta lan esplotazioa ez dagoen ekoizpenetatik eratorritakoak, lan baldintza duinak izatea eta ekoizpena jasangarria izatea. Etorkizunean, ikastetxea edo zaharren udal erresidentzia bezalako hainbat udal eragileekin merkaturatze bide estuagoak ezartzea gustatuko litzaiguke, modu kolektiboan.

## 5. Ereduaren printzipioak

**Genero ekitateari** dagokionez, Basortu kolektibo misto bat bezala sortzen da, hasieratik genero ikuspegia barneratzen saiatu gara, urte hauetan zehar pentsamendu feminista baten bidean aurrera eginez. Elikadura Burujabetza eskala globalean agro-elikadura ereduaren eraldaketaren aldeko apustu bat dela uste dugu eta ondorioz, eredu hauek bereganatzen diren unetik genero ekitatea funtsezko printzipio bezala lan egitea eta barneratzea ezinbestekoa da.

Hasieran, zaintza erdigunean jartzearen ideia, ideia motorra izan zen gure ekimenean. Zentzu honetan eta maila praktikoan, erantzukidetasunean oinarritutako estrategia desberdinak ezarri ditugu, lan bizitza eta familia bizitza bateratzeko. Nabarmendu behar da, aipatutako estrategiak esfera informal batean daudela eta talde misto bezala, alderdi hauek zehazten dituzten protokoloak edo neurri formalak ez ditugu garatu



Genero berdintasunaren alde kontutan hartu izan diren edo egun lanean ari garen, ekintza zehatz batzuk ondorengoak dira:

**1. Neurri ekonomikoak:**

A) Emakumeak gizarte segurantzako kotizazioetara sartzea lehenetsi.

B) Ustiategiaren titulartasun partekatua, horrela, titulartasun asoziatibo bat lehenetsi dugu.

**2. Neurriak gizarte partaidetzaren inguruan:**

A) Emakumeen partaidetza sendotu intzidentzia politikoa egin daitekeen espazio desberdinetan: sindikatuak, lan-taldeak, udaletxearekin elkarrizketa batzordeak.

B) Batzar-neurriak erabaki hartzean, adostasunaren bitartez: emakumeen hitzaren balioa eta errespetua funtsezkoa da espazio hauetan eta guk errespetu hori dugula sentitzen dugu.

C) Lan eta bilera ordutegiak egokitzea. Metatutako lan kargaren ondorioz askotan betetzen ez den eskaera zuzen bat da, baina espazio egokiak bilatzen dira eta bateratzea errazten duen etxeko eremuan barneratzen da. Hau da, bilerak gure etxeetan bertan edo parkeren batean egiten ditugu.

D) VEmakumeen partaidetzaren balioztatze positiboa, bai beraien espazio propioetan bai landako emakumeen eskubideen alde lan egiten duten emakume elkarteekin. Zentzu honetan, Etxaldeko emakumeak espazioa Elikadura Burujabetzaren esparruan lan egiten den erreferentziako espazio bat bezala sentitzen da, eskubide eta interes espezifikoen babesa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa bezalako alderdiak lantzen diren sektorearen barruan.

**3. Neurriak hezkuntza eta kulturaren inguruan:**

A) Landa eremuko dinamizatzaile gure papera, nekazari eremuan emakumeen papera ikustera ematen den jardueren garapenera bideratzea eta memoria historikoaren berreskurapena. Ildo honetan funtsezkoak dira tokiko agroekologiako jardunaldiak eta "Haziak eta Jakintza" dokumentala gauzatzea.

B) Emakumeen partaidetza sustatzea, kolektiboan eragin dezaketen formazio alderdietan.

Hala ere, kolektiboak feministagoa den identitate baten bidean urratsak eman behar dituela uste dugu, modu horretan adierazi eta praktikan espezifikoagoak diren praktikak garatu. Hain zuzen ere, eskaera hau kolektiboak modu bateratuan garatu behar dela uste dugu.

Belaunaldien elkartasunari dagokionez, instalazio prozesu bera aurretik ezarritako analisi eta dinamiketan oinarrituta egon da, duela urteak eredu agroekologiko hau entseatzen ari direnen aldetik. Eskualdean erreferente den hainbat pertsonak gure ekimenaren definizioan bere esperientziaren ekarpena egiten du, hain zuzen ere lursailaren definizioan, ekoizpenaren antolamenduan, ezagutza tekniko eta nekazari ezagutzetan, prezioen azterketa merkatu duin batean oinarrituz eta beste alderdi zerrenda luze bat. Zentzu honetan, guretzat garrantzitsua izan da prozesu baten partea garela sentitzea eta ez modu librean ekitea. Hain zuzen ere, gureak ez diren proposamen guztiak ez ditugu barneratu, batzuk gure egungo interesekin bat egiten ez zutelako edo beste alderdi batzuekin kontraesanean jar zitezkeela uste genuen, adibidez, genero ekitatea bezala. Pertsona adinduek merkatu eta kontsumo ereduei ekarpen asko egin ditzaketela pentsatzen dugu, eguneratuen dauden ekimenak landa biztanleriaren praktika historikoetan oinarritzen direlako. Hala ere, gizonen eta emakumeen artean diskriminatzaileak diren praktika horiek aztertu eta ikustera ematen eta errepika ez daitezen saiatu behar da. gehienetan, elkar trukaketa espazioen gabezia bat dago, baita elkar trukaketa hauek errazten duen metodologia gabezia ere. Ezagutzen eta jakindurien elkar trukaketarako metodologia horizontaletako bat, nekazaria-nekazaria metodologia da. Metodologia honen ibilbidea hedatuago dago Latinoamerikan eta espainiar estatuan erabiltzen hasi da agroekologiari lotutako hainbat talderen eskutik.

Beste alde batetik, kolektiboak gazteen eta emakumeen beste hainbat kolektiboekin aliantzak ezarri dituela nabarmendu behar da, belaunaldi arteko espazioetan egotea garrantzitsua dela uste dugu. Herrian jarduerak garatzeko udal koordinazio esperientziak, herri jakinduriak eta pertsona adinduen jakinduriak ikustera ematean oinarrituta egon dira, hain zuzen ere emakumeen jakinduriak, ikus-entzunezko tresnak erabiliz, baserrietara bisitak eginez eta elkarrizketak burutuz. Horrez gain, herrian hazien elkar trukaketak konstante bat izan dira eta bi alditan garatu dira, elkar trukaketa hau errazteko espazio formalak.

**Lurrarekiko errespetutik eta ingurumen jasangarritasun terminoetan**, eredu agroekologikoa, bioaniztasunaren eta baliabide
jartzen duen e



Eredu honek munduarekin errespetu gehiago duela egiaztatu da, lurra eta bioaniztasuna zaintzen saiatzen da eta munduko leku askotan, planeta hozten laguntzen du. Ekoizpeneko eta kontsumoko kostuak askoz txikiagoak dira termino ekonomiko eta ingurumen terminoetan, elikagai industrial edo agro-negozioarekin konparatuz. Behi-ongarria erabiltzea, lurrera bueltatzen den konpost organikoa erabiltzea, laborantza errotazio sistema eta hauen dibertsifikazioa, bio-ongarri etxekoak eta organikoen erabilera edo borroka biologikoa bezalako praktika arruntak, ekoizpena errespetutsuagoa izateko egin daitezkeen oinarrizko praktika batzuk dira.

Beste alde batik, gure ekoizpenetako eta merkaturatze ereduetako batzuk oraindik oso petrolio menpeko dira eta arazo honi aurre egiteko eta onartzeko estrategia kolektiboak garatu behar dira. Egokienak diren eta ingurumenarekin errespetutsuenak diren teknologien erabilera modu progresiboan barneratu behar direla ulertzen dugu.

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

• Ekimena tokiko garapeneko proiektu batean kokatua egon da eta bere azken helburua, landa mundu bizi eta duin bat sustatzea izan da, ekonomia tokikoa, solidarioa eta gertuago baten logikaren arabera. Beraz, ekimenaren abiapuntua eta politika publikoen bitartez jasotako laguntza, hauen garapenerako faktore gakoa eta positiboa izan direla uste dugu.

• Prozesuaren gaineko eta instituzioen eta pertsona gazteen artean nola gauzatu behar zenaren diskurtso komun baten artikulazioa. Zentzu honetan, jarrera itxiak eta hartutako erabakiak ez aurkitzea benetan aberasgarria izan dela uste dugu. Honek elkarrizketa bat egotea posible egin du, baita instalakuntzan interesa zuten pertsonen proposamenak barneratzea ere, alokairuak, erreformak, eratze etapak errespetatuz, etab. bezala gaiak malgutuz. Azken batean, plana garatzeko, udal taldearen kalitatea eta gertutasuna funtsezkoa izan ziren lehen etapetan.

• Eskualdean eredu agroekologikoari lotutako pertsona erreferenteak, prozesu abalatu zutenak eta itxura ematen lagundu zutenak.

• Basortu eta Maskilu modu kolektiboan sortzea, logika indibidualista te enpresarien aurrean.

• Auzolanen eta lan komunitarioaren praktikak funtsezkoak izan dira kostu ekonomikoen murrizketan, era berean, taldea osatzen lagundu dute.

• Finantzaketa alternatibo eta kolektiboko beste formula batzuk bilatu ziren, modu horretan proiektu multzoak Maskilura sartzeko aukera izatea eta norbanakoaren ekarpen ekonomikoa inorentzat traba bat ez izatea.

• Udaletxearen laguntza ekonomikoa elikagaien eraldaketarako aretoa sortzen, kostu osoaren %80 beregain hartu zuen.



## 7. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

• Mehatxu nagusiena kolektiboa bera izan daitekeela uste dugu, adostasun eta gatazken kudeaketa politika edo metodologia bat ez badu. Bi ekimenak kolektibitatean oinarrituta daude, baina gatazkatik kanpo ez daudela eta norbanakoaren interesak interes kolektiboekin elkartzen jakitea beharrezkoa dela ulertzen dugu, horretarako metodologia egokiak eta pertsona bitartekariak behar dira.

• Oro har, elikagaien ekoizpeneko nekazari ereduen mehatxua, elikagai merkeek sortzen duten agro-negozioaren presio handia izaten da. Elikagai ekologikoak azalera handiko denda eta korporazioetan barneratu direla ikusten dugu, baina produkziozko eta intentsitate bereko logikan oinarrituta daude. Hau da, maneiu ekologiko bat duten elikagaiak izan daitezke, baina monolaborantzakoa, intentsiboa, beste herrialde batzuetan kokatua eta lan eskubideak edo landan lan egiten duten pertsonen negoziazio gaitasuna ezagutu gabe.

• Gure prozesuan, elikagai agroekologikoen banaketako eta merkaturatzeko gaiak praktika indibidualetan oinarrituta daude, hau da, guztiak gertutasuneko zirkuituekin baina hiritar kontsumitzaile taldeei banaketa portzentaje altu batekin, baina honek merkaturatzea garestitzen du. Berriki, pertsona ekoizleetatik gai hauek koordinatzeko estrategiak daude, baina hauetako batzuk oso hasiberriak dira. Zentzu honetan, dagoeneko erabiltzen ari diren hainbat estrategia hauek dira:

- Kontsumo talde bakoitzean beste ekoizleen tokiko elikagaiak eskaintzea eta hedatzea, elikagaien eskaintza osatzeko: okela, arrautzak, ogia, esnekiak, pasta, etab., modu horretan batzuek besteengan euskarrituz gure banaketak aprobetxatuz, elikagai hauek banatzeko aukera izatea ekoizle bakoitza mugitzeko beharra izan gabe.

- Banaketak bateratu inguru berdineko ekoizleen artean desplazamendu kostuak aurrezteko. Hau horrela antolatuko dugu, bai esaten duen erlauntzan.

- Koordinazioa eta txandak tokiko merkatuetan eskualdeko ekoizleen sarearen artean. Espazio hori astero betetzea da ideia, hainbat herritan tokiko merkatuak edukitzeko aukera izatea eta herritarrak gazte ekoizleen presentziaz ohitzea eta salmenta gune bat ikustera ematea. Hala ere, urte honetan zehar, salmenta gehiago landu da eta hauek egiten dira: Igorren azoka bat larunbatetan eta Diman anitzagoa den azoka bat hilean behin. Basortu eta Maskilu espazio honetan berriki sartu dira.

• Udal laguntza desagertzea. Zentzu honetan, legedi eta gobernu aldaketak hasiak zeuden hainbat prozesu blokeatu ditu. Lurren bankua, udal gobernu berria hasi eta 3 hilabetera guztiz desagertu zen, baita lur hauetara lotuta zeuden apartamentuak ere, emanda zeuden lurrak eta etxebizitzak izan ezik, hauen kontratu formal baten babesa dutelako. Horrez gain, lehen Nekazalguneko parte hartzaileen eskura zeuden hainbat espazio mugatu dira, espazio eta azpiegitura horiek erabilera turistikorako erabiltzeko.

• Udal oztopoak mehatxu garrantzitsua izan daitezke proiektu hauen jasangarritasunerako, jarduera ekonomikoaren garapena gutxitu dezaketelako edo beraien aurka joan daitezkeelako. Hau izan daiteke ekoizpeneko proiektuetan baimena ez ematearen bitartez edo sozialagoak edo komunitarioagoak diren jarduerak lagunduz (jardunaldiak, tailerrak, feriak eta azokak, hainbat aipatzeagatik).



# BIDAZI: ELIKAGAIEN EGUNEROKO KONTSUMO EKOLOGIKOA

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Bidasoaldeko eskualdea |
| Ardatz nagusia | Elikagai ekologikoen kontsumoa<br>Agroekologia<br>Formazioa eta sentsibilizazioa |
| Erakunde mota | Irabazi-asmorik gabeko elkartea |
| Jarduera sektorea | Zerbitzu sektorea (txikizkako salmenta) |
| Web orria | www.bidazi.org<br>twitter.com/Bidazi<br>www.facebook.com/bidazi |

## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Ekimenaren ardatz nagusia elikadurarekin lotua dago. Produktu ekologikoak eta bertakoak kontsumitzeko aukera eskasa zela ikusirik, herritar talde bat elkartzen hasi zen eskaerak egin eta kalitatezko eta gertuko produktuak eskuratzeko. Horrela sortu zen Bidazi.

Bidazi irabazi asmorik gabeko elkartea da, agroekologia bultzatzen du bizimodu osasuntsu baten baitan. Horretarako hiru esparrutan egiten du lan: Alde batetik azoka deituriko dendaren bitartez produktu ekologikoak eta ahalik eta gertukoenak eskaintzen dizkie bazkideei, bertan erosteko aukera izanez. Bestalde, formazioa eta kontzientziazioa lantze aldera ekintza desberdinak burutzen dira: bisitak, tailerrak edota hitzaldiak antolatzen direlarik. Azkenik, elkarlanerako eta gurea bezalako mugimenduak indartu daitezen sare lanetan ari gara, hau da, Euskal Herriko beste erakunde nahiz kolektiboen parte gara eta elkarlanean lan egiten dugu.

## 2. Tokiko eremua

Nafarroa iparraldean kokaturik dago, Bera eta Lesaka arteko Alkaiaga auzoan. Bidasoa ibaia igarotzen den eskualdeetako herritar eta ekoizleak biltzen ditu, hau da, Baztanetik hasi eta Txingudiraino, Malerreka, Bortziriak eta Xareta bilduz.

Herri txikiz osaturiko mendi ingurunea bada ere, 150 bazkidetik gora osatzen dugu elkartea. Hala ere inguruak elkartearen tamaina eta bolumena baldintzatzen du. Bidazik handitzeko ahalmena badu ere, oro har elkarte txikiertaina dela deritzogu.

Ingurune euskalduna da eta euskaraz egiten dugu lan egunerokotasunean. Gure hizkuntza denez honen aldeko hautua egiten dugu.







### 3. Ekimen mota

Irabazi asmorik gabeko elkartea da Bidazi, bizimodu osasuntsu bat helburu duelarik bertako produktu eta produktu ekologikoen kontsumoa sustatzen dugu, hau da, agroekologia.

Bidaziren baloreetan sartzen dira produktu ekologikoen kontsumoa, bertako ekoizpena, jasangarritasuna, elkarlana, ahalduntzea, kontsumo arduratsua, elikadura osasuntsua, bidezko merkataritza, auzolana, elkarlana, parte-hartzea, euskararen sustapena eta erabilera, gardentasuna, etab.

Horretarako lan estrategiak 3 ardatz nagusitan bereizten dira.

- Azoka: Elkartearen denda da, produktu ekologikoak salerosteko gunea da. Honekin bertako ekoizleek beraien produktuak saltzea ahalbideratzen dugu eta bazkideei eskaintza zabala egiten diegu.
- Ekintzak: Kontzientziazioa eta formazioa lantze aldera ekintza desberdinak antolatzen ditugu, hala nola, hitzaldiak, ekoizleei bisitak, tailerrak edo gure baloreekin zerikusia izan dezakeen edozein aisialdirako jarduera.
- Sare-lana: Txikiak izanik eta inguruan eragin positiboa eduki nahiez, Euskal Herriko nahiz kanpoko elkarte eta kolektiboekin harremanetan gaude, elkarlana sustatu, esperientziak partekatu, elkar lagundu eta denen inpaktua handiagoa

### 4. Jarduera sektorea

Bidazi zerbitzuen sektorean dago. Bere jarduera ekonomiko nagusia salmenta minorista edo dendan eginiko salmenta da. Bertan produktu ekologikoak saltzen dira. Irabazi asmorik gabeko taldea izanik, batezbesteko aldea %20 inguruan ibiltzen da, asmoa inguruko ekoizleak sustatu eta herritarrei kalitatezko produktuak prezio arrazoitsuan eskaintzea baita.

Eskainitako zerbitzuen inguruan ekintzak, formakuntza tailerrak edota bisitak egiten ditugu oro har beste bizi mota alternatibo bat sustatzen duten gaiekin lotuta, kapitalismo eta kontsumismo sutsutik kanpo. Hala nola, ekoizleen ustiategiak bisitatu, Fiare edota Goiener banku etiko eta energia kooperatiben inguruko hitzaldiak, bizikletak konpontzeko tailerra, etab.

### 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Bidazin ingurunearekin eta komunitatearekin lotura estua izan nahi da. Bazkideek elkartearen parte sentitu daitezen bilatzen dugu. Horretarako bazkide izateaz gain bertan lan egitea eskatzen dugu eta bazkide bakoitzak, bere eskubide eta betebeharrak dituen heinean, urtean behin 4 orduko txanda bat egitea egokitzen zaio. Auzolanean boluntario lanen bat egitea. Puntu honetan irekiak gara, beraz bakoitzari zertan den trebea eta zer duen gustuko galdetzen zaio, esku bat emateko orduan, gustukoa duen eta ona den horretan errazagoa izango delako.

Zuzendaritzaren aldetik, baloreetako batzuk gardentasuna eta irekia izanik, ahalegina egiten dugu bazkide eta komunitatearekin lotura handitzeko. Horrela, herriz herriko bilerak antolatu izan ditugu noizbehinka.

Ingurunearekin loturiko ekimenen inguruan, azokak eta feriak antolatzerakoan parte hartzen dugu, jendeari ezagutzera emateko asmoz, gure inguruko informazioa eman eta gure nondik norakoen berri izan dezaten.

Horrez gain, inguruko elkarte batzuekin (kirol eta kultura elkarteak, euskaltegiak, etab.) hitzarmenak ditugu, bien intereserako izaten daitezkeen akordioetara iritsiz.

### 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

- Herritarrak: Lehenengo eta behin elkartearekin bat egin eta helburua nahiz beharrak partekatzen dituen biztanle masa bat izatea beharrezkoa da. Hori gabe, elkartea ez litzateke existituko.
- Ekoizleak: Benetako sinesgarritasuna eta konpromisoa izateko, inguruko ekoizleei erosteaz gain, elkartearen parte ere izatea nahi dugu eta batzuk hala dira. Bertako ekoizleei esker gure helburuak lortzen ditugu hein haundi batean, bertako eta kalitatezko produktuak eskainiz. Arlo hau landu beharra dago, eta neurri haundi batean arrakasta honetan datza, eskaintzen dugun aukeran.
- Boluntarioak: Elkarte batek dituen lanei aurre egiteko musutruk lan egiteko prest dauden boluntarioen beharra dago. Bazkide batzuen lan desinteresatua oso lagungarria da proiektua aurrera eraman ahal izateko.
- Langileak: Bolumen jakin batetik gora langileak izatea beharrezkoa da, egunerokoaren kontrola izan eta zerbitzu on bat eskaintzeko prest daudenak.
- Finantzak: Finantzak zaindu, gastuak kontrolatu eta jasangarritasuna lortu. Epe luzera ideia eta pentsamoldeak indartzeko eta bermatzeko garantia da. Finantza onbideratuak izanez gero ideietan, ekintzetan eta zerbitzuan sakondu daiteke

### 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

Elkartean ez dugu adin eta belaunaldi desberdinetako pertsonak sartze aldera ekintza berezirik edo kontzienterik egiten. Egia da adin guztietako bazkideak ditugula, gazte, gurasoak haur txikiekin, helduak, jubilatuak, etab.

Orokortzea arriskutsua izan daitekeen arren, batzuetan helduen artean izaten da parte hartzeko erronka handiena. Kontsumoa egiten dute, hau da, azoka erabiltzen dute, baina parte hartzea gehiago kostatzen zaie.

Bestalde, gazteak iniziatiba gehiago izan dezakete baina bizi duten egoera dela eta, beraien ohiko kontsumoa baxua izaten da. Gazte asko gurasoekin bizi dira, edo nahikoa duinak ez diren lan baldintzak dituzte, ondorioz, produktu ekologikoak eta bertakoak erostea erronka izaten da.

Nire iritziz, askotan, osasunaren inguruko ardura adinarekin gehitzen joaten da, produktu ekologikoen kont-

sumoa etab. Agian gazteei beste mezu bat helaraztea komenigarria litzateke, beste antolaketa eredu bat, ahalduntzea, kontsumo arduratsua etab. bezalako baloreak transmitituz.

Kontuan hartzeko puntua bada ere, gaur egun ez dugu zehazki ekintza berezirik egiten honen inguruan.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Jasangarritasuna: alde batetik printzipio eta ideien eta bestetik arlo ekonomikoaren arteko oreka positiboa izatea. Ideia guztien atzean zenbakiak ondo erantzun beharra dute, batez ere jarduera ekonomiko bat bere baitan hartzen duen elkarte bat izanik, gure burua finantzatzeko gai izan behar gara. Oreka delikatua da eta momentu honetako erronka nagusia hau da.

Eguneroko martxa zuzena ahalbideratzeko kontuak onbideratuak izatea ezinbestekoa da. Proiektua eta baloreak oso interesgarriak badira ere, atzean egitura sendoa izatea oso garrantzitsua da, iraun ahal izateko.

Parte hartzea: Gaur egun antolatuta gauden moduan parte hartzea garrantzitsua da, herritarren arteko kohesioa lantzeko lanabes bat da elkartea. Parte hartze aktiboa erronka bat bada ere, garrantzitsua dela ikusten dugu. Hori izan ezean, elkartearen funtsa birplanteatu beharko genuke.

Erronka handia izaten ari da parte hartzea, ez auzolan lanerako soilik, baita bileretara bertaratzeko ere. Alde batetik, zuzendaritzatik, elkarteak berak antolaketa hobetu beharra du, auzolana eta partehartzea errazteko. Horretarako, egin daitezkeen lan motak eta parte hartzea handitzeko malgutasuna gehitzea birplanteatzen ari gara.

Inguruko denden bilakaera: Elkartea sortu zenean inguruan ez zegoen horrelako produktuak eskaintzen zituen alternatibarik. Gaur egun belar dendek produktu ekologikoen aldeko apustua egin dute eta dendak bihurtu dira. Inguruko lokalen bilakaerak elkartearen iraunkortasuna mehatxatu dezake, alternatiba ekologikoak edota lokalak nagusitzen joaten badira, gure lan esparrua txikitzeko arriskua izango litzateke.

Elkartea sortu zenean inguruan ez zegoen horrelako produktuak eskaintzen zituen alternatibarik. Gaur egun belar dendek produktu ekologikoen aldeko apustua egin dute eta dendak bihurtu dira. ”





# LAKARI: ELIKADURA ETA KONTSUMO JASANGARRIA LANTZEN

| | |
|---|---|
| **Lurraldea** | Zarautz (Urola Kostako eskualdea) |
| **Ardatz nagusia** | Kontsumo jasangarria, arduratsua eta osasungarria<br>Agroekologia<br>Formakuntza eta aholkularitza |
| **Erakunde mota** | Kooperativa |
| **Jarduera sektorea** | Zerbitzu sektorea (txikizkako salmenta) |
| **Web orria** | www.lakari.eus |

## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Kontsumo-eredu jasangarria eta arduratsua, tokiko laborantza iraunkorraren biziberritzea eta elikadura osasuntsua sustatzea, bertako garapenean eta inguru hurbilenean eragin positiboa sortuta eta herritarrei kalitatezko, bertakoak, sasoikoak, osasuntsuak eta agroekologikoak diren elikagaiak prezio duinean eskainita. Horretarako hainbat jarduera ditugu: solteko eskaintzari garrantzi berezia ematen dion denda, etxera eramateko edo ekitaldietan gozatzeko mokaduak prestatzeko sukaldea, elikadurarako zein nekazaritzako aholkularitza, eta hezkuntzarako, ekintzailetza sozial eta kolektiborako zein eraldaketarako txokoa.

## 2. Tokiko eremua

Zarautzen kokatuta dago 4 emakume-bazkidez osatutako Lakari kooperatiba, Gipuzkoako Urola Kosta eskualdean. Urola Kostako eskualdea 11 udalerrik osatzen dute: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zestoa, Zarautz eta Zumaia. Horietatik 3 bakarrik dira herri txikiak; hiru herrik dute landa-herri izaera, Aiak, Errezilek eta Beizamak, hain zuzen ere. Aizarnazabal ere herri txikia izan arren, ez du beste hiru herriek duten izaera, ez baititu landa-herri baten ohizko arazorik. Beste multzo batean sailkatuko lirateke, herri handiak izan arren, landa-auzo ugari dituztenak. Hor, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa egongo lirateke. Gainontzeko herriek (Zumaiak, Aizarnazabalek, Zarautzek, Oriok, Getariak) landa-auzoak ere badituzte, baina ez aurrekoen maila berean.

## 3. Ekimen mota

Gure ikuspegia da laborantza iraunkorra eta elikagaien kontsumo arduratsua eta kontzientea eskualdean sustatzea, osasuntsuak eta jasangarriak diren elikagaiak herritarrei eskainiz eta tokiko ekonomia bultzatzen lagunduz. Xedea, berriz, erosketa-esperientzia pertsonalagoa, etikoagoa eta osasuntsuagoa eskainiko duen erosketa- zein heziketa-gunea, eta bertako ekoizleengandik hurbilago bizitzen lagunduko duen komunitatea sortzea da.

Helmuga horretara iristeko, ondorengo balioetan eta printzipioetan oinarritzen da Lakari kooperatiba:

- **Bertakoa eta garaikoa:** Pbatetik, merkaturatze-zirkuitu laburra sustatzen da, hau da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko hurbiltasuna bultzatzen da, ekoizpen-katean harreman zuzena eta ahalik eta bitartekari gutxien izatea bilatuta. Bestetik, nekazaritzako egutegira eta errealitatera egokitzen saiatzen gara. Betiere elikadura burujabetzaren filosofian oinarrituta.

- **Osasungarria: :** produktu ekologikoek eta garaikoek, eta agroekologiaren printzipioek oinarri gisa balio digute bizimolde osasungarriago baten garapenerako. Beraz, elikagai osasuntsuak, zaporetsuak, naturalak, kalitatekoak eta toxikotasuna ekidin egiten dutenak eskainiko ditugu.

- **Iraunkorra eta Jasangarria:** Etengabeko hazkunde eta kontsumo materialean funtsatu den garapen ereduaren ordez, planetaren mugak onartuko dituen eredu aberasgarriago bat sustatzeko ahalegina egingo dugu.

• **Kooperatiboa eta komunitarioa:** auto-eraketaren bidetik, pertsona zein komunitatea izango da bere etorkizunaren protagonista, sortzaile eta gidari. Eta protagonista eta eraikitzaile izateko denon parte-hartzea ezinbestekoa da. Hala, Lakari kooperatibaren kudeaketa bertako langileen partaidetzan eta ekimenean oinarritzen da. Hortaz, pertsona aktibo eta inplikatuen esku dago enpresaren gidaritza, hots, enpresaren politika eta helburuak bertako kide guztien artean erabakitzen dira. Beraz, proiektu autonomoa da, funtzionamendu propioa duena. Gainera, askatasun pertsonaletik eta elkarlanetik abiatuta, gaitasun eta botere indibidualak komunitatearen interes orokorrari eskaintzen zaizkio.

• Lankidetzak, bestalde, elkarrenganako **konfiantza, errespetua** eta elkartasuna ditu oinarri: nork bere eginkizunak erantzukizunez betetzen ditu, partaide guztiak lagun eta laguntzaile izanik. Baina gure jarduera ekonomikoaren baitan elkartasun eta lankidetza komunitarioa ere sustatzen da. Gure proiektua, azken finean, eskualdeko ekimen desberdinen arteko elkarlana sustatu eta baliatuko dituen proiektu **bizia, dinamikoa, irekia eta anitza** izango da, herritarren parte-hartzea bultzatuko duena, eta beraien desioetara eta beharretara egokituko dena.

• **Ekintzailea eta profesionala:** Lakari osatzen dugun diziplina anitzeko taldeak (nekazaritzan, elikagaigintzan, dietetikan, agroekologian adituak eta enpresa-kudeaketan esperientziadunak) balioa erantsiko duten zerbitzuak eta proiektuak lortzeko egiten dugu lan, gure ekintzetan **gardentasuna, kalitatea, konpromisoa** eta aplikagarritasun kontzeptuak ezinbestekotzat hartuta. Horretarako, langileok beharrezko esperientzia eta ezagutzak izango ditugu, **sormenerako, gozamenerako**, erabakiak egoki hartzeko eta garapen pertsonalerako ingurune egokia bermatuta.

## 4. Jarduera sektorea

• **Denda**: Bertako produktuak, garaikoak, (agro) ekologikoak, bidezko merkataritzakoak... Eskaintzen dira

• **Sukaldea:** Elikadura osasungarria, garaian garaiko eta elikagaien aprobetxamendu optimoa oinarri hartuta, denetariko jaki prestatuak prestatzen dira, dendan bertan saltzeko edo ekitaldietarako.

• **Laborantza-aholkularitza:** Agroekologiaren irizpide ekologikoetan oinarritutako agroekosistemen diseinua eta kudeaketa jasangarriak lehenetsiz, nekazaritza arloko hainbat zerbitzu eskaintzen dira.

• **LakariLab/ Espazio eraldatzailea:** Bai kontsumitzaileari, bai eragileei, bai gaian interesa duen beste edozeini elikadura eta kontsumo jasangarriak lantzen lagundu nahi diegu; bidea elkarrekin egin nahi dugu, parte-hartzean eta lankidetzan oinarrituta, eta ekintzailetasun kolektiboa sustatuta. Horregatik, norbanakoekin eta erakunde publikoekin (Udalak, Lanbide...) zein pribatuekin (ikastetxeak, zaharren egoitzak, eragile sozialak) lanean hasi gara hainbat zerbitzu eskaintzeko: sukaldaritza arduratsuko ikastaroak eta tailerrak, dastaketak edo ekoizleengana bisitak, baserritarrentzat ikastaro teknikoak, ingurumen-heziketa nekazaritza, basogintza eta natura baliabideen inguruan. Honetaz gain, Olatukoopeko kideak garenez, ekonomia sozial eraldatzailearen hedapenerako formazio zein beste ekimenetan parte hartzen dugu modu aktiboan (ekintzailetza sozial eta kolektiborako formazioa, merkatu sozialetan parte hartzea...).

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Lakariren ideia sortu zen momentutik, harreman-sare sendo bat sortzea izan da helburua, bai elikagai-ekoizleekin, ekoizle-sareekin edota bestelako elikagai proiektuekin (EreinDaJan, Bidazi, Karabeleko, etb.) bai administrazio publikoarekin (landa-garapeneko elkartearekin, Zarauzko Udaleko nekazal- zein hezkuntza sailarekin), bai herri-eragileekin (Zarautzko Errigora taldea, esaterako), eta, noski, ekonomia sozial eta eraldatzaileko eragileekin Olatukoop saretik abiatuta. Batik bat, garrantzitsua izan da, hasieratik Olatukoopeko kideen artean sortu den interkooperazio-sarea.

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

- Diziplina aniztasunak erresilientziarako aukera izugarria eskaintzen digu.

- Antolaketa eta funtzionamendu egokiak, proiektua iraunkor bihurtzea ahalbidetzen du. Bizi-proiektu bezala identifikatzen dugu Lakari.

- Demokrazia ekonomikoak (langile bat, bozka bat), pertsona autonomo eta aske izateko aukera izugarria da, erabakitzea eta parte-hartzea bermatuta baitaude.

- Interkooperazio-sareak hasieratik eraikitzea eta proiektuan zehar sare hori handitzen joatea. Lurraldearekiko eta komunitatearekiko loturak proiektuaren eta proiektuan parte hartzen dugun iraunkortasunean eta bizigarritasunean laguntzen du.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

- Elikadura eraldaketarako tresna eraginkorra da.

- Erosketa-esperientzia pertsonalagoa eta etikoagoa eskainita, pixkanaka bezeroen eta komunitatearen kontsumo-ereduan kontzientzia-aldaketa ematen ari da.

- Catering jasangarria eskaintzeko aukera sortu zaigu, eta horrek agroekologian, elikadura burujabetzan, eta, oro har, Ekonomia Soziala eta Eraldatzailean dabiltzan eragileekin harremanak sendotzea eta komunitatea sortzen lagunduko digu.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

- Bideragarritasun ekonomikoa soilik bilatzen badugu, Lakariren izaera/printzipioak alde batera uzteko arriskua dago.

- Inbertsio ekonomikoa duen proiektua denez, eta gaur egun gertatzen diren etengabeko aldaketek, etengabeko sorkuntza eta dinamismo beharra dakar, egitasmoaren bideragarritasuna lortzeko. Eta horrek, eragin zuzena da gure bizitzetan (erritmo altuak, denbora falta...). Hori ez dator bat bizitza erdigunera ekartzearekin.

- Taldekideen arteko gatazkek, pentsamendu edo helburu aldaketek, eta konpromiso faltak, proiektuan eragina izan dezake. Gatazkak bideratzeko ezagutza falta, arrisku handia izan daiteke, eta baita komunitatean, behar denean, laguntza ez eskatzea ere.





## SARETUZ: DONOSTIAKO KONTSUMO KONTZIENTE, ARDURATSUA ETA ERALDATZAILEKO SAREA

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Donostia - Gipuzkoa |
| Ardatz nagusia | Kontsumo arduratsua |
| Erakunde mota | Elkarteen sarea |
| Jarduera sektorea | Hezkuntza, Kultura baloreetan, Merkatu soziala |
| Onuradun zuzenak | Elkarteak, auzoak, denda txikiak, administrazio publikoa, hiritarrak |
| Boluntario kopurua | 14 pertsona (%78 emakumeak) |
| Ereduaren printzipioak | Kontsumo kontziente eta arduratsua |
| Web orria | www.saretuz.eus<br>www.mapasaretuz.eus<br>www.facebook.com/saretuz<br>www.twitter.com/Saretuz |



## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Kontsumo kontzientea, arduratsua eta eraldatzailea. Lurraldean dauden ekimenak ikustera eman. Sarea ehundu

## 2. Tokiko eremua

Donostia, Gipuzkoa

## 3. Ekimen mota

SARETUZ ELKARTEA – kontsumo kontziente, arduratsua eta eraldatzaile baterako sara da. Eraldaketarako eta emantzipaziorako hezkuntzako ekimen bat da, Donostiako edota Gipuzkoako 14 ekimenez osatuta eta Kontsumo kontzientea, arduratsua eta eraldatzailea lantzen eta sustatzen dute.

Sarearen **helburuak** dira:

• Kontsumo kontziente, arduratsua eta eraldatzailearen garapena eta sustapena, gizartearen eraldaketa bilatzen duten proposamen kolektiboak sendotuz, jasangarriagoa den giza garapen baten ikuspegitik, komunitatean dauden erosketa jasangarriko, arduratsuko eta solidarioko tokiko aukeren inguruan ikustera emanez, sendotuz eta kontzientziatuz.

• Giza beharren asetasuna eta komunitatearen eta bere ingurunearen zerbitzura dauden kontsumo moduak sustatzen duten, esperientziak eta edozein izaera juridikoa duten entitateak koordinatu. Sare-lana, proiektu komunak gauzatzea eta beste entitateekin, sare sozialekin, instituzioekin eta oro har gizartearekin interlokuzio kolektiboa sustatzea, justizia, ekitatea eta iraunkortasunaren printzipioetan oinarrituz.

Kontsumo kontziente eta eraldatzailea eraikitzen duen kontsumo bat dela pentsatzea atsegin dugu, era berean, amesten dugun gizartean bizi ahal izateko funtsezko estrategia eta tresna bat da: bizitza erdigunea den gizarte bat eta ekonomia bere zerbitzura egotea, justizian, emakumeen eta gizonen arteko eta herrien arteko berdintasunean, elkartasunean, naturarekiko orekan, konpromisoan, lankidetzan, zaintzak banatuta dauden horretan… oinarrituta.

<u>Lan estrategia</u>
Gure estrategia bi lan lerrotan oinarritzen da:

Sentsibilizazioa, ikustera ematea eta ikaskuntza prozesuak. Hauek, sareko ekimenen artean modu parte-hartzaile batean eraikitako, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaileko ondorengo irizpideetan oinarrituz:

- Artisautza
- Berrerabiltzea
- Tokikoa
- Bidezko Merkataritza
- Ekologikoa
- Ekonomia Solidarioa
- Energia
- Finantza etikoak
- Hezkuntza
- Ingurumena
- Kultura
- Publikoa
- Software askea
- Trukea
- Berdintasuna



Ahalduntze eta ikaskuntza kolektiboko prozesua, sarean sustatzen ditugun baloreak praktikan jartzetik: gardentasuna, partaidetza, eko-menpekotasuna, lankidetza, entzute aktiboa, ekitatea, horizontaltasuna, zaintzak, aniztasuna, komunikazio ez bortitza, konfiantza, taldeko lana, atzeraelikadura, herri hezkuntza, ikuspegi kritikoa eta autokritikoa, umorea eta gozamena.

## 4. Jarduera sektorea

Saretuz sareak hezkuntza eraldatzailearen eremuan egiten du lan, barnera eta kanpora begira, Donostiako biztanleriara zuzendua.

Sarean ondorengo jarduera lerroak ditugu:

• Formazioa eta sentsibilizazioa Kontsumo Kontziente, Arduratsuan eta Eraldatzailean (KKAeE). Urteko jardunaldi bat burutzen da gai espezifiko baten inguruan, hausnarketako mahai inguruak, sareko ekimenen artean formazio kolektiboak, tailerrak eta hitzaldiak…

• KKAeEko tresnen eta materialen sorrera: APPa eta Donostiako KKAeEko kale-izendegi Weba, ekitaldi jasangarrien gida, hezkuntza eta sentsibilizazio bideoak, aldizkaria, kontsumoaren gaineko ikerketa Donostian…

• KKAeE barneratzeko aholkularitza; materialen berrikuspena, KKAeE jardueretan, ekimenetan… barneratzeko lantaldeetan parte hartzea.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Donostian urteetan zehar Kontsumo Arduratsuaren inguruan ekimen, jarduera eta formazio ugari izan dira eta Saretuz, Kontsumo Arduratsua sustatzen edota lantzen duten ekimen desberdinak ezagutzeko, koordinatzeko, indarrak elkartzeko eta sinergia sortzeko helburuarekin sortzen da. Bere ingurunearekin eta komunitatearekin hasieratik lotura zuzena du; elkarteak, auzoak, denda txikiak, administrazio publikoa, hiritar aktiboak… Partaidetza maila eta espazio desberdinen bitartez.

### 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

- Sare ireki bat da, sareko parte izateko lehenengo eta baldintza bakarra, sarearen dinamikan parte hartu nahi eta ahal izatea da.
- Aniztasuna, parte hartzen dugun ekimenak desberdinak gara baina guztiek dugu zerbait amankomunean: Kontsumo Arduratsua.
- Dibertsioa, hasiera hasieratik prozesuaz gozatzea gure egunerokotasunean barneratuta dago.
- Herri hezkuntza, ikaskuntzan oinarritutako hezkuntzako ekimen bat gara: jakintzen elkar trukaketa, eraikuntza kolektiboa, ebaluazio etengabe eta jarraia.

### 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

- Ikaskuntza kolektiboa, esperientzia bertatik eta beste errealitateetatik, tokikoak nahiz globalak.
- Sinergiak sortzea, sarearen ekimen desberdinen artean, kontsumo arduratsuari eta sareari kideko kolektiboen artean.
- Ahalduntzea, sarearen, ekimenen eta parte hartzen duten pertsonen ahalduntzea.
- Kontsumo arduratsua, kontsumotik haratago dagoen bizitza modu bat bezala ulertzea.

### 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

- Motibazioa galtzea eta desilusioa sarearen ekimenen aldetik.
- Sareak duen helburuaren galera.

Giza beharren asetasuna eta komunitatearen eta bere ingurunearen zerbitzura dauden kontsumo moduak sustatzen duten, esperientziak eta edozein izaera juridikoa duten entitateak koordinatu. Sare-lana, proiektu komunak gauzatzea eta beste entitateekin, sare sozialekin, instituzioekin eta oro har gizartearekin interlokuzio kolektiboa sustatzea, justizia, ekitatea eta iraunkortasunaren printzipioetan oinarrituz. ”



## SAN ANTONIO DE MACARÁ ERLEZAINEN ELKARTEKO ERLE-EZTI EGILEAK. MIEL DEL BOSQUE SECO.

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Lagua Komunitatea, Loja probintzia (Ekuador) |
| Ardatz nagusia | Garapen sozio ekonomikoa<br>Ingurumena<br>Agroekologia |
| Erakunde mota | Elkartea |
| Onuradun zuzenak | Erle-ezti ekoizpena eta merkaturatzea |
| Ekoizle kopurua | 17 familia |
| Ereduaren printzipioak | Garapen sozio ekonomikoa<br>Lurraldearekiko lotura<br>Ingurumena eta lurrarekiko errespetua<br>Gizarteratzea<br>Partaidetza |

### 1. Tokiko Eremua

Ekimen hau Canton de Macará-ko Lagua komunitatean garatzen da, Ekuadorreko hegoaldean.

### 2. Ekimenaren ardatz nagusia

San Antonio de Macará Erlezainen Elkarteak, ezti-erle egiteko lantegiaren bitartez, bere jarduera eremuan gizarte eragin garrantzitsu bat lortu du.

Ekimen honen helburu nagusiena, bazkideen garapen sozio-ekonomikoa eta ingurumen hezkuntza sustatzea da, gizartean egoera ahulean dauden familien bizitza baldintzen eta aukeren hobetzea bilatuz, lurralde artikulazio eta klima aldaketara egokitzen dagoen testuinguru batean.

Aurretik, erlezaintza familiako buruzagiei soilik lotutako praktika bat zen, baina egun, emakumeak eta gazteak (neska-mutilak) prozesuan barneratzea lortu da.

Erlategiak eta erle-eztiko lantegia baso lehorraren erreserbaren barruan kokatuta daude. Baso honek, mundu mailan modu hoberenean kontserbatuta dituen natura aberastasunetako bat gozatzeko pribilegioa du eta berriki, Biosferako Erreserba bat bezala onartua izan zen UNESCOren eskutik. Erlezaintza ekologikoaren praktika basoaren barnean sustatzen, nekazarien artean ingurumen kontzientzia bat sortzea lortu da. Erlezaintzak ez du eraginik sortzen, guztiz kontrakoa, erleek polinizazioa sustatzen dute basoan, modu horretan basoko espezien erreprodukzioa errazten du.

Era berean, erle-eztiaren kontsumitzaile nagusiak ekoizten duten familia horiek beraiek dira. Erle-eztia, dituen nutrizio ezaugarriengatik, immunologia sistema sendotzen du gaixotasunak prebenituz eta ondorioz, familientzat osasunean aurrezki bat osatzen du. Eztia biztanleriaren artean baloratua den produktu bat da, beraien bizitzen parte da eta denbora luzez erabilia izan da osagai nagusi bezala, aspaldiko medikuntza errezeta desberdinetan.



## 3. Ekimen Mota

San Antonio de Macará Erlezainen Erkartea 1995 urtean sortu zen eta 2014 urtean legez eraiki zen. Cantón de Macará-ko Laguar auzoan kokatuta dago, eta kantoiko sei auzoetako 17 familiaz osatuta dago. Erakunde hau Ekuadorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Mugimenduari, MESSE, artikulatuta dago.

Aurretik, erlezaintza sektoreko pertsonek praktikatzen zuten, baina norbanako moduan eta kantitate txikietan. Poliki-poliki, abantaila ekonomikoez gain ingurumen abantailak aurkezten zituen, eta polinizazioaren ondorioz nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenari onura ematen dion jarduera bat zela ikusirik, familia hauek modu asoziatiboan erle kaxak ezartzen ziren taldeak osatzen joan ziren, egun elkartea den horretara iritsiz. Garrantzitsua da aipatzea, ekoizpena ez dela %100ean indibiduala, familiak taldeetan antolatzen direlako uztan laguntzeko eta erlauntzak bisitatzeko, eta prozesamendua (lantegian egiten dena) eta merkaturatzea asoziatiboak dira.

Elkarteak garatzen duen lana hainbat baloreetatik gauzatzen da: adiskidetasuna, adostasuna erabaki hartzean, lidergoaren errotazioa, elkarrekikotasuna, naturekiko errespetua, elkartasuna, humanismoa eta konpromisoa eta talde-lana.

Ekimen honen helburu nagusia, Baso Lehorraren kontserbazioa sustatzen duten eta pertsona bazkideen garapen sozio-ekonomikoa sustatzen laguntzen duten erlezaintza praktikak garatzea da, erle-eztia eta bere eratorrien prozesamenduaren eta merkaturatze asoziatiboaren bitartez. Horretarako, lan estrategia nagusia inguruan erle-eztiaren ekoizpena sustatzea da familia moduan eta bilketa, prozesamendua eta modu asoziatiboan egindako merkaturatzea gauzatzeko espazio komun bat sortzea da, “baso lehorra” izendatutako marka baten izenean. Praktika hau inter-ikaskuntza etengabe batekin laguntzen da, ekoizleen esperientzietan eta jakintzetan oinarrituta eta lankidetza aliantzak ezartzearekin laguntzen da, erakunde-arteko mailan.

Zentzu honetan, erakundeak jakintzen elkarrizketak ezartzen diren topaketak / bilerak mantentzen ditu, kideek erlezaintzan beraien lan esperientziak partekatzen dituzte, positiboak zein negatiboak izan eta praktikak hobetzeko ikaskuntzak sortzen dira. Inter-ikaskuntzako beste espazio bat bertan dauden familien lursail desberdinetara egiten diren landa-bisitak dira, bertan behaketa zuzena eta elkarrizketa funtsezkoak dira.

## 4. Jarduera sektorea

Ekimena Cantón de Macará-ko bost landa auzoetan garatzen da, horiek Baso Lehorra osatzen dute, eta beraien jarduera eremu nagusienak tokiko garapen jasangarria eta ingurumen hezkuntza dira.

Egun eskaintzen diren produktuak dira: ontziratutako erle-eztia eta propolia. Zerbitzuei dagokionez, erlategien maneiurako gaikuntzan, bai elkarteko kide diren pertsonei bai hirugarrenei bideratuta, eta kutxatxo solidarioan oinarritzen dira, maileguak ematean datza, ekintzailetzara artikulatutako familien ordezkariei.

Eztia prozesatzen den lantegi bera da salmenta gune nagusia (horretarako espazio fisiko bat du). Horrez gain, produktuak Quito eta Guayaquil bezalako hiri handietan antolatuta dauden kontsumitzaile taldeei egindako salmenta zuzenaren bitartez ere merkaturatzen dira, talde hauei lehen produktua zuzenean bidaltzen zaie.



## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Ekimen honen bitartez, elkarteak lan loturak sortzea lortu du hainbat instituzio publikoekin: Macará herria, Lojako Lurraldeko Gobernua, Baso Lehorraren Mankomunitatea, Ingurumen Ministerioa eta Turismo Ministerioa.

Tokiko instituzio publikoek azpiegiturekin lagundu dute eztiaren prozesamendua (lantegia eraikitzea, ekipamendua, gaikuntza), produktuaren sustapena (komunikabideetan eta sare sozialetan hedapena egitea), baita merkaturatzean akonpainamendua egitea ere. Zentzu honetan, baso lehorraren mankomunitatera asoziatutako tokiko gobernuek erakundeekin batera, baso lehorraren zigilu bat eraikitzen ari dira. Zigilu horren esan nahia kontserbaziora eta ekonomia solidariora lotuta dago.

Ingurumen Ministerioaren eta Turismoa Ministerioaren bitartez, bere aldetik, ekintzailetza solidarioak tokiko ekonomia eta kontserbazioa sustatzen duten praktika bezala onartuak izan daitezen lortu da, eta akordioak finkatzen ari dira probintziaren gune turistikoen barruan aipatutako ekintzailetzak sustatzeko, landa-turismo komunitarioaren parte bezala.

Lotura hauek gobernuz kanpoko erakundeekin finkatu dira ere, Heifer Fundazioa eta Ecuasuiza besteak beste, lankidetza erlazioak finkatuz. Erlazio hauen bitartez erakundeak merkaturatzeko espazio propio bat izatea posible egin du. Horrez gain, instituzio desberdinen aldetik tokiko mailan egindako ekimenaren sustapenari esker, identitatea duen produktu bat sortzen da, kontsumitzaileekin emoziozko gerturatze bat izatea lortuz.

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

Elementu nagusiena pertsona bazkideen pertseberantzia izan da, prozesuak orientatzeko lidergo gaitasun egoki batez lagundua eta kudeaketa gaitasun ona izatea.

Bazkide bakoitza ekimenaren parte dela sentitzean, ekimenaren jabe, maila ekonomikoan ere konpromisoa hartu du, bere ekarpena nekez emanez erakundeak dituen helburuak bete ahal izateko.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

• Nekazari familietan kontzientzia sortzea lortu da, eko basoaren kontserbazioaren garrantziaren gainean.

• Lan sinergiak ezarri dira gunean dauden aktore desberdinen artean, tokiko garapen sozio-ekonomikoa eta ingurumena ardatz bezala duten sinergiak.

• Gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeekin lotura izateak, eztiaren prozesamendurako laguntza lortzea posible egin du, gaian adituak diren bideratzaileen kontratazioaren bitartez.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Mehatxu nagusienak klima aldaketa eta eztiaren kontrabandoa dira. Lehenengoak, ekoizpen kopuruan ezegonkortasuna sortzen du eta ondorioz hornikuntzan ere; eta bigarrenak, Perurekin mugan egotearen ondorioz eta ekitatiboa ez den konpetentzia sortzen du.



# FACES DO BRASIL: RIO DE JANEIRO HIRIKO AZOKA ORGANIKOEN ZIRKUITUA

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Río de Janeiro (Brasil) |
| Ardatz Nagusia | Agroekologia<br>Tokiko garapen sozio-ekonomikoa<br>Formazioa |
| Erakunde Mota | Gizarte zibileko erakunde eta botere publikoen arteko aliantza |
| Jarduera sektorea | Elikagai agroekologikoen merkaturatzea |
| Web orria | www.feirasorganicas.com.br<br>Fb:<br>ABIO Circuito Carioca de Feiras Orgânicas<br>Circuito Carioca de Feiras Orgânicas - Essência Vital<br>Circuito Carioca de Feiras Orgânicas - SMDEI |

## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Azoka Organikoen Carioca Zirkuitua, Rio de Janeiro hiriko udal gobernuaren politika publiko bat da. Politika hau ekoizleen erakundeekin aliantzan garatzen da eta bere helburua, hiriko biztanleei elikagai osasuntsuak eskuratzea bermatzea, pertsona ekoizleak eta pertsona kontsumitzaileen arte merkaturatze zuzeneko espazioetatik abiatuz.

Ekimen honek pertsona kontsumitzaileak eta pertsona ekoizleak balioan jartzen ditu aldi berean, jarduera oinarria Bidezko Merkataritza eta Merkataritza Solidarioaren printzipioak direlako. Era berean, politika publiko bat bezala ezaugarritu arren, beste alderdi garrantzitsu eta balioan jartzen den bat, ekimena parte hartzaileek diseinatzen dute (ekoizleen erakundeek eta azokak ospatzen diren auzoetako bizilagunen elkarteek), botere publikoarekin batera kudeatua izateko.

Zirkuituak auzo bakoitzean ekoizleen eta ingurune bakoitzak bereak dituen dinamiken artean, gerturatze espazioak sortzea bilatzen du, espazio publikoaren erabilera partekatuari errespetuz, azoka bakoitza auzoaren ondare bihurtuz. Zirkuituan lan egiten duten pertsona ekoizleen %80-%90 inguru familia nekazariak dira. Eredu honetan lehentasuna mota honetako eragile ekoizleen partaidetza, hori dela eta, ekoizle handiak parte hartzen duten kasuan, hau baldintza berdinetan garatzen da, ekoizle txikiei dagokionez.

## 2. Tokiko eremua

Ekimen hau Brasilgo bigarren hirigunean garatzen da eta hiriko pertsona kontsumitzaileak inguruko nekazari ekoizpenera artikulatzen ditu. Tradizional mailan, Rio de Janeiro hiria, zati handi batean, Brasilgo beste eskualdeetan lortutako elikagaiez hornitzen zen. Herrialdeko zati handi batean gertatzen denarekin alderatuz, ez dago nekazaritza estentsiboaren tradiziorik, eta elikagaien eskaera bat izan arren, pertsona bitartekarientzat prezio konpetitiboetara merkaturatzea posible egiten zuen egitura logistiko bat ez zen existitzen.

Laurogei hamarkada amaieran, merkaturatzeko bideak bilatzen zituzten 30 inguruko ekoizle talde bat hiriburuan modu kolektiboan merkaturatzeko elkartu ziren. Ekoizle talde honek elkarte bat osatu zuten (ABIO – Rio de Janeiro Estatuko Nekazari Biologikoen Elkartea) eta bere ekoizpenari irteera bat emateko alternatiba bezala, beraien produktuak saltzeko bide bat ezarri zuten estatuko hiriburuko biltegi batean, hau da, Rio de Janeiro hiriburuan.

1992 urtean Rio de Janeiron Eco 92 mundu izaerako ekitaldiaren ospakizunak, kontzientzia ekologikoaren hazkunde garrantzitsu bat posible egin zuen, elikagai osasuntsuen eskaerako gehikuntzan modu ikusgarriagoan irudikatu zelarik eta 1994ean Rio de Janeiro hiriko lehenengo azoka organikoaren sorrerarako espazio bat posible egin zuelarik, elkarte honen eskutik. Urteetan zehar hau izan zen mota honetako esperientzia bakarra eta bere hedapenerako bi muga nagusiei aurre egin behar zio: nagusiena, 2000 urteko hamarkadako eztabaida ekologikoaren hoztea izan zen, eta modu zehatzago batean, espazio publikoaren erabilera erregulaziorako mugak azoka gauzatzeko. Muga honek ez zuen azoka berriak gauzatzea baimentzen, tradizioz egitura handietan garatzen ziren azokak, 200 edo

300 merkatariekin eta botere publikoaren aldetik ahalegin handia eskatzen dutenak.

2009 urtean, hirian ekonomia solidarioko politika publiko bat ezartzearekin, elkarteak azoka berri finkoen sorrerako proiektu bat aurkeztu zuen, ekoizle beraiek kudeatuta, kontsumitzaileei ekoizpen organikoko eskaintza zuzenarekin. Proiektua egokitu behar izan zen lege mugen arabera eta plazetan izaera desberdinetako azokak sustatzea izan zen irtenbidea, mugimenduaren alterazio beharrik izan gabe, inguruko bizilagunekin negoziatutako espazioaren erabilerarekin eta botere publikoa, ekoizleak eta kontsumitzaileak barneratzen dituen kontseilu espezifiko batean partekatutako kudeaketa. Azoka hauek gauzatzeko araudi espezifiko bat ezarri zen, urte horretan bertan alkateak jakinarazitako Dekretu baten bitartez.

Ekimen honen arrakasta beste auzo batzuetako biztanleen kexa sortu zuen, ekimenak beste hainbat auzori erantzuten ez ziolako eta ondorioz, beraiek ere azoka berriak eskatuz beraien inguruan. Eskaera honek Dekretua berrikustera eraman zuen, alde batetik, azoken kopurua handitzea posible eginez eta beste aldetik, azoketako kudeatzaile taldea handitzeko beharra.

## 3. Ekimen mota

Rio de Janeiroko Azoka Organikoen zirkuitua, politika publikoa eta gizarte zibilaren ekimenaren arteko artikulazio bat da. Bere helburua elikagai osasuntsuak ekoizleen eskutik kontsumitzaileei zuzenean eramatea da, Bidezko Merkataritzaren eta Merkataritza Solidarioaren printzipioak sendotuz. Egun, 19 azoka dira izaera desberdina duten hiru ekimenek kudeatzen dituztenak: ABIO, ekoizleen elkartea; Essência Vital, ingurumenaren babeserako bokazioa duen GKE; eta Red Carioca de Agroecología Urbana, hiri testuinguruan nekazaritza jardueraren gorakada eta merkaturatze zirkuitu laburren sorrera sustatzen duten ekoizle sarea eta GKEk.

Botere publikoari dagokio azokak garatzen diren espazio publikoaren erabilera arautzea eta talde desberdinen (ekoizleak, azoken antolakuntza kudeatzaileak, bizilagunak) interesen bitartekaritza espazioak sustatzea. Azokaren erantzukizuna, hala ere, garraio, denda, kudeaketa, etab. kostuak beregain hartzen dituen antolatzailearen esku dago. Era berean, eskainitako produktuen ziurtagiriak, kopurua eta aniztasuna bezalako gaietarako parametro orokor batzuk ezartzen dira.

## 4. Jarduera sektorea

Azoka

Organikoen Carioca Zirkuitua elikagai organikoen ekoizpenean eta merkaturatzean jarduten du. Rio de Janeiroko hirigunean astero ospatzen diren azokak dira, egun hiriko 19 gune desberdinetan. Ekimenaren helburua, inguruko biztanleriaren eskaera erantzuteko produktu freskoen salmenta den arren, azoketan familia ekoizle beraiek prozesatutako produktuak ere eskaintzen dira. Produktu horien artean aurki daitezke: gazta, marmelada eta fruta zukuak edo azoka organikoan jarduten duten enpresek prozesatutako produktuak, arroza, kinua edo oliba olioa, besteak beste.

Produktu guztiak organiko bezala ziurtatuta daude brasildar legedian oinarrituz. Legedia honek ikuskaritza bidezko ohiko ziurtagiria aurreikusten du, baita bermeko sistema parte-hartzaileen bidezkoa ere. Bertan, nekazariak nukleotan antolatzen dira eta beraien bikoteen ekoizpena laguntzen dute, ziurtagiri organikoaren parametroen barruan.

Zirkuituak elikagai osasuntsuak hornitzen ditu, supermerkatuek baino prezio justu eta baxuagotan hiriko gune desberdinetako bizilagunei, ez bakarrik auzo aberatsei erantzunei, pobreagoak edo herrikoiagoak diren auzoei erantzunez ere.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Pertsona ekoizleen antolamendua, Rio de Janeiro hiriak, herrialdean gehien kontsumitzen duen bigarren estatua izan arren, nekazal produktuak gehienetan estatu kanpotik bereganatzen zituela adierazten zuen diagnostikotik abiatzen da. Bitartean, hiriko eta inguruko ekoizle txikiek zailtasun handien aurre egin behar zieten beraien produktuak saltzeko.

Ekimen honek hiri komunitateek, kontsumitzen diren elikagaien ekoizle txikiekin duten lotura sustatzen du, elkar trukaketa zuzeneko giro batean, modu horretan elkarren arteko ezagutza posible eginez. Era berean, ekimen honek garatzen den ingurunearen inguruan eragina izan du, oro har estatuan landatutako lurraren hedapenean eta zehazki Rio de Janeiro hirian.

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

Ekimena posible egiteko, ekoizleen antolakuntza prozesua funtsezkoa izan zen, beraiek izan ziren eskaera argi eta sendo bat udal instantzietara eraman zutenak. Era berean, Ekonomia Solidarioa Departamentua irekitzea giltzarri izan zen ere, ikuspegi argi bat zuen saila eta elikadura segurtasuna eta burujabetza bezalako gaien babesaren eta auto-eratutako ekoizle erakundeen babesaren aldeko apustu egiten duen saila.

Ingurumenaren kontzientzia handitzea, organikoen gaineko legea onartzea eta agrotoxikoen eta transgenikoen kontsumoak sortutako kezkak demanda sendo bat sortu du mota honetako produktuen aurrean. Kontutan hartu behar da ere, kontsumitzaileei salmenta zuzena egiteak prezio baxuagoak jartzea posible egiten du, biztanleriaren sektore zabalagoei elikagai osasuntsuak eskuratzeko aukera emanez.

Ekimen honetan funtsezkoa da ere, bizilagunen elkartearekin negoziazio espazioak zaintzea. Gobernu aldaketa bat ematen den bakoitzean edo kudeaketa berean jarduera lerro aldaketa bat ematen denean politika publiko baten iraunkortasuna mehatxatuta dago. Azoka hauen inguruan biztanleriaren eskaera sendotasun garrantzitsu bat da iraunkortasun hau gauzatzeko eta aldaketa esanguratsuak ekidin egiteko.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

Ekimen honetatik sortutako aukera nagusietako bat ekoizpen organikoaren hazkuntza izan da, bai hirian bai estatuan ere. ABIO eremuan soilik hazkunde hori oso esanguratsua izan da. hasieran ziren 30 pertsona bazkideetatik egun diren 500 baino gehiagora pasatuz.

Horrez gain, esperientzia honen izaera bera errepika erraza izateagatik nabarmentzen da, ez bakarrik hiriguneetan, hiri txiki eta ertainetan ere, hirigune handietan gertatzen den bezala, eredua azoka txikiak gauzatzetik abiatzen da, asteroko maiztasuna duen gertuko ingurune bati erantzunez. Egun, Rio de Janeiroko estatuan soilik, elikagai organikoen asteroko azokak dituzten gutxienez 6 hiri daude.

Ekimenaren lorpen nagusienetako bat, hiri familiak landa ekoizpenaren errealitatera gerturatzeko aukera da. Brasilen ematen ari den landa despopulatzearen kontrajarriz, bereziki biztanle gazteen aldetik, balio erantsi gehiago duen ekoizpen bereiztu bati dedikazioa eta salmenta prozesuan zuzenean ekiteko aukerarekin batera, familia guzti bat bertan egoteko lan eta diru sarrera eskaera bat sortzen du, alde batetik. Beste alde batetik, bereziki pertsona gazteen kasuan, ikasketak eta kualifikazioa (agronomia, salmentak, kudeaketa, gastronomia eta besteak) eskatzen duen eta gizarteak aldetik ongi balioztatua dagoen, lan bat burutzeko aukera bat da.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Ekimenak aurrera egiteko agertzen den arrisku nagusietako bat, Dekretuz (Alkatearen borondatez sortutako edo baliogabetutako mekanismoa) finkatutako eta Idazkaritza Berezi (hau ere Alkatearen borondatez sortutako edo baliogabetutako mekanismoa) batek koordinatutako politika publiko bat izatean, borondate politikoaren edota udal gobernuko karguak betetzen dituzten pertsonen ikuspegi estrategikoaren menpe dago.

Ekimen honek aurre egin behar dion mehatxuen artean, hiri eta landa gunearen nekazariaren onarpen eza dago, Rio de Janeiro hirian bertan. Honen ondorioz, hiriko ekoizleek familia nekazaritzara bideratutako ekoizpenerako laguntza mekanismoak eskuratzeko oztopoak dituzte, hirikoek kostuen murrizketa galaraziz eta lehiakortasuna murriztuz.

Hiri gune handi batera orientatutako politika bat izateagatik, partaidetza eskaera berak esperientzia hau masifikatu lezake. Hala ere, hazkunde jasanezin bat ezin daiteke gertatu pertsona ekoizleekin ezarrita dagoen aliantza dela eta. Esperientzia masifikatuko balitz, salmenta zuzenaren ondorioz sortutako ezaugarri nagusietako bi galduko lituzkete, bitartekotzarik gabe salmenten irabazi hobea eta kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko erlazio zuzena, besteak beste. Era berean, masifikazio posible batek hainbat arrisku sor ditzake: produktuen jatorri bermearen kontrol galera, egungo ereduak ekoizleen eta azoken kudeaketako egituren arteko erlazio estu bat ziurtatzen duelako; ekoizle txikien ikuspegi galera. Ekimenean parte hartzen duten gehienak familia nekazariak dira, baina ez guztiak. Egun, azoketan parte hartzen duten ekoizle handienek, kostu eta prezioetan berdin egiten dute ekoizle txikiekin lehiaketako espazio justu batean, ondorioz, egoera hau mantentzeak arreta espezifiko bat eskatuko luke ekimena handituz gero.



# CRISTINA ENEA: HAZIERA PROIEKTUA, TOKIKO BARATZE-BARIETATEEN ELKAR TRUKAKETA ETA NEKAZARITZA EZAGUTZAREN BERRESKURAPENERAKO EZAUGARRIAK

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Gipuzkoa |
| Ardatz nagusia | Ingurumena<br>Agroekologia<br>Formazioa eta sentsibilizazioa |
| Erakunde mota | Donostiako Udaletxeak sustatutako fundazioa, hiriko ingurumenaren politiketan erreferente bat izateko helburuarekin |
| Jarduera sektorea | Zerbitzuen sektorea |
| Web orria | www.cristinaenea.eus/haziera<br>Twitter @cristina_enea<br>Facebook: @cristinaeneafundazioa<br>Youtube: Cristina Enea<br>Instagram: cristina.enea |



## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Tokiko barietateek, baloratua izatea merezi duen nekazal eta gastronomia ondare bat osatzen dute. Gure sustrai kulturalen parte bat bezala baloratzeaz gain, nekazaritza ekologikoa bat praktikan jartzeko elementu garrantzitsu bat bezala baloratzen da ere. Haziak betidanik izan dira guztien ondare baina egun, enpresa transnazional handiek kontrolatutako ekoizpeneko bitarteko batean bihurtu dira. Hori horrela izanik, nekazariak beraien jarduerarako funtsezkoak diren baliabide batez eta eskubide batzuez desjabetuak izan dira. Ondorioz, laboratutako bioaniztasunaren kontserbaziorako lan egiten duten erakundeek, tokiko barietateak komunitate eremuan mantentzea azpimarratzen dute.

Haziek bizi berri bat sortzeko gaitasuna badute, gure hazien elkar trukaketak ikaskuntza kolektiboko prozesu bat sor dezake, bizi garen munduaren inguruan hausnarketa egiten eta guk biosfera berarekin dugun erlazioa berriz definitzen lagunduz.

## 2. Tokiko eremua

Gipuzkoa

## 3. Ekimen mota

Haziera haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko leku bat bezala konfiguratzen da. Laboratutako bioaniztasunaz eta eskala txikiko nekazaritzaren mantenuaz kezkatzen diren pertsonen eta erakundeen arteko topagunea. Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen

Etxeko hazien artxiboak leiho bat irekitzen dio, egungo nekazaritzaren eta elikaduraren egoeraren gainean hausnarketetarako eremuari.

Hazierako haziak edozein pertsonarentzat daude eskuragarri, bere baratzean landatu nahi duen edonorrentzat eta funtzionamendua oso erraza da. Artxibotik haziak eskuratzeko interesa duten pertsonek, Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxera joan behar dute eta han "Zaintzaile fitxa" bete behar dute. Ondoren, hartu nahi diren hazien lagin txiki bat hartzen da eta hazi hauetako bakoitzeko "Jarraipen fitxa" bat jasotzen da. Jarraipen fitxa hauek laborantza zikloan zehar bete behar izango dira eta barietate horren inguruko informazioa jasotzeko aukera izango da.

Gure baratzean haziak lortu direnean, horien lagin txiki bat artxibora itzuli behar da, horrela, gure bilduma bizirik mantentzen dugu modu kolektiboan. Norbaitek artxibora hazi berri bat ekartzen badu "Sarrera fitxa" bete behar du.

Aurten Haziera proiektuak 4 urte betetzen ditu, hazien artxiboan gordeta dauden hazien kopurua lau aldiz biderkatu da, egun dauden 101 lagineko kopurura iritsiz. Era berean, bere programazioa urtetik urtera handitzen doa -tailerrez, ibilaldiez eta hitzaldiez beteta-, hazien, nekazal bioaniztasunarekin eta oro har agroelikadurako gaiekin erlazionatutako gaiak landuz. Jarduera hauen artean urtero irteera bat antolatzen da, Haziera proiektuko jardueretara nolabait lotuta dauden esperientziak ezagutzeko. Hazien gaia bereziki lantzen diren hainbat lursail ekologiko bisitatu dira (Lezo, Hernani, Beizama…), Igeldoko Metereologia Behatokira ere bisita bat gauzatu da, bertan behaketa fenologikoarekin lan interesgarri bat garatzen dute.

## 4. Jarduera sektorea

Hazien artxiboak, hazien erreprodukzioa, landa ingurunearen, nekazaritzaren eta elikaduren inguruko hausnarketara bideratutako beste jarduerekin erlazionatutako formazio jarduerak konbinatzen ditu. Artxiboaren jardueren egutegia hazien elkar trukaketekin bat egiten du. Jarduera bakoitza amaitzen denean hazien elkar trukaketarako epe bat irekitzen da, era berean, epe horretan, baratzearekin eta haziekin erlazionatutako zalantzak eta esperientziak partekatzen dira. Haziera proiektuaren saioetan elkar trukatzen diren haziak lurralde guztian zehar sakabanatzen dira. Parte hartzen duten pertsonek hazi hauek laboratzen dituzte, bai beraien terrazetan edo beraien baratzetan, Hazieran sortzen den laboratutako bioaniztasun honen aberastasuna handituz.

Hazierako lehentasunezko helburuetako bat, hazien erreprodukzioarekin erlazionatutako formazio baliabideak eskaintzea da. Zentzu honetan, 2015 urtean Azpeitiako Udaletxearekin batera "Hazien erreprodukziorako eskuliburu txikia" argitaratu zen, bertan Hazieran lantzen diren oinarrizko edukiak barneratuta daude.

Beste alde batetik, Haziera proiektuak haziekin erlazionatutako gizarte eta kultura alderdietara lotutako jarduera multzo bat garatzen ditu. Ildo honetan, haziak protagonistak diren historia txikiak jasotzen dituen dibulgaziozko testu bilduma bat sortu dugu. Bildumak Telecoria izena du, landareek beraien haziak sakabantzeko duten gaitasunari erreferentzia egiten dio kontzeptu botaniko bat. Izenak metafora bat izan nahi du, testu hauen bitartez Hazierako haziak "sakabanatu" nahi dira, burututako jardueretatik haratago. Bigarren liburua, "Bidaia koadernoak. Haziei buruzko pasarte eta ohar historikoak" izenburua du eta digital formatuan aurretik argitaratutako Telecoria bildumako hiru liburukiko bilduma bat da, oraingo honetan paperan egindako edizio txukun batean atera dira kalera. Liburuan, haziek kontatzen dizkiguten pasarteek iraganeko garaietara eta leku exotikoetara eramaten gaituzte, pertsonaia historiko handiekin eta hamaika pertsona anonimorekin; elkartasun ekintzak gerrako kronikekin gurutzatzen dira eta nekazarien lan neketsua komunitate zientifikoaren zeregin arretatsuarekin txandakatzen da. Liburua hiru zatitan banatzen da: Haziak nola mugitzen diren; Korsarioez eta haziez; eta Hazi pozoitsuen arrasto kezkagarria.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Hazierako haziak zaintzen dituzten pertsonak, artxiboko haziak erreproduzitu eta kontserbatzeaz arduratzen dira. Baratzearen ezaugarrien eta dagoen denboraren arabera, zaintzaile bakoitzak barietate kopuru jakin bat mantentzeko eta lortzen dituen hazien parte bat artxibora itzultzeko konpromisoa hartzen du. Zaintza lan hau egiten dutenek eskura dute artxiboaren dokumentazio teknikoa eta lantegi parte-hartzaileak, bertan interesa duten gainerako pertsonekin beraien zalantzak partekatu ditzakete. Edozein zalantza kontsultatzeko artxiboaren harremanetarako posta ere badute: cristinaenea@donostia.eus





## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

Proiektuaren gako garrantzitsuenak, laborantza ekologikoko tokiko barietateen inguruko eta erabilera eta laborantza tradizionalen inguruko informazio handiago bat eskatzen duen, laboratzera animatu den (hiri, hiri inguruko eta etxeko baratzeak) eta goraka doan biztanleria baten artean dagoen behar bati erantzutea da. Pertsona asko barietate estandarren laborantzatik ihes egiten dute, merkataritza-enpresek merkatuan jartzen dituzten horietatik eta baratze-barietate desberdinen berreskuratze soziala behar dute, horrek daraman nekazari, gizarte eta kultura bioaniztasunaren gorakadarekin. Horrez gain, proiektua hazien sare desberdinekin koordinatzen da, inguruko hazi berriak eskuratzea posible eginez eta horietara asoziatua dagoen ezagutza posible eginez ere.

Zehaztutako erronka berrietako bat, Gipuzkoan laboratutako bioaniztasunaren egoerarekin lotuta dauden ikerketa proiektuak burutzea da eta proiektu berriren bat hastea beste erakundeekin eta instituzioekin lankidetzan nazioarteko mailan.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

Garatu den aukera bat ekimena sarean izan duen garapena eta beste lurraldeekin harremanen hedapena izan da, baita mugaz bestaldeko lurraldeekin ere, baratze-frutagintza auto-ekoizpeneko jardueren gauzatzerako tresna eraginkor bat izateaz gain, esperimentazioa eremu honetan; baliabide naturak modu ekologikoan maneiatzean sakontzea aukera bat da, gizarte ekintza kolektibo edo komunitarioko moduen garapenerako.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Azken hamarkadetan nekazal industrializazioak, klimarekiko izan dituen inplikazio garrantzitsuez gain, ongarri kimikoen erabilera gora egin du, ekosistemetatik sakabanatzen eta inguruko lurrak kutsatzen dituen bitartean. Horrez gain, hazi transgenikoekin ustiapenen garapen posible horrek, Hazieran bildutako hazien barietateak erabiltzen diren laborantza ekimenetan alboko eraginak sor dezake, gutxi ezagutuak diren baina merkaturatzeko ahalmen handia duten barietateen pribatizazio genomikoarekin batera.

# PROGRAMA BRASIL MUNDUKIDE FUNDAZIOA

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Brasil, Rio Grande do Sul |
| Ardatz nagusia | Tokiko garapen sozio-ekonomikoa<br>Agroekologia<br>Genero ekitatea |
| Erakunde mota | Kooperatiba |
| Jarduera sektorea | Arroz ekologikoa, esnea eta baratzeko produktuen ekoizpena eta merkaturatzea |
| Onuradun zuzenak | 3.324 gizon eta emakume (%30 emakumeak) |
| Ekoizle kopurua | 3.324 gizon eta emakume (%30 emakumeak ) |
| Web orria | https://www.facebook.com/cootap.arroz.terralivre |

## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Porto Alegre-ko Eskualdeko Giza Kokaguneko Langileen Kooperatiba (COOTAP) sozio-ekonomiko eremuan auto-eraketa eta lankidetza sustatzen dituen ekimen bat da, Brasilen MST mugimenduan giza kokaguneko gizon eta emakumeen bizitza baldintzak garatzeko eta hobetzeko bide bezala. Landatik kanporatuak izan diren herri mugimendu bat da eta lurraren, nekazari erreforma eta gizarte eraldaketaren alde borrokatzen du. (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra)

Ekimena, iraultzak berdeak inposatutako nekazariaren autonomia bermatzera -segurtasuna eta elikadura burujabetza bermatzeko elikagaien ekoizpena- eta eredu produktibistaren gainditzera bideratuta dago, agroekologian oinarritutako beste ekoizpen eredu batera pasatuz eta modu honetan, ekoizpen-dibertsifikazioa eta gizakia naturarekin duen interakzio armoniko bat hautatuz.

## 2. Tokiko eremua

Kooperatiba Brasil Hegoaldeko eskualdean kokatuta dago, pobreziak markatutako landa ezaugarri bat eta bizitza duin baterako lurraren gainditze eta laneko jarrera bat duten nekazari txikiez osatuta.

Hala ere, hedapen handietan (latifundioetan) commoditiesen (soia, azukre kainabera, artoa, tabakoa, kotoia, etab. bezala) laborantzak, nagusiki esportaziorako diren laborantzak, sortutako ingurumen eragin handiek eraso egiten diote eskualdeari. Agronegozio bezala ezagutzen den nekazaritza eta abeltzaintzako garapeneko eredu bat da eta bere helburua, ekoizpena maximizatzea da, gizarte eta ingurumen eragina kontutan izan gabe, eta inguruko nekazari komunitateen elikadura burujabetza eta segurtasuna bermatu gabe.

Eskualdeko gizartea gaztea eta indartsua dela nabarmendu behar da, biztanleriaren %38,95 25 urte beherako pertsonak dira. Baina, giza kokaguneetako gazteriak eta emakumeek ez dute maila ertaineko ikasketak ezin dituzte burutu eta ekimen ekonomiko-produktiboak hasteko eta kudeatzeko formazio aukerak urriagoak dira oraindik.

MST mugimenduak gizonen eta emakumeen sektore guztietan partaidetza paritarioa sustatzen duen politika bat du ezarrita. Brasildar gizartearen eta kulturaren egiturak eta pentsamoldeak, aldiz, ez dute laguntzen helburu hau lortzera. Oro har, genero desberdinkeriak, gainera, landa guneetan larriagotu egiten dira, kultura eta tradizioa itxiago eta estatikoagoak diren gune horietan. MSTaren genero sektoretik aurrerapen esanguratsuak lortu diren arren, ibili behar den bidea oraindik luzea da, giza kokaguneetan eta kanpamenduetan kultura aldaketak barneratu eta sustatzeko.

## 3. Ekimen mota

COOTAP bigarren mailako kooperatiba bat da, Rio Grande do Sul estatuko 40 giza kokagunetako 3.324 gizon eta emakume biltzen ditu. Bere helburua, bazkide kolektiboarentzat bizitza baldintza hobeak eskaintzea da, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenaren garapenaren, zerbitzuen eskaintzaren eta beraien produktuei balioa gehitzearen bitartez. Nekazal Erreformaren giza kokaguneetako kooperatiba eta elkarte produktibo desberdinen artikulazio honek, giza kokagune desberdinetan dauden gizon eta emakumeen arteko lankidetza errazten eta sustatzen du.

Bere lan estrategiak ondorengo alderdietan oinarritzen dira nagusiki:

- Elikagai osasuntsuen ekoizpena, elikadura burujabetza, errenta sorrera eta kokatuta dauden familien bizitza baldintzen hobekuntza bilatzera bideratuta.

- Agroekologiaren garapena, elikagaien ekoizpenaren erlazio sozial berriak ezarriz, bizitzaren aldeko errespetua eta naturarekiko oreka oinarri hartuta.

- Nekazal lankidetza, ekoizpenean lankidetza moduak estimulatuz, bilketa, eraldaketa eta merkaturatzea eta baldintza objektiboak (kapitala, pertsonak eta ahalmen produktiboa) eta subjektiboak (kontzientzia, kultura eta antolakuntza gaitasuna) egokituz giza kokagune bakoitzean.

## 4. Jarduera sektorea

Kooperatibak burutzen dituen jarduerak arroz ekologikoa, esnea eta baratzeko produktuen ekoizpena eta merkaturatzea dira. Arroza jarduera nagusia da (%50) eta baratzegintza eta esnea bigarren mailan daude (%35 eta %15 hurrenez hurren).

Horretarako, COOTAPek bere bazkideei zerbitzu desberdinak eskaintzen dizkie, arroz hazientzat mailegua edo nekazari tresneria erabiltzea, ekoizpen agroekologikoan aholkularitza teknikoa, etab. Ondoren, kooperatiba biltzeaz, balioa gehitzeaz (garbiketa, ontziratzea, etab.) eta merkaturatzeaz arduratzen da, normalean pertsona bazkideen edo kokaguneetan dauden pertsonen seme-alaben bitartez burutzen da.

Merkaturatzeko bide nagusiena elikagaien erosketako programa publikoak direla nabarmentzea beharrezkoa da, PAA (Elikagaiak eskuratzeko programa) eta PNAE (Eskola elikadurako programa nazionala). Aipatutako Programa Nazional horietan, eskolen elikagaien erosketaren %30 familia nekazaritzatik etorri behar duela zehazten da, bai estatuko bai herriko eskoletan.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Portoalegreko metropoli-eskualde handian ezarrita dagoen ekimen bar da, hiri jarduerak argi nagusitzen direlarik. Hala ere, landa espazioak tokiko eta eskualdeko garapena sendotzea lortu du nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena mantenduz (arroza, esnea eta baratzeko produktuak), lurraldeko eremu zabal batean.

Abiapuntua komunitatea bera da, Nekazal Erreformaren giza kokaguneak, hasiera batean talde informaletan antolatuak eta ondoren elkarte eta kooperatibetan antolatuta. COOTAP kooperatiban nekazariak, giza kokaguneetako eta MSTko sektore desberdinetako (ekoizpena, formazioa, generoa…) lidergoak, ekoizpenari laguntza teknikorako langilea, eraldaketan eta merkaturatzean lan egiten duen langilea. Era berean, artikulazioko, auto-antolaketako eta komunitatearekin eta bere ingurunearekin loturako espazio garrantzitsu bat bezala ezaugarritzen da.

Komunitatearekin loturako adibide argi bat MST mugimenduaren giza kokaguneen arteko interlankidetzako esperientzia da. Pertenentzia zentzua eta izaera komunitarioa sendotzen duten giza kokaguneen arteko elkartasun mekanismoak existitzen dira. COOTAP kooperatiba, ekoizpenean dauden giza kokagunetan elikagaien bilketan eta banaketan parte hartu du, oraindik ekoizten ez dauden, lehenengo fasean dauden kanpamenduetara eraman eta bertan banatzeko; hauei oinarrizko saskia iristea kosta egiten zaie.

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

Elementu eta estrategia desberdinak bateratu egin dira, ekimen hau erreferente bezala onartua izateko nazional mailan. Ondorengoak nabarmentzen ditugu:

- - Kalitatezko produktua, desberdindua (ekologikoa) eta tokiko eta ohiko merkatuak balioztatua. Artikulazio politiko eta merkatu handiago bat bideragarri egiten duen kokaleku geografiko pribilegiatua, aldi berean, kostuak murriztu eta partaidetza handiagoa posible egiten du.

- - lurraldeko plan estrategikoetan barneratua, desberdindutako nekazari politika batekin eta estatuaren hasierako babes handiarekin, bereziki, merkaturatzean, biltzeko egituren finantzaketan eta ekoizpenaren teknifikazioan eraldaketa eta laguntza.

- - Gauzatutako jardueraren kudeaketa enpresa irizpideetan oinarrituz eta gizarte eta ingurumen eragin positibo bat bilatzeaz gain, jarduera beraren iraunkortasunerako errentagarritasun ekonomikoa bilatuz. Errentagarritasun honek jarduerak eskatzen duen (ber)inbertsioko beharrei erantzutea posible egiten du, kanpoko laguntza/dohaintzak itxaron gabe.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

Lehenik eta behin, ekimen honek Rio Grande do Sul estatuan, kanpoko insumoen erabileragatik ezaugarritua, arroz ekoizpen modua guztiz eraldatzea lortu duela esan be-

harra dago. Agrotoxikoen erabilerarik gabe produktibitate on bat izatea posible dela erakutsi du, plagen kontrolak eginez, hazien ekoizpena, uraren erabilera egokia, etab. eginez. 12 herritan banatutako 4.400 hektareek "agroekologiak lursail txikientzat soilik balio duela" eta arrozaren ekoiezpena, Brasilgo arroz ekoizle eskualderik handiena den Rio Grande do Sul estatuan oso ainguratua dagoena, "propietate handietan soilik da bideragarria" sinesmena desmitifikatzen dute.

Trantsizio agrokologikoko prozesu honek, errenta modu berriak sortzeaz gain, bereziki, familia nekazarietan ezagutza eta gaitasun berriak sortu ditu, ondorioz, prozesuan pertsona gehiago barneratzea motibatzen du.

Agroindustria eraginkorrak alde batera utzita, giza kokaguneetan enplegu aukerak minimoak dira. Egoera hau jasan behar duten pertsonak emakumeak eta gazteak dira. Pertsona hauen alternatiba, askotan, hirietara emigratzea da, edo etxeko lanak burutzearekin konformatzea, etorkizunean beste alternatibarik izan gabe.

Mota honetako ekimenek, kooperatibaren oinarri produktiboa osatzen duen eta lan kolektiboaren antolakuntza modu berriak sortzea posible egiten duen, gizarte kolektiboaren hazkunde bat sortzen du, hiri handietara migrazioak ekidin egiten dira eta gazteentzat eta emakumeentzat enplegu aukera berriak sortzen dira. Era berean, egituran gardentasun eta kontrol maila handia duten ekimenak dira, tokiko sustraitze sendo batekin eta sareak eta aliantzak sortzeko bokazioarekin.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

COOTAPen bezain azkar gertatu den hedapeneko prozesu bat ez da modu armonikoan gertatzen eta zailtasun eta gatazkak izaten ditu. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxuak bezala ondorengoak nabarmentzen ditugu:

- **Azoka instituzionalen menpekotasuna**: : Elikagaien erosketako programa publikoen salmentak, funtsezko paper bat betetzen du produktu ekologikoen eskaera eta lehentasunezko prezioa bermatzearen zentzuan. Hala ere, merkaturatzeari dagokionez instituzio publikoen aurrean ahultasun eta menpekotasun izugarria duen faktore bat da, gobernu aldaketak politika publikoetan eragin dezakelako. Zentzu honetan, komenigarria da merkaturatze bideak dibertsifikatzea eta tokiko edo nazional beste azokak finkatzea.

- **Antolamendu egitura finkatzea:** Jardueraren antolamenduan eta kudeaketan eman diren aurrerapenak esanguratsuak izan dira. Kudeaketa egiturak (enpresa eta politika-sozial egiturak) aldatu eta exekuzio- eta eskualde-koordinazioko dinamikak eguneratu dira, jardueraren hazkundeari modu ordenatuan erantzuteko helburuarekin. Hala ere, antolamenduko aldaketa hauek guztiek bere finkatze denbora behar dute.

- **Genero ekitatea:** Gizonen eta emakumeen artean dagoen hausturaren sentsibilizazioari eta ikustera emateari dagokionez, burututako lana garrantzitsua izan da. Baina, diskurtsoa gainditzea beharrezkoa da, jardueraren planifikazioetan eta estrategietan genero berdintasuna bermatzen duten neurri zehatzak hartzeko. Ikuspegi publiko batetik, gizonen eta emakumeen baldintzak eta posizioak kontutan hartzen dituzten instituzio publikoetatik politika desberdinduak egotea beharrezkoa da.





## GOIENER PROIEKTUA

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Euskal Herria eta Nafarroa |
| Ardatz nagusia | Kontsumo kontziente eta arduratsua<br>Tokiko garapen sozio-ekonomikoa eta ingurunearekiko lotura<br>Ingurumena eta lurrarekiko errespetua |
| Erakunde mota | Kooperatibak eta Elkartea |
| Jarduera sektorea | Energia (elektrikoa) |
| Onuradun zuzenak | 5.957 pertsona bazkide (%42 emakumeak eta %58 gizonak)<br>6.697 kontratu (%43 emakume eta %57 gizonak) |
| Boluntario kopurua | 112 (%21 emakumeak eta %79 gizonak) |
| Web orria | www.goienerelkartea.org<br>www.goiener.com |

### 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Energia gure gizartearen oinarrizko ondasun batean bihurtu da gaur egun, bereziki energia elektrikoa, kasik janaria edo ura bezain oinarrizkoa.

GOIENER energia berriztagarriaren sorrerarako eta kontsumorako hiritarren proiektu kooperatibo bat da, honen bitartez energia burujabetza berreskuratu nahi da. Bere helburua, hiritarrek oinarrizko ondasun honen kontrola berreskura dezaten da eta ondasun honek duen garrantziaren gaineko kontzientzia hartzea, energiaren kontsumo arduratsu eta jasangarri bat sustatuz.

Horretarako, GOIENERek sektore elektrikoan parte hartzen du esparru desberdinetan: merkaturatze fasean (energiaren erosketa/salmenta) GOIENER S. Coop. Kooperatibaren bitartez; hiritarren formakuntza eta ahalduntzea GOIENER ELKARTEA elkartearen bitartez; eta sorrera fasean (energia sorrera) NAFARKOOP eta ENERGIAREKIN kooperatiben bitartez. Jarduera eta irudi juridiko banaketa honek, 54/1997 Sektore Elektrikoko Legearen arabera indarrean dagoen jardueren banaketako beharrari erantzuten dio, baita egungo ordenamendu juridikoak eta ekonomikoak ahalbidetzen dituen tresnei ere.

Erakunde hauek guztiak helburu berdinaren bidean lan egiten dute, eredu energetiko berriztagarri eta demokratiko baten trantsizio bidean, horietako bakoitza behar/eskaera espezifikoei erantzuteko ezinbesteko elementuak izanik.

Energiako ekoizpena, banaketa eta merkaturatzeko egungo eredua, irabazi asmo sendoa duten enpresa bakar batzuek kontrolatzen dute. Eredu honek enpresako interes ekonomikoei lehentasuna ematen die gizartearen interes komunaren gainetik. Izan ere, egungo ereduak energia merkantzia arrunt bat balitz bezala hartzen du, ondorioz energia hori eskuratzea ez da bermatzen. Hau guztia aztertu egin behar da, ez bakarrik energiak ekitatearen gain duen eragina kontutan hartuz, baita biosferan duen eragina eta bere kontrol sozialaren inguruan.

GOIENER proiektuak defendatzen duen eredua, lurralde guztian zehar banatuta dauden energia berriztagarrien instalazio txiki askoren eta ekoizle txiki askoren eskuetan dagoen eredua da, oinarrizko ondasun honen aurrean inork kontrolik jarri ez dezan

lortuz, garraioan galerak murriztuz eta tokiko garapen ekonomikori bultzada bat emanez.

## 2. Tokiko eremua

GOIENER proiektuak bere jatorria Gipuzkoan du, Goierriko lurralde inguruan, sustatzen duten hainbat pertsona sustatzaile lurralde honetara lotuta daudelako, lanari eta gizarteari dagokionez, eta hasierako bultzadarako, lurraldeko garapen agentziak, Goiekik, eskainitako erraztasunak izan direlako.

2012 urte amaieran ateratzen da GOIENER proiektuaren lehenengo adierazpena, Irabazi Asmorik gabeko Kontsumoko Kooperatiba formula moduan. GOIENER S. Coop. osatu zen eta "Euskadiko Kooperatiben Erregistroan" ofizialki erregistratu zen. Bere helburu soziala energiaren merkaturatzea da, ziurtagiri berde moduan, tarifa elektrikoaren bitartez. Gaur egun, jarduera helburu sozial bezala deskribatua dena da.

GOIENER, S. Coop.-entzat kooperatibak tokikoak diren eta beraien gertu dagoen ekonomia sustatzen duten entitateak bezala ulertzen ditu. Hori horrela izanik, penintsula mailan merkaturatzea posible duen arren, Euskal Herrian eta Nafarroan zentratzen da, baina tokiko eremuko kooperatibak sustatzen laguntzen du ere estatu guztian, eskuratutako know how partekatuz.

GOIENER elkarteak bere lurraldeko jarduera eremua aipatutako kooperatibarekin partekatzen duen heinean, ENERGIAREKIN kooperatiba EAEra mugatzen da eta NAFARKOOP, bere aldetik, Nafarroara

## 3. Ekimen mota

GOIENERek hiritarrek energiaren gaineko kontrola berreskura dezaten eta duen garrantziaren inguruan kontzientzia har dezaten bilatzen du, energiaren kontsumo arduratsu eta jasangarri bat sustatuz. Ikuspegi eta misio honekin, GOIENER proiektuak bere lurralde eremuari lotuta dauden ondorengo helburu orokorrak planteatzen ditu:

• Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren kontsumo arduratsua (eraginkorra eta intentsitate gutxiagokoa) sustatu.

• Energia ekoizpenaren deszentralizazioa sustatzea, iturri berriztagarrietatik eratorritako tokiko proiektuak ezartzearen bitartez.

• Kontzientzia hartzea sustatzea formakuntzaren eta gizarte informazioaren bitartez, jasangarritasun energetikoari dagokionez.

• Gizartearen partaidetza eredu energetikoaren aldaketan sustatu, eta ondorioz, eredu ekonomikoan.

• Jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenaren jasangarritasuna sustatu.

Proiektua, helburuak lortzeko eremu desberdinak betetzen dituzten hainbat erakundeetan egituratzen da.

**GOIENER, S.** Coop.: %100 berriztagarria den jatorria duen energia merkaturatzea.

**NAFARKOOP ENERGÍA S.** Coop. Nafarroan eta ENERGIAREKIN S. Coop. EAEn. Sorrerarako proiektuak sortzeko eta kudeatzeko kooperatibak.

**GOIENER Elkartea:** Proiektuko boluntariotzak antolatzen duen elkartea da. Energia elektrikoaren sorrera eta merkaturatzetik haratago doazen ekimenen sorrerarako eta bultzadarako beharrezkoak diren jarduera esparrua eta estaldura juridikoa ezartzen ditu.

**GOIENER p**roiektuak, modu horizontalean baina koordinatuta lan egiten duten lantaldeetan oinarritutako lan eta erlazio metodologia batekin lan egiten du, era berean, proiektu globalaren barruan dauden entitate desberdinei lotutako pertsonak inplikatzen dituzte. **GOIENER** elkartearen inguruan boluntario pertsona sare handi bat existitzen da (100 pertsona baino gehiago) eta hauen antolamendua elkartean osatzen da. Elkarte honek legez ezarritako egitura eta funtzioak izateaz gain, gaikako lantaldeak eta bertako taldeak antolatzen ditu, gai edo lurralde konkretu baten inguruan sor daitekeen masa kritikoan oinarrituz. Gaikako taldeek gai konkretu batzuetan interesa duten boluntarioak biltzen ditu, pobrezia energetikoa, komunikazioa, tokiko moneta, etab. bezala. Tokiko taldeek, aldiz, GOIENER esperientziaren eta bere helburuen hedapeneko, tokiko eremuko eta gertuko, eskaerei erantzuteko lana, nagusiki, bere gain hartzen duten boluntarioak multzokatzen dituzte.

## 4. Jarduera sektorea

**Kontsumoa::**

GOIENER, S. Coop. Pertsona fisikoek eta juridikoek osatzen duten kooperatiba bat da, eta bere jarduera jatorri %100 berriztagarria duen elektrizitatea merkaturatzea da. Bere bazkideek kontsumitzen duten energia elektrikoa merkatuan erosten du, gainerako konpainiek egiten duten bezala. Era berean, eskuratutako energia esklusiboki energia berriztagarriko pertsona edo entitate ekoizleetatik datorrela ziurtatzen duten, jatorrizko berme ziurtagiriez hornitzen da kooperatiba.

**Sorrera:**

NAFARKOOP ENERGIA S. Coop. Nafarroan eta ENERGIAREKIN S. Coop. EAEn, sorrerako proiektu desberdinak kontutan hartzen hasi dira, bere hasierako helburua betetzeko. Energiako ekoizpeneko proiektu txikiak garatzeko lanean ari dira, lau sektore nagusietan: hidraulikoa, fotovoltaikoa, eolikoa eta biomasa. Helburua gure pertsona bazkideen elektrizitate eskaera %100 betetzea da, bai kontsumo murriztuz, bai sorrera proiektu berriekin.



### Gizartea

Proiektuaren bitartez, eredu energetiko berri baten eraikuntza jardueretan parte hartze aktiboa duten pertsonak 100 baino gehiago dira, modu altruista batean. GOIENERek proiektuan modu aktiboan parte hartu nahi duen edozein pertsona bazkidek, bere gaitasunak eta kezkak aurrera eramateko eta garatzeko marko egokia izatea nahi du, baita dagokion moduan onartua izatea ere.

Proiektuak hedapen eta ikusgaitasun handiagoa lortzen zuen neurrian, benetan zaila zen merkaturatzeko Irabazi asmorik gabeko Kooperatibatik, merkaturatze berarekin erlazionatuta ez zeuden gaiak erantzutea. Horrela, behar horri erantzuna emateko, 2015 urteko apirilean, GOIENER Elkartea (eredu energetiko berri baten sustapenerako elkartea "GoiEner-i babesa") sortu zen, proiektuaren eraikuntzan parte hartu dugun pertsonei jarduera esparrua eskaintzen digun, energia elektrikoa sortzetik eta merkaturatzetik haratago doazen ekimenen sorrerarako eta bultzadarako beharrezkoa den estaldura juridikoa eskaintzen digun elkartea.

Gaur egun elkarteak hiritarrei, hezkuntza eragileei, eragile ekonomikoei eta sozialei, administrazio publikoei, etab. zuzendutako sentsibilizazio eta formakuntza jardueren antolamendua bere gain hartzen du. Horrez gain, helburuak lortzera laguntzen duten azterlanak eta ikerketak burutzea eta beste erakundeekin akordioak eta sare-lana garatzea bultzatzen du. Azken batean, elkarteak energiarekin eta komunitatean duen eraldaketarekin zuzenean edo zeharka erlazionatutako jardueren garapenerako premisak ezartzen ditu. Berriki, pobrezia energetikoaren aurkako programa bat abian jarri du, udaletxeetako gizarte zerbitzuetara bideratuta.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Bere hasieratik, proiektuak bokazio argi bat izan du beste eragileekin sare-lana eta koordinazio lana egiteko, bere jarduerek eragin handiago bat izatea lortzeko.

Modu honetan, GOIENERek lurralde eremu desberdinetako beste instituzioekin lankidetza egiten du, baina beti tokiko bokazio edo ikuspegi batetik erantzun globalak emateko. Hori horrela, GOIENER parte hartzen/lankidetza egiten duen tokiko entitate batzuk hauek dira: SARETUZ –Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen aldeko Sarea-, Fiare-Banku Etikoaren tokiko taldeak, tokiko garapen agentziak (Sakana, Goieki, etab.), I-Ener (hiritarren sozietatea –frantses estatuko legezko irudia-), hiritartasunean energiaren ahalduntzea bilatzen duen elkartea, auto-ekoizpeneko energia berriztagarrien proiektuen bultzadaren bitartez.

Horrez gain, lurralde eremu zabalago batean ere: Fiare-Banca Etikoa, REAS Euskadi (Euskadiko Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea), Eredu Energe-

tiko Berri baten aldeko Plataforma (Plataforma por un Nuevo Modelo Energético, PX1NME), Energia Berriztagarrien Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Batasun Nazionala (Unión Nacional de Cooperativas de Consumidores y Usuarios de Energías Renovables, UNCCUER) eta REScoop (Energia Berriztagarrien Kooperatiben Europar Federazioa).

### 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

Alde batetik, ezartzen dituen sare-lana eta lan metodologia (GOIENER metodologia deiturikoa proiektu bateratuarentzat, hau da, entitate guztiak barne hartzen dituen metodologia), irekia den bokazio argi batekin, instituziodiseinua eta taldean lan egiteko argibideak, baita erlazioen antolakuntza eta egitura ere. Hori guztiarekin erlazioen marko zehatz bat eduki nahi du, pertsonen lana sustatu eta onartu, pertenentzia zentzua transmititu, bertikaltasunak eliminatu, erabaki hartzean partaidetza sustatu, diskurtsoan eta ekintzan batasuna lortu. Azken batean, modu horizontalean lan egiten duten, baina koordinatuta eta erabaki hartzean zuzenean parte hartzen duten, auto-eratutako lantaldeetan oinarritutako lan eta erlazio metodologia bat.

Eta beste alde batetik, boluntariotzak duen ezinbesteko papera eta horrek adierazten duen gertuko harremana (gertutasuna) proiektuan sustatu zen lan metodologian oinarrituz eta azaltzen duten inplikazio eta kualifikazio handiagatik. Horrek ez du esan nahi boluntariotzaren profila erretiratutako pertsonei lotuta dagoenik, batezbesteko adina 47 urte inguruan kokatuta dagoelako.

### 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

GOIENERentzat tokiko kooperatibak, bere ingurune gertuko jarduera ekonomikoa sustatzen duten eragile ekonomiko indartsuak dira. Kontratuen nahikoa txikia den bolumen batekin (6.500) 15 lanpostu sortzea eta hainbat bulego irekitzea lortu du lurralde guztian. Tokiko enplegu sorreraren ahalmena eta hedapenez, tokiko ekonomiaren sustapena izatea garrantzitsua da.

Proiektua osatzen duten entitate guztiak irabazi asmorik gabeko entitateak dira, ondorioz, lortutako onura guztiak proiektuan bertan berriz inbertitzea behartzen du. Honek sortutako aberastasuna berriz banatzea bermatzen du, lanpostu horiei nagusiki tokiko eremuko beste enpresekin erlazionatzeko lehentasuna lotzen delako.

### 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Alde batetik, ekimen honen mehatxu nagusiena legezko eremutik sortzen da. Sistema elektrikoaren marko juridikoa oso konplexua da eta beti oligopolioaren enpresa handiei mesede egiten saiatzen da.

Beste alde batetik, barneko ikuspuntu batetik, bere antolakuntza egiturak duen egokitzapen gaitasuna proiektuaren hazkunde organikoaren aurrean.



## MUGARIK GABE

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Araba, Bizkaia y Gipuzkoa |
| Ardatz nagusia | Genero ekitatea |
| Erakunde mota | Erabilera publikoko elkarte, GGKE |
| Jarduera sektorea | Ezkuntza esta Lankidetza Eraldatzailea |
| Onuradun zuzenak | 1192 emakume eta 701 gizon |
| Bolntario kopurua | 25 emakume eta 5 gizon |
| Web orria | www.mugarikgabe.org |

### 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Mugarik Gabe, nazioarteko lankidetzako erakunde bezala mundu hobe baten bere bilaketa horretan, hasieratik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna definitu zuen, eraldaketarako ezinbestekoa den politika apustu bat bezala. Apustu hau gure sorreratik islatzen da, duela 30 urte, erakundearen estatutuetan eta erakundeko emakume feministen motibazioari eta Latinoamerikako emakume eta feminista mugimenduarekin elkarren arteko akonpainamenduari esker garatuz joan zen.

Eremu honetan, berdintasunean sinisten ez badugu eta erakunde barnetik lan egiten ez badugu, beste erakundeei laguntza lanak ez duela ezertarako balio ulertzen dugu. Horregatik, Latinoamerikan genero ekitatearen aldeko gure lanak, beste erakundeekin lankidetzaren eta eraldaketarako hezkuntzaren bitartez, gure erakundearen barnera genero erlazioetan aldaketako apustu politiko batekin osatu dira ezinbesteko modu batean, eta honek Mugarik Gabe sektoreko erreferentean bihurtu du. Modu honetan, mota guztietako ekimenetan pro-ekitate aldaketa prozesuen garrantzia balioztatu nahi dugu.

Eraldaketa indibidual eta kolektibo hau hasi eta urte batzuk beranduago, argi dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, erakundeetan mota honetako prozesuak sortzean koherentzia eta erantzukizuna izatea behar da. Era berean, egituretan, politiketan, prozeduretan eta bereziki, antolakuntza kulturan hausnarketa eta aldaketa sakonak ematen ez badira, ez da posible izango alternatiba sozialak sustatzea

### 2. Tokiko eremua

Mugarik Gabe Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten du lan. Latinoamerikako hainbat herrialdeetan prozesuak laguntzen ditugu: Kolonbia, Kuba, Bolivia, Guatemala, Nikaragua eta El Salvador.

### 3. Ekimen mota

Mugarik Gabe 1987 urtean sortutako Garapenerako Lankidetzako euskal Gobernuz kanpoko Erakundea bat da. gure lan ardatzak hiru dira nagusiki: Genero parekotasuna, Herri indigenak eta Bizitza Iraunkorrak. Hurrengo ekimen estrategikoak lantzen ditugu: Eragin politikoa -parte hartuz eta plataformak, Iparraldeko eta Hegoaldeko aliantza edo sareak eta esparru aldarrikatzaileak indartuz, bai erakunde soziopolitikoekin bai instituzioekin-; Garapenerako Heziketa -gure garapen neoliberal eta patriarkalari kritika batetik, esandako ereduei alternatibak bultzatuz-; eta Kooperazioa eta elkartasun internazionala -prozesuak tokiko erakundeekin bultzatuz, emakumeenak, baserritarrak eta bertako talde indigenak Latinoamerikan.

Hori guztia genero ekitatea, kultura aniztasuna eta partaidetza horizontala (boluntario eta liberatuak diren pertsonena) erakundean barnean sustatuz, berdintasunaren adierazpen bezala erakundean; Norbanakoaren eta askatasunaren burujabetza, garapen pertsonala eta sozialerako oinarri bezala; Koherentzia, elkartasuna eta elkarren arteko laguntza, justiziarako ezinbestekoak diren alderdiak bezala; eta ingurumenarekiko errespetua, pertsonen eta gure ingurunearen arteko interrelazioaren gako

bezala.

## 4. Jarduera sektorea

Gure jarduera sektorea Hezkuntza eta Lankidetza Eraldatzailea izanik, merkatuko eta kontsumoko erlazio baten markoan ez dugu zerbitzurik ematen. Hala ere, ekimen guztien -kasu honetan merkatuko eta kontsumoko ekimenak- izaera eraldatzailea genero erlazioak zalantzan jartzetik derrigorrez pasatzen dela onartuz, gure esperientzia eta ikaskuntzak partekatzea interesgarria dela uste dugu. Gure prozesuak beste ekimen batzuentzat baliagarri izan daitekeela uste dugu, gu bezala beste eredu sozio-ekonomiko alternatiboak sustatzen dituzten eta bizitza erdigunean kokatu nahi duten ekimenentzat.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Erakunde barnean egiten den lana, gure inguruan bultzatzen ditugun ekimenetan beti islatu dela uste dugu. Gure prozesuak gure agenda eta gure egiteko modua markatu ditu. Adibidez, une honetan "Ikusezinean bidaiatzen" prozesua bultzatzen ari gara, ekitatearen aldeko antolakuntza aldaketa bat sustatzen duten beste ekimen alternatiboekin eraikitzea eta esperimentatzea posible egiten digu.

www.mugarikgabe.org/viajandoporloinvisible/es/inicio/

## 6. Ekimena arrakastatsua izateko elementu gakoak

**1) Polítikak:** Ezinbestekoa den elementuetako bat, genero ekitateagatik egiten den apustu politiko horretan argitasuna eta sakontasuna izatea da. Pro-ekitate aldaketa gure prozesuan gure erakundearentzat funtsezkoa den unetako bat, 2000 urtean erakundearen langileria guztiaren formazio kolektibo prozesu baten definizioa izan zen, lan jardunaldia barruan gauzatua eta kanpoko bideratzaileekin. Formazio prozesu honek eta kolektiboa izatek funtsezkoak izan ziren: genero desberdinkeriez kontzientzia finkatzen joateko, desberdinkerien eta honek dituen ondorioen egiturazko analisian aurrera egitea ez bakarrik Latinoamerikan baita gertuko gure errealitatean ere; eta gure erakundeen analisirako beharra ikustera emateko, desberdinkerien errepikapena hautemateko.

Modu honetan, formazio espazio batetik aldaketa prozesu batera pasa ginen eta genero ikuspegi batetik antolamendu-portaeraren inguruko (politiken mailan, antolakuntza egitura eta kultura) gure lehen diagnostikoa izan zen horren elaboraziorako kanpoko laguntzaren beharraz kontziente izan ginen. Diagnostiko hori, erakundearen funtzionamenduan genero ikuspegia instituzionalizazioa sustatzeko eta hobetzeko proposamenen multzo bat elaboratzeko oinarria zen. Horrela, ikuspegi politikoena zehazten zuen eta era berean, ibilbide orri bat definitzen zuen genero politika bat burutu genuen

**2) Egitura:** Gure lehenengo diagnostikoan, Mugarik Gabe oso feminizatua zegoen erakunde bat bezala agertzen zen, baina barne mailan hainbat desberdinkeria mantentzen zituen gizonen eta emakumeen artean. Adibidez, liberatuak ziren langileen artean gizonezkoen ordezkaritza handiagoa; eztabaidetan, erabaki hartzea eta autoritate moralean gizonen pisu handiagoa; ezaugarri maskulinoak lidergoari lotuta eta emakumeen ezaugarriak zaintzari lotuta izatearen identifikazioa argia; norbanakoaren, familiaren, pribatuaren, etab. inguruko hausnarketa eta elkar trukaketa gabezia bat.

Honek aurrera egiten lagundu zigun, lan akordioen eta barne prozeduren bitartez. Lan akordioak onartzea, genero ekitatearen inguruan, baita sustatutako neurrien inguruan ere, egindako hainbat hausnarketen isla espazio bat izan da. Onartutako aldaketek zerikusia dute: aitatasun arduratsu batekin, laneko bizitzaz gain bizitza pertsonala posible egiten duen lan eredu batekin eta kontratazioetan emakumeen aldeko diskriminazio positibo bat ezartzearekin, plantillaren portzentajearen arabera. Egun erabiltzen diren neurriak hobetzeaz gain (malgutasuna, baimenak, aniztasuna, zerbitzuak…) akordioen berrikuspenean neurri berriak pentsatzeko irudikapena izateko garrantzia planteatu genuen. Hori horrela, ezkongabetasun baimen bat onartu genuen, 15 eguneko oporraldiko eskubidea berdintzen duena ezkongabeak diren eta bikoterik ez duten pertsona horientzat, bikote izatea eta formalizatzea saritzen duten ereduak hausten saiatuz. Zentzu honetan, udan 4 eguneko astea onartu genuen ere, gure bizitzetan enpleguaren protagonismoa murriztea posible egiten duten lan modu berriak probatzen saiatuz, eredu berrien bilaketa horretan.

Beste alde batetik, erabakitako neurriak ezartzeko baliabide eta egitura espezifikoak izatea funtsezkoa da aldaketa erreal bat emateko. 1993 urtean Emakumea eta Garapena lehenengo talde bat egon zen, sentsibilizazio eta hezkuntza jarduerak sustatzera bideratuta. 2003 urtean Mugarik Gabe-ko Genero Taldearen finkapenean aurrera egiten da "alerta etengabea" bezala, genero ekitatea lortzeko erakundean bertan eta bere jardueretan ere. Genero talde honen egitura aldatuz joan da, egituratik kanpo zegoen boluntario talde bat izatetik, organigramaren parte bezala finkatuz. Horrela, egun, antolakuntza espazio desberdinetako pertsonaz osatuta dagoen Genero Sail bat existitzen da, egungo genero estrategiaren lehentasunezko akordioen garapena edota jarraipenaren erlazionatutako erantzukizunekin. Prozesu hori guztia genero arduradunaren figuraren laguntza izan du, beti emakume bat izan delarik.

Mugarik Gaben asanbleario izatea adostasuneko eta unitateko puntu argi bat da, horizontaltasuna, lana eta ikaskuntza kolektiboa sustatzen duen elementu bat da. Baina prozesu honetan, beste hainbat espazioetan bezala, genero desberdinkerien analisirako eta aldaketarako neurri zehatzak hartzen ez badira, asanbleario izate horrekin ere matxismoa errepika daitekeela ikusi dugu. Horregatik, hainbat mekanismo ezarri genituen, eta hausnarketa etengabeari lotuta, egun batzarretan eta antolakuntzako beste espazioetan partaidetza ekitatiboago bat sortzen ari da: formazioa komunikazioan, aktara barneratzen diren batzarretan emakumeen eta gizonen esku-hartze indibidualak, erantzukizunen txandakatzea eta metodologia parte-hartzaileak, besteak beste.

**3) Antolamendu kultura:**Lehenengo antolakuntza diagnostikoan, antolakuntza kultura lantzeak zuen garrantziaz kontzientzia hartzen hasi ginen, horren inguruan genuen ezjakintasuna eta horren isla erakunde guztian. Hainbat alderdi puntualetan aurrera egiten joan ginen, baina ez genuen lortzen gaia modu globalago batean lantzea. Ondorioz, 2011 urtean pro-ekitate prozesuan bultzada berri bat hartu genuen, gure antolakuntza kulturan bete betean sartuz. Nagusiki oinarritu ginen: oro har antolakuntza kulturaren eta bereziki Mugarik Gabe erakundearen antolakuntza kulturaren ulermena eta definizioa, eta bere garapena zehazki hiru eremutan: Bizitza vs Lana, Indibidualismo Heroikoa, Botereak. Orain arte definitutako hainbat erronkak zerikusia du:

• Koherentzia eta ikuspen globala, alderdi desberdinetan (lana, militantzia, zaintzak, aisia…) gure bizitzako ohiko banaketarekin bat ez etortzearen ideiaren inguruan modu kolektiboan hausnartzeko beharra. Era berean, pertsonala/indibiduala eta ekitatea/igualitarismoaren arteko eztabaida berriz hartzea.

• Enpleguzentrista den eredu batek dituen inplikazioak eta bizitza erdigunean kokatzen duen eredu alternatibo bat definitzen eta zehazten joateko moduak lantzea. Gure praktiketan logikako txokean ematen direla berrikusi: eraginkortasuna-koherentzia, publikoa-pribatua, besteak beste.

• Gure lan egiteko moduak eta lana taldean nola landu aztertu, tradizionalenak diren edo indibidualistak diren horien aurrean praktika alternatiba bezala, bai erabaki hartzean bai bere garapenean.

## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

- Apustu politiko argia eta erabakia, emakumeen eskubideetan eta genero ekitatean euskarrituta. Horrez gain, aldaketa borondate hori langile gehienen aldetik modu kolektiboan sentitua izatea, modu horretan erakundeko helburua bat izan dadila eta ez soilik erakundean lan egiten duten pertsonen helburu indibidualen batura bat.

- Erabaki hartze estrategikoetan zehaztasuna eta ez isolatutako jarduereetan, politikoki zuzenak diren edo kanpoko eragileek zehaztutako espedientea betetzeko diren jarduerertan. Berdintasunaren aldeko apustuak lehentasuna duen ibilbide orriak definitu behar dira, erakunde guztiak ezagutzen dituen antolamendu dokumentuetan islatuta egoteaz gain, zehatzak eta baliabideekin.

- Erabaki hartzean, baita formazioa eta gakoak diren beste jarduereetan ere, prozesu parte-hartzaileen aldeko apustua egitea. Horizontalagoak diren baloreen alde egiten duten prozesu kolektiboak, erakundea beste ikuspegi batetik eraikitzen dutenak eta genero ekitatea berezkoa den zerbait bezala onarpen bat sortzen dutenak, indibidualetik hasi eta kolektiboraino.

- Jarraipena eta ebaluazioa prozesu guztian zehar ematen dira, ikaskuntza modu bezala, hobekuntza etengabea sortuz eta erresistentzia eta gatazka posibleen erantzuna emanez.

- Barne aldaketako prozesu orok, erakundetik kanpora gure egiteko moduan islatzen da, antolakuntza koherentzia baten eta egiten dugun horren guztiaren konexioaren bilaketan.

- Antolakuntza kultura genero ikuspegi batetik lantzea ezinbesteko elementu bat da, benetan eraldatzaileak diren prozesuak garatu ahal izateko, genero erlazioei dagokionez.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak

Ekimenaren iraunkortasuna arriskuan jar dezaketen benetako mehatxuak ez daudela ulertzen dugu. Pro-ekitate gure prozesuaren aurrerapen eta zailtasun guztiekin, epe luzerako antolakuntza apustu bat dela argi dugu. Ez da prozesu puntual bat, continuum bat baizik, beti erne egotea eskatzen duena eta erakunde barruan erlazio modu berriak berrituz, baita erabakiak hartzen eta sortzen joan diren aurrerapenak eta erresistentziak berrikusiz.

# SINDESPERDICIO: INGURUMEN ETA GIZARTE JASANGARRITASUNA EKONOMIA SOLIDARIOTIK

| | |
|---|---|
| Lurraldea | Gipuzkoa |
| Ardatz nagusia | Ekonomia Solidarioa |
| Erakunde mota | Gizarteratze enpresa |
| Jarduera sektorea | Poltsa eta moda eta etxeko osagarrien ekoizpena hondakinetatik abiatuz |
| Onuradun zuzenak | Gure prozesuetan erabiltzen den lehengaia gure kolaboratzaileek zuzenean emandakoa da (administrazio publikoak, museoak, komunikazio agentziak, eta.)<br>Ekimen honi esker, gure gizarteratzeko enpresan lanpostu bat mantentzea lortzen da. |
| Web orria | www.sindesperdicio.es<br>www.emaus.com |

## 1. Ekimenaren ardatz nagusia

Upcycling eta berrerabiltzea ekonomia solidariotik.

## 2. Tokiko eremua

Ehungintza sektorea, externalizazioaren eta enplegu prekarioaren paradigma da. Agian horregatik, SINdesperdicio-tik tokiko ekoizpena balioztatzen da elementu adierazgarri bezala.

Arrasateko EkoCenter-ean (Gipuzkoa) tailer txiki bat barneratu dugu, handik ateratzen da ekoizpen guztia.

## 3. Tipo de iniciativa

SINdesperdicio Emaúsek sustatutako ekimen bat da, beraien bizitza baliagarria amaitua duten materialak berreskuratzea bilatuz, modako eta etxerako artikuluak elaboratuz, bigarren aukera bat emanez.

Lehengai bezala, administrazio publikoek, publizitate agentziek, museoek, etab. dohaintzan emandako iragarki-banderatxoekin lan egiten dugu nagusiki, baina gure prozesuetan beste material batzuk ere barneratzen ditugu, SINdesperdicio marka bat baino gehiago, filosofia bat dela uste dugulako.

Tokiko eta artisau lana balioztatzen dugu, slowfashion filosofiarekin bat egiten duten printzipioak. Horrez gain, lan hau gure gizarteratzeko enpresaren bitartez egiten dugu posible, ingurumenaren alde egiteaz gain, gizarteratzeko enpresei lotutako gizarte balioa gehitu behar zaio.

Proiektu honekin lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Zabortegira kondenatuta dauden produktuak berrerabili upcycling bitartez.

- Kontsumo kontziente eta arduratsu bat praktikatzeko alternatibak eskaini.

- Moda sektorean ematen diren bidegabekeriak eta eskubide urratzeak salatu.

- Kolaboratzaileen sare bat ezarri.

Tokiko eta artisau lana balioztatzen dugu. Horrez gain, lan hau gure gizarteratzeko enpresaren bitartez egiten dugu posible, ingurumenaren alde egiteaz gain, gizarteratzeko enpresei lotutako gizarte balioa gehitu behar zaio. ”

## 4. Jarduera sektorea

Berrerabiltzearen sektorean egiten dugu lan. Gure lehengaia, sortuak izan zireneko bizitza baliagarria amaituta duten materialak dira. Hain zuzen ere, proiektua horrela sortu zen, Donostiako Udaletxeari hiria apaintzen zuten iragarki-banderatxo horiek behin bere funtzioa amaituta non amaitzen zuten galdetu zitzaion. Banderatxoak kendu ondoren produktuaren bizitza baliagarria amaitzen zela ikusita, horiek eskuratzea eskatu genuen poltsa, modako artikuluak eta artikulu osagarriak ekoizteko.

SINdesperdicio-k elkarren artean estuki lotuta dauden 3 ardatz ditu:

• Hondakinak ez dira botatzen. Kaleetan ikusten diren banderatxoak (faroletan, balkoietan, hormetan…) eta bizitza labur baten ondoren zabortegian amaitzen dutenak, berreskuratu egiten dira, birziklatu egiten dira eta poltsetan eta modako osagarrietan bihurtzen dira.

• Jarduera honek lanpostu iraunkorrak sortzen ditu eta era berean, lankidetza aukera askori atea irekitzen dio.

• Arrasateko ekoizpen unitatetik ateratzen diren produktuak tokiko produktuak dira, artisau moduan eta baldintza duinetan eginak.

Produktu katalogoa mugatua da, moda sektorea oso zorrotza delako diseinuari eta errotazioari dagokionez. Izan ere, slowfashion-en alternatiba babesten dugu, erabili eta bota modari erantzun bezala eta horrez gain, gizarteratzeko enpresei eta ekonomia solidarioari atxikita dagoen alderdi soziala barneratzen dugu.

Poltsaz eta osagarriez gain, etxerako produktuak ere josten ditugu (amantalak, erosketa orgak, mantelak, ordenagailurako zorroak, karpetak, erosketarako poltsak, etab.), hori guztia biztanleria kontzientziatzeko eta kontsumo kontziente eta eraldatzaile bat praktikan jartzeko alternatibak eskaintzeko ideiarekin.

## 5. Ekimenak ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura

Ingurunearekin eta komunitatearekin duen lotura bi alderdietatik hartzen dugu kontutan:

Alde batetik, SINdesperdicio lankidetzari esker eta banderatxoan ematen dizkiguten entitateekin ezarri diren loturei esker funtzionatzen du. Udaletxeek, komunikazio agentziek, kultura eragileek, etab. beraien ekintzek sortzen dituzten hondakinei amaiera arduratsu bat emateaz arduratzen diren zirkuitu bat sortu da eta zirkulua ixteko aukera interesgarri bat bezala ikusten gaituzte.

Beste alde batetik, ekoizpena tokian bertan burutzen dugu. Gure produktuen atzean izenak eta abizenak daude, bizitza historiak eta artisau lana. Arrasaten (Gipuzkoan) tailer bat beharrezkoa den guztiarekin jarri dugu eta bertatik gure produktu guztiak diseinatzen eta elaboratzen ditugu, banaka-banaka eskuz josiz. Gure hornitzaileek %100 nazional eremukoak dira eta gure produktuen %95 berrerabilitako produktuak ditu lehengai bezala.



Horrez gain, modu sinergikoan SINdesperdicio-rekin lotu daitezkeen artisau sare bat sortzen ari gara, proiektuarekin bilduma esklusiboak sortzetik abiatuz.

## 6. Ekimenaren arrakastatsua izateko elementu gakoak

• Erabilitako material erakargarria eskuratzea (lankidetzak finkatzea).

• Diseinu erakargarrien eskaintza.

• Gardentasuna eta kontuan argi izatea.

• Biztanleriaren kontzientzia hartzean lan egitea, herritarrak geroz eta informazio gehiago izan dezan eta bere kontsumoa eraldaketako tresna bat bezala erabil dezakela kontziente izatea.

• Lankidetzen bilaketa maila guztietan.















## 7. Ekimenak berak duen izaeragatik sortutako aukerak

Emaúsen babesak lankidetza eremu interesgarri bat irekitzen du, duela 35 urtetik ingurumenaren jasangarritasunean eta justizia sozialean burutzen ari den lan sakonaren ondorioz. Horri esker, administrazio publikoetan, komunikazio agentzietan eta enpresa pribatuetan gure sarrera errazagoa da. Horrez gain, internazionalizazio baten bidean lehenengo urratsak ematen ari gara, Nazioarteko Emaúsen talde ezberdinen lankidetzari esker.

Gainera, «eko» eta «jasangarria» den horren bidean joera orokortu bat dago, baina, bi ahoko arma bat da, guk defendatzen dugun karga eraldatzailea kentzeko arriskua duelako. Hori dela eta, gardentasuna, kontuak garbi izatea, eta beharrezkoa den informazio guztia ematea ezinbestekoak direla nabarmentzen dugu.

Beste aukera bat, ekonomia zirkularrarekin lotuta dagoela ikusten dugu. Baliabideak sortzeko gaitasuna geroz eta mugatuago den gizarte batean bizi gara eta ondorioz ezinbestekoa da lerroko ekoizpen sistema batetik ekoizpen zirkularreko sistema batera pasatzeko gai izatea.

SINdesperdicio-tik integrala izatearen balioa ematen da, ekonomia zirkularra ekonomia solidarioaren ikuspegitik lantzen dugulako, hondakinak eta prozesua posible egiten duten pertsonak baliabide bezala hartuz.

Azkenik, online bidezko salmentak aurkezten duen etorkizuna aukera bezala nabarmentzen dugu, urruneko bezeroetara iris dezakegu eta gure produktu aukeren inguruan informazioa eman eta kontzientziatu dezakegu.

## 8. Ekimenaren iraunkortasunerako mehatxu nagusiak-

- Aukeren atalean jasota agertzen den arren, gizarteak "Emaús marka" bigarren eskuko produktu baten ideiarekin lotzen du, bere prezioa benetan ekonomikoa izanik. SINdesperdicio produktuak merkaturatzerako garaian honek arazoak sortzen ditu, Emaús lanean jarduten den bide horietan bertan.

- Kontsumitzaileentzat produktuen prezioak altuegiak izateagatik ezagutzen da. Prezioek ekoizpenaren eta materialen kostua jasotzen badute ere, kontsumitzaileak prezio baxuetara ohituta dago (bereziki modaren sektorean), ondorioz, konparazioz gaizki ateratzen gara. Beraz, garrantzitsua da tokiko produktu bat erosteak eta Asian ekoitzitako produktu bat erosteak dituen desberdintasunak nabarmentzea.

- Diseinu berriei dagokion muga. Bezeroen behar aldakorrei erantzuna eman diezaioken diseinu talderik ez dugu. ●

# 6.KONKLUSIOAK ETA IKASKUNTZAK

Ikerketa honetatik hainbat konklusio eta ikaskuntza ateratzen dira, bai maila teorikoan bai maila praktikoan. Konklusio horietako batzuk makro mailan dira eta beste batzuk aldiz, aztertutako praktika onen ekimenen analisitik eta inplikatuta dauden eragileen ekarpenetatik atera dira. Azken hauek ikuspegi mikro batetik eta ekimenaren ikuspuntutik definitu ahal izango lirateke. Nabarmendu behar da bi ikuspegi horiek elkarren artean osagarri eta atzeraelikatzen direla, batak bestea gabe atal honi eta ikerketa lanari zentzurik emango ez liokeelako.

## KONKLUSIOAK ETA IKASKUNTZAK MAKRO MAILAN:

Bidezko Merkataritza, ESS eta Elikadura Burujabetza, beraien oinarriak neurri handi batean bat egiten duten eta balore eta printzipio zuzentzaileak partekatzen dituzten hiru mugimendu dira, gaitasunen sorrera ikuspegiaren inguruan artikulatzeko paregabeak izanik. Konexioen atalean adierazten den bezala, paralelismoak ezartzea posible da hainbat elementuren arabera: elkartasuna, ingurumenarekiko eta lurrarekiko errespetua, lurraldearekiko defentsa modu integral eta zabalean, botere eta genero erlazioak, aniztasunarekiko eta pertsonarekiko errespetua, inklusioa, etab. Hiru mugimendu hauek, beraz, giza garapena sortzeko eta giza gaitasunen sortzaileak izateko bertutea ematen dieten elementuak biltzen dituzte.

Agian konklusioetako bat, eta ez garrantzia gutxiago duelako, hiru mugimenduek errentagarritasunera eta dirusoberakinen sorrerara lotutako ekonomiaren esan nahia guztiz baztertzen dute. Irabaziak bere baitan ez du garrantzia handirik, ekimenetan berriz inbertitzea ohikoa delako. Batzuetan enpleguzentrismoa estutasunean jartzen da eta lana ingurumen eta gizarte jasangarritasuna bat lortzeko tresna bat bezala kontzeptualizatzen da, pertsona kontsumitzaileen eta ekoizleen artean bertutezko zirkulu bat sortzen delarik, bere baitan helburu bat izan ordez. Eskubideen ikuspegitik eraikitako berdintasunezko erlazioak hiru korronteetan lantzen dira modu batean edo bestean, oro har pertsonen arteko berdintasun erlazioen eta bereziki bi sexuen arteko erlazioen sustapenean eragiten duelarik. Zentzu honetan, bizitzaren jasangarritasun paradigman garatzen diren ekonomia feministaren eta zaintzen ekonomiaren ekarpenak nabarmendu behar dira, hiru mugimenduek bide hori hartzen dutelako geroz eta gehiago.

Hiru mugimenduak, sistemagatik asetuak ez diren hiritarren beharren erantzuna bezala sortzen dira. Gizarte berrikuntzako ikuspegi batetik fenomeno konplexu eta aurpegi anitz dituen fenomeno bat dela ikus dezakegu. Gizarte berrikuntza gizarteak hautemandako arazo bati erantzuna emateko sortzen da eta botere publikoetatik ezta sektore pribatutik ere (biak zentzu zabal batean), erantzun egoki bat ematen ez denean. Gizarte oinarri batetik abiatuz, erantzun hauek norbanako moduan ematen ez direnez, gizartearen arazoei erantzuna ematen saiatzen diren ekimenak sortzen dira, denboran zehar berrikuntzako elementu bat bezala ezagutzen direnak, bere ezaugarrien arabera ESS, EBj edo BMko instrumentalizatzen delarik, gizarte mugimendu eta taldeetatik edo mugimendu kolektiboetatik sortzen diren sormenezko eta kultura praktika anitzetara iritsiz. Izaera eraldatzailea berezkoa da, indarrean dagoen errealitatea eraldatzen laguntzen duelako maila desberdinetan. ESS, EBj eta BM elikatzen dituzten ekimenak erantzun honen isla eta parte dira.

Ikuspegi honetatik, hiru mugimenduen artikulazio eta engranaje bat saiatzean potentzialitate nabariak existitzen dira, bai kontzeptuzko mailan bai praktika mailan ere. Hiru korronteen artean diskurtsoa partekatu ahal izateak -gutxienez zati bat-, maila praktikoan sinergia nabariak sortzea posible izango litzatekeen, informazioak eta ezagutzak alde batetik bestera joatea posible egingo luke. Baloreetan, printzipioetan eta diskurtsoan bat egiteak ez dira kontraesanetan sartzen, are gehiago, hasiera batean korronte batean elementuak beste baten diskurtsoan sartzea erraza izango litzateke, eta alderantziz. Hau garrantzitsua da, bereziki, politika publikoen ko-eraikuntzarako eta ko-ekoizpenerako indarrak batzeko ikuspegitik (Klein et al, 2012), zuzeneko intzidentzia prozesuak lantzeko garaian eragile parte-hartzaileei bolumena, ospea, legezkotasuna eta sendotasuna ematen dietelako administrazio publikoen aurrean. Era berean, ko-eraikuntza eta ko-ekoizpen prozesuak aberasten ditu, dauden eragileak ugari direlako eta sendoagoak diren oinarrietatik abiatuz.

Erabat kontzeptuzko, ideologikoak edo teorikoak diren lerrokatzeko elementuetara pasatuz, lankidetza praktiko handiago bat ematea posible den interes gune batzuk behatzen dira. Kontutan hartu behar da, batzuetan, eragile baten kategorizazioa zehaztu gabea da, BM, ESS edo EBj-ko mugimenduaren partaide bezala. Izan ere, eragile bakar batek batean baino parte hartzen du, edo hiruretan. Horrela, hiru korronteetako eragile partehartzaileen artean sinergiak sortzeko aukerako espazioak daude. Adibide bat, ESSari oinarri produktiboagoa (nekazaritza eta abeltzaintza terminoetan) duten proiektuak gerturatzeko aukera izango litzateke, EBj bereziki, eta BM askotan, lurra lantzen duten eta lurraldean oso inplikatuta dauden ekimenetatik eta eragileetatik elikatzen dira. Era berean, ESSko ekimenen zerbitzuen eskaintza EBj eta BMko eragileei gerturatzeko aukera ikusten da. ESSaren esparruan zerbitzuen eskaintza geroz eta zabalagoa eta aberatsagoa ematen dela gogora dezagun, horien artean: telefono adimendunak fabrikatzea , enpresa solidarioen kudeaketarako laguntza zerbitzuak, zerbitzu higiezin etikoak, finantza zerbitzuak, aholkularitza, eraldatutako produktuen merkaturatzea, BM eta nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak, birziklatzeko produktuak, etab. Eragile desberdinen artean, produktu eta zerbitzuen kontratazio sareak sortzeko garaian eman daitezkeen sinergiak nabariak dira. Hiru korronteetako eragileen artean topaketa eta partekatzeko puntu bezala Merkatu Sozialen ideia aprobetxatzea, lankidetza sendotzeko garaian aukera argiko eta nolabaiteko intereseko hobi bat izan daiteke, bai produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko bai jakintzen elkar

trukaketako puntu bezala. Testuinguruko desberdintasunak salbuetsiz, Ekuadorreko Kulturarteko zirkuitu ekonomiko solidarioen -CESI- [4] (J. Jimenez, 2014) esperientzia inspiratzailea izan daiteke horretarako, bere integral izaeragatik.

Ildo beretik, Bilboko Ekonomia Sozial eta Solidarioko II Kongresua eta beste espazio batzuek bezalako ekitaldien ondorioz eman diren eta berriki ematen ari diren, hiru korronteetako eragileek parte hartzen duten eztabaida taldeen sorrera, lerrokatzean aurrera egiteko garaian funtsezko faktorean bihurtzen da. Beste alde batetik, unibertsitatearen laguntzarekin hiru korronteetako eragileak parte hartzen duten ikerketa taldeen lanak, aipatutako lankidetza horiei akademia-mailan beste estatus bat emango lioke, ikusgaitasun handiagoa emateaz eta eragileen oinarrizko lanaren zubi eta legezkotasun bezala balio izateaz gain.

Beste aukera faktore bat, ESS eta BM-ren diskurtsoari osasun faktorea barneratzea da, bereziki elikadurari lotuta dagoena. Gizartearentzat geroz eta garrantzitsuagoa da eta kezkagarriagoa da elikadurak osasunean duen eragina, ondorioz, posizionamendu, kontsumoko eta merkaturatzeko marketing terminoetan ere erabil daiteke, mugimendu hauetatik urrun dauden biztanleriako sektoreei gerturatzeko elementu bat bezala.

Beste konklusio bat, hiru korronteen artean eta osatzen duten eragileen artean potentzial interesgarri bat dago, hiriko munduen eta landa munduen arteko lankidetza eta komunikazio handiagoko ingurune bat garatzeko. Landa mundua biztanleria orokorrari ber-konektatzea, beraien bertuteak eta lorpenak balioztatzea, tokiko ekosistema sozio-ekonomikoan lurrak eta bertako biztanleek duten garrantzia nabarmentzea, merkatu eta kontsumo eredu justuetan parte harten duten eragileek aurre egin behar duten erronka bat da, tokiko mailan eta maila globalean.

Bere aldetik, hiru korronteen eguneroko praxiari eta diskurtsoari ekonomia feministak eta zaintzen ekonomiak egin diezaieketen ekarpenak, interesgarriak izan daitezke izaera eraldatzaileko eredu sozio-ekonomikoen bidean aurrera egiteko garaian. ESSak eremu honetan egiten duen lanaren ondorioz, beste bi korronteei zentzu honetan ikaskuntzak eta gorputz teorikoa eman diezaieke. Inklusioari eta biztanleria piramide aldaketatik eratorritako arazoen erantzunari dagokionez (ikusi inklusioaren eta belaunaldi arteko elkartasun printzipioa), hiru korronteek osagarriak diren gaitasunak dituzten ikusten da. ESSak egin ditzaken ekarpenak: termino metodologikoetan urteetako garapen bat, arreta, programen eraikuntza eta gailuen egokitzapena pertsona bakoitzaren gaitasunetara. EBj-ak bestetik, nolabait hiri handietako lan prekarietatetik ihes egin nahi duten pertsona gazteei irteera emateko, eta gutxienez alternatiba bat emateko (erraza ez den aukera bat), gaitasun ikaragarria du (baita landaren zahartze arazo nabari bat ere).

BM-ak bere aldetik, bere esperientzia salmenta prozesu, merkaturatze, produktuen hobekuntza prozesu, merkatuko posizionamendua, etab. terminoetan ematen du, modu honetan, ESS eta EBj-ko ekintzailetza asko bideragarri izaten lagunduko lukete.

Hala ere, argilunak ere kontutan hartu behar dira ere. Hiru korronteen diskurtso bateratu bat izateko aukera kontutan hartuz, ezin daiteke alde batera utzi errealitatea, BM eta EBj-ko ekimenek nekez lortuko lituzkete ESSaren irizpideak modu eraginkorrean onartzea. Batzuetan beraien aukera izateagatik, eta bestetan, errentagarritasun ekonomikoa-baloreak binomioan enpresa kudeaketa eta tentsioko tarte faktoreen eraginagatik, zaila da ESSren lan edo ekitate irizpideen betetze "puru" batean pentsatzea. Horrek ez du esan nahi desiragarriak ez direnik, ezta zati batean betetzen ez direnik ere, baina kontutan hartzeko erronka bat da.

Horrez gain, hiru korronteek berezkoak dituzten lan dinamikak garatzen dituztela adierazi behar da, beraien sareetan mugitzen dira eta bat egiten duten eta era berean loturarik ez duten errealitateen analisiei erantzuten diete. Horrek, diskurtso lan bateratua modu armonikoan batzeko aukera konplexu egiten du, teoria mailan bada ere, maila praktikoa une honetan oraindik ez litzateke emango, mailan informalean edo hasiera mailan ezik.

Zalantzarik gabe, oraindik bidea dago egiteko, baina makro mailan arrazoi nabarmenak daudela esan dezakegu, hiru korronteen artean konexioak eta sinergiak ezar daitezkeela pentsatzeko, eragin eta sakonera handiagoa duten ekintzak garatzeko.

## KONKLUSIOAK ETA IKASKUNTZAK MIKRO MAILAN:

Ikerketaren azpiatal honetan praktika egokien analisiaren ondoren hauteman diren hainbat konklusio eta ikaskuntza praktiko eta hauen gakoak eta ikaskuntzak aurkeztuko dira modu eskematikoan. Konklusio hauek hurrengo liburu-tresnarako oinarri izango dira, ikerketan dauden eragileen integral izaerara egokitzen diren eta nabarmenak diren adierazleetan bihurtuz. Konklusioak eta ikaskuntzak hiru ataletan banatzen dira.

1 Ko-ekoizpena eta ko-eraikuntza: lehenengo terminoarekin "zerbitzuen aktibazioa eta ekoizpenari" egiten zaio erreferentzia (antolakuntza maila) eta bigarren kontzeptuarekin, "aktoreen partaidetza" aztertzen da, bereziki gizarte mugimenduen partaidetza politika publikoen elaborazioan (instituzio maila).

2 https://www.fairphone.com/

3 http://mercadosocial.konsumoresponsable.coop/

4 ….-CESI-ak ekonomia solidarioaren praktiken eta aktoreen artikulazio espazioak dira, ondorengo eremuekin erlazionatuta: ekoizpen osasuntsua, finantza solidarioak, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, beste kontsumo bat egiten dutenak, turismo komunitarioa, arbasoen osasuna, ekonomia solidarioaren printzipioetara elkartzen direnak eta gizartearen oinarrizko beharrak asetzeko eta bakearen kultura bat, hau da, Ongi Bizitzearen sustapena –(elkarbizi) Sumak Kawsay- eraikitzeko artikulatzea erabakitzen dutenak…

5 Aipatutako kongresuan eztabaida espazio bat sortu zen, ESS eta EBj-ren artean existitzen ziren konexio eta potentzialtasun komunak eztabaidatzeko eta esploratzeko. Espazio hauek, diziplina-arteko lantaldeen bitartez beste topaketetan zehar ematen joan dira: Landa Mundu Bizi baten aldeko X Foro Minglanillan ospatua, Cuencan 2017 urteko martxoaren 3tik 5era; edo Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioko -Idearia- topaketaren XIII edizioa, 2017ko apirilaren 27tik 29ra ospatu zen.

Lehenengoa merkaturatzea prozesuetara eta kontsumora lotuta dago zuzenean. Bigaren atalak, maila desberdinetan (ideologikoa, parte-hartzailea, erabaki hartzailea, gatazken konponketa, etab.) barne kudeaketa aurrera eramateko gakoak diren ikaskuntza horiek lantzen ditu. Azkenik, hirugarren atalak lurraldearekiko erlazioaren inguruko gakoak eta ikaskuntzak lantzen ditu zentzu zabalean.

### 1. Merkaturatzea eta kontsumo eraldatzailea

Kontsumo eta merkaturatze eraldatzailearen ikuspegi zabal bat hartu. Tokiko produktuen kontsumoak eta merkatuak BMko produktuekin bat joan daitezke. ESS zerbitzuak EBj eta BMko produktuekin bat joan daitezke. Kontsumo Kontziente Artikulazioa klabe kritiko bezala, ahalduntzearen eta eskuleku ideologikoaren giltza bezala adierazten da.

Kontsumo talde, elkarte, enpresa eta partikular desberdinek burututako erosketa bateratuak posible egiten du:

• Ekoizpena eramatearen gastu txikiagoak.

• Eskalako ekonomia txikiak.

• Ingurumen-eraginaren hobekuntza (aztarna ekologikoa).

• Pertsona ekoizleen eta merkatarien planifikazio gaitasunaren hobekuntza, baita stockaren kontrolean ere, epe ertain/luzera.

• Nolabaiteko diru-sarrera egonkortasuna pertsona ekoizle eta merkatarientzat, beraien inbertsio gaitasunean eragiten epe ertain/luzera.

• Bitartekariak eta asoziazioko kostuak kentzea.

Supermerkatu kooperatiboak edo ekimen analogoak. Balio dute:

• Eskaintza bideragarri egitea modu zentralizatuan eta pertsona kontsumitzailearentzat eskuragarri.

• Espazio bakar batean pertsona kontsumitzaileen oinarrizko exigentziak erantzun; barietatea, kalitatea eta prezioa.

• Supermerkatuen inguruko pertsona bazkide ahalik eta kopuru gehiena multzokatu eta militantzia eta apropiazioa landu.

Merkaturatzeko zirkuitu laburren aldeko apustu egitea konstante bat da, eskalako ekonomien mugak existitzen badira ere.

Aurrekoari lotuta, merkatu sozialen sorrera eta horien aldeko apustua tokiko mailan. Merkatua sozialak landa mailan izatearen ideia interesgarria da.

Merkatua sozialak landa mailan izatearen ideia interesgarria da.

ESSko enpresen arteko, EBj eta BM ekimenen produktuen eta zerbitzuen transakzio loturen eta bideen hobekuntza. Horretarako:

• Produktuen katalogoko tresnen sorrera, fisikoan eta online, elkar trukaketa plataformak.

• Partekatzeko espazio formalak ezartzea, lantalde bateratuak edo sare komunetan espazioak izan daitezkeen bezala.

• Tresna berritzaileak sortzea, app-ak, ingurunera egokituak (hiria/landa).

Interes sozial handiko gaietan merkatu eta marketing probetxamendua, osasuna eta ingurumena bezala gaietan. Tokiko eta gertuko produktuek oro har, baita BMko produktuek ere, bi ikuspegi hauetatik onarpen altua dute.

Produktu bereizketa, erabilerarik ez duten produktuen eta zerbitzuen kontserbazioa eta salmentari esker, tokiko hazien erabilera, etab.

Auzolanen eta lan komunitarioen praktika, kostu ekonomikoen murrizketako metodo dual bezala eta pertsonen arteko erlazioen hobekuntzaren kolpekari bezala, pertenentzia sentimendua eta elkarren arteko konfiantza sortzean.

Hainbat ekimen irabazi asmorik gabekoak dira, soberakinak dauden kasuetan hauek berriz ere proiektuan inbertitzera laguntzen du.

Finantzaketa eta diru-sarrera mix batean lan egitea desiragarria da. Diru-sarrera publikoak (laguntza zuzenak edo diru-laguntzak) eta pribatuak aztertzea produktuen aniztasunaren bitartez, berezko bidez edo lankidetza bidez.

Ekoizpen, kontsumo eta merkaturatze prozesuen hobekuntzarako, finantzaketa formula desberdinak bilatzea, crowfunding, kuotak, bonoak, trukea, etab. bezala.

Ustiapenak hasteko baliabideak lortze mailan, inguruko pertsonek duten papera nabarmentzea garrantzitsua da ere. Hasierako etapan (makineria uztearekin, laguntza teknikoa, etab.) ingurune gertuko pertsonen laguntza funtsezkoa izan da hainbat ekimenen iraunkortasunean.

Ikuspegi sistemikoak dituzten esku-hartzeak, integral izatearen nahi batekin: aurre-ekoizpena, ekoizpena, zirkulazioa eta banaketaren esferak kontutan izatea.

### 2. Barne kudeaketa eta antolakuntza.

Diskurtso politikoa, ideologiko partekatua, garbia eta parte-hartzailea, funtsezkoa da bereganatzea egiteko garaian, ekimenetan pertsona parte-hartzaileen aldetik. Ekimen edo pertsona desberdinak egon daitezke, baina puntu komuna izatea funtsezkoa da. Barne

formazioa baloreetan. ESS, EBj edo BMren balore eta printzipioak eguneroko lanean barneratzea, barne formazioaren eta hausnarketaren bitartez.

Ekimenen antolakuntza kulturaren ulermena eta definizioa landu eta baliabideak eta denbora eskaini.

Dibertsioa. Dibertsioa -bereganatzeari oso estuki lotua dagoena- funtsezko elementu bezala duten prozesuak dira.

Irekiera. Kanpora eta pertsona parte-hartzaileen ekarpenetarako irekiak dauden erakundeak.

Ikaskuntza etengabea klabe ideologikoan. Ezagutzen trukaketa, eraikuntza kolektiboa, ebaluazio jarraia.

Autonomia eta auto-eraketa. Autonomia kanpoko eragileei -bereziki publikoak- dagokionez, eta auto-eraketa, parte-hartzailea eta horizontala.

Lan metodologiak. Ekimenentzat lan metodologiak sortzea, errealitatera hobeto egokitzen dira, taldean laneko erlazioak marratzen dituzte, partaidetza eta bereganatzea sendotzen dute. Hortaz, erlazioen marko garbiak lortzen dira pertsona desberdinen eta beraien gaitasun desberdinen lana sustatzeko eta onartzeko.

Parte hartze bidezko erabaki hartzea eta parte-hartzailea, ekimen desberdinen iraunkortasunerako funtsezko elementu bat da.

Eraikuntza kolektiboa. Ekimena eraikuntza kolektiboko tresna bat bezala hartu, lana eta aberastasuna sortzen duen bere instrumentalizaziotik haratago. Ekimenak erlaziozko hainbat dimentsio bere gain hartzen dituela pentsatu, elkartasuna, ekitatea, berdintasuna, dibertsioa, partekatzea, bizitzaren erreprodukzioa…

Berrikuntza jarraiko prozesuak, bai kudeaketa alderdian, bai barneko erlazio alderdian. Laneko, barne gatazken konponketako metodologia berriak hartzea…

Lan akordioak eta barne prozedura onartzea, hausnarketa teorikoen isla praktiko bezala eta barneko neurri espezifikoen finkapena. Hauek diskriminazio positiboko mekanismoak izan daitezke emakumeentzat edo egoera ahulean dauden pertsonentzat. Lan eskubideen berdinketa ezkonduak dauden pertsonen eta nahi ez duten pertsonen artean, bateratzeko neurri espezifikoak…

Autoebaluazio jarraiko mekanismoa, bereziki barne ebaluazioa.

Errealitatearekin konfrontazioa eta elkarrizketa: Gatazka bat baino gehiago, ikaskuntzako dialekto prozesu bat dela onartzen da, ondorioz, errealitateak berak ematen ditu jarraitu beharreko urratsak. Pertsona guztiek arazoak aurkezten eta irtenbideak proposatzen dituzte.

### 3. Ekimenek ingurunearekin duten erlazio integrala

Parte hartu eta positibo bihurtu dezaketen eragileen aniztasuna behatu.

Sare-lana. Sare sektorialetan eta ez sektorialetan lan egitea. Ekimen guztiak sendoak dira sare-lanean, ondorioz, erresilientzia eta iraunkortasuneko funtsezko elementu bat bezala osatzen da.

Aurreko puntuari lotuta, tokiko eta global mailako eragileen jakintzen elkarrizketa etengabea, eragin handiagoa sortzeko.

Belaunaldi arteko jakintzen elkarrizketa. Jakintza fluxuak sortzeko gaitasuna nabarmena da pertsona gazteen eta zaharren artean, bereziki landa eremuan.

Pertsonen erlazioetan sustatutako aldaketak eta eraldaketa, barnetik kanpora eraginez.

Laguntza publikoa, ekimenen iraunkortasunerako funtsezko elementu bezala. Ingurune sozial, kultural eta ekonomikoaren erlazio sendoa duten ekimenek aukera gehiago dituzte laguntza iraunkor bat izateko.

Onarpenaren bilaketa tokiko mailan eta konfiantzako loturak sortzea tokiko eragileekin. Batzuetan honek legezkotasuna ematen du tokiko artikulaziorako eragile bezala onartua izateko, ekimena ingurunearekin geroz eta gehiago lotzen duten erlazio lotura sendoak sortuz. Era berean, erresilientzia handiagoa ematen die kontrako atal ekonomikoen aurrean, babes soziala izateagatik.

Izaera eraldatzaileko alternatiba kolektiboak inbertsioak, lanak, zereginak sozializatzeko eta ezagutzak eta jakintzak sozializatu eta partekatzeko inguruneko eragileekin. EBj-ko ekimenen kasuan, puntu hau garrantzitsua da konfiantzako lotura sortzeko elementu bezala inguruan finkatutako dagoen produkzio sektorearekin.

Ekimenen eta ingurunearen arteko erlazio konplexua, kontsumoaren eta merkaturatzearen arabera. Pertsona prosumitzailearen aldeko lana.

Lan sinergien ezarpen formala tokiko aktore desberdinen artean, giza garapen jasangarria ardatz bezala duten garapeneko tokiko planetan kokatuak.

Jardueren sustapena tokiko mailan partaidetza areagotzeko. Ekimenek eta hauek osatzen dituzten pertsonek beraien inguruko bizitza sozial, kultural eta jai bizitzan parte har dezakete, ezagutza, elkarrekikotasun eta konfiantza loturak erraztuz. ●

# 7. BIBLIOGRAFIA


ALONSO, L. E. (2010). "El trabajo del consumo: consumo e identidad en la sociedad global". Federación Española de Sociología.

<http://www.fes-sociologia.com/files/congress/10/grupos-trabajo/ponencias/483.pdf>

ALTIERI, M., NICCHOLLS, C. (2013). "Única esperanza para la Soberanía Alimentaria y la resiliencia socioecológica". Agroecología, 7 (2), 65-83.

<http://revistas.um.es/agroecologia/article/view/182861>

ANDINO, V. (2013). "Políticas públicas para la economía social y solidaria. Caso de estudio de Ecuador. Compra pública inclusiva y circuitos económicos solidarios: visiones diversas del sector público y del movimiento social para hacer una economía coherente con el paradigma del Sumak Kawsay (Buen Vivir)". Reliess Politiques Publiques en économie sociale et solidaire.

<http://www.reliess.org/centredoc/upload/VAndino-poltpubyecosol-Ecuador-RELIESS-final1367861067.pdf>

AROCENA, J. (2001). "Capítulo IX: Una investigación de procesos de desarrollo local". Cap. in. El Desarrollo Local: Un desafío contemporáneo, 201-229. Montevideo. Ediciones Santillana. Universidad Católica de Uruguay.

ASKUNZE, C. (2013). "Más allá del capitalismo: alternativas desde la economía solidaria". Documentación Social, 5, 98-116.

<http://www.economiasolidaria.org/files/economia_solidaria_askunze.pdf>

AYERDI, A., GASTÓN, A. (coord.) (2014). Soberanía alimentaria, comercio justo y administraciones públicas locales. Un espacio para la construcción de alternativas. Emaús Fundación Social.

< http://emauscursos.com/pdf/SobAlimentariaComJustoAdmPublicas-BUENO.pdf>

BARRAU CALVO, A.I. (2015). Cooperació descentralitzada i economia social i solidària: sinergies entre les iniciatives socioempresarials de l'economia social i solidària i la cooperació al desenvolupament descentralitzada a Catalunya. Tesis. Universitat de Lleida, Departament d'Economia Aplicada. Lleida.

BARROSO, C. (2007). "Economía social, participación y desarrollo local". Teoría y práctica del desarrollo local en Canarias, cap. 6, 153-169. Federación Canaria de Desarrollo Rural.

BEGIRISTAIN, M. (2016). "Construyendo espacio(s) para otra(s) economía(s)". Transiciones hacia unas nuevas economías en un mundo sostenible. II Congreso de Economía Social y Solidaria organizado por REAS-España, Bilbao 2016.

< http://esskongresua.net/wp-content/uploads/Eje-6-experiencias-UPV.pdf>

BOISIER, S. (2001). "Desarrollo (local): ¿De qué estamos hablando?" cap. 1 "El desarrollo local, contextos y desafíos" en Transformaciones globales, institucionesy y políticas de desarrollo local , A. Vázquez Barquero y O. Madoery. Rosario, Argentina. Ed. Homo Sapiens.

CHAMORRO, A. (2013) "La evolución e importancia de la Economía Social Solidaria en Nicaragua". XVI Seminario Latinoamericano ASOCAM 25-27 de 2013. Quebec, Canadá.

<http://www.economiainclusivasolidaria.info/blogeconomia/sites/default/files/archivos/documentos/POWER%20POINT%20PONENCIA%20AMALIACHAMORRO.ppt>

CERAI, PLATAFORMA RURAL et al. (2014). "Carta por una soberanía alimentaria desde nuestros municipios". I Congreso Internacional de Economía Social y Solidaria: La economía se encuentra con las personas, organizado por REAS Aragón. Zaragoza, noviembre de 2014.

<http://www.economiasolidaria.org/files/CARTA_POR_UNA_SOBERANIA_ALIMENTARIA_DESDE_NUESTROS_MUNICIPIOS.pdf>

CORAGGIO, J. L. (ed.) (2012). Conocimiento y políticas públicas de Economía Social y Solidaria problemas y propuestas. Quito, Ecuador. Instituto de Altos Estudios Nacionales.

CORAGGIO, J. L. (2016). Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital. Quito, Ecuador. Ediciones Abya-Yala.

CORRADO, A. (2013). "Sistemas alimentarios alternativos y agricultura periurbana en Milán, Italia". Revista Hábitat y Sociedad nº 6 noviembre de 2013, 65-83.

DEL RÍO, E., RAMÍREZ, R., AGUADO, J. (2013). "Soberanía alimentaria y economía solidaria son inseparables". Soberanía alimentaria biodiversidad y culturas nº 12 febrero 2013, 1-19.

<http://www.soberaniaalimentaria.info/publicados/numero-12/299-soberania-alimentaria-y-economia-solidaria-son-inseparables>

DOGLIOTTIi, F., GASCÓN, J., MONTAGUT, X. (2010). Comercio justo desde la Soberanía Alimentaria: Herramientas para un análisis crítico. Barcelona. Edición: Espacio por un Comercio Justo, Red de Consumo Solidario, Xarxa de Consum Solidari.

EMAÚS FUNDACIÓN SOCIAL, REAS EUSKADI (2011). Guía de experiencias de Economía Social y Solidaria Sur-Norte. Emaús Fundación Social.

< http://emauscursos.com/pdf/GUIA+SUR-NORTE.pdf>

ERAIKIZ KOLEKTIBOA (2017). Femisnismo, violencias machistas e intervención social. Reflexión, debate y acción feminista. Informe 2017.

< http://www.eraikiz.org/wp-content/uploads/2016/09/INFORME-FEMINISMO-2017.pdf>

FERNÁNDEZ-BALLESTEROS, R. (2005). "Promoción del envejecimiento activo: efectos del programa «Vivir con vitalidad»". Revista española de geriatría y gerontología: Órgano oficial de la Sociedad Española de Geriatría y Gerontología, vol. 40 nº. 2, 92-102.

FONTE, M., RANABOLDO, C. (n.d.). "Desarrollo rural, territorios e identidades culturales. Perspectivas desde América Latina y la Unión Europea". Revista Ópera nº 7 mayo 2008, 9-31. Universidad Externado de Colombia. Bogotá, Colombia.

<http://www.academia.edu/5081310/Desarrollo_rural_territorios_e_identidades_culturales._Perspectivas_desde_Am%C3%A9rica_Latina_y_la_Union_Europea>

GARCÍA JANÉ, J. (2010). "Otra empresa, otra economía". Revista Acercar nº 2 marzo 2010, 13-16.

<http://cepaim.org/wp-content/uploads/2014/11/revista-acercar-2.pdf>

GARCÍA JANÉ, J., RUGGERI, A., LAMETTI SEÑORIÑO, A. (2012.) "Autogestión y economía solidaria". Papeles de Economía Solidaria 3, 1-30.

GESES, Grupo de Estudios Sociales y Económicos del Tercer Sector de la Universidad de Zaragoza (2008). Informe sobre las empresas de inserción social en España. CIRIEC España. Observatorio Español de la Economía Social.

GODEK, W. (2015). "Challenges for food sovereignty policy making: the case of Nicaragua's Law 693". Third World Quarterly 36:3, 526-543.

<http://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/01436597.2015.1005437>

GÓMEZ CALVO, V., GÓMEZ-ÁLVAREZ DÍAZ, R. (2016). "La economía del bien común y la economía social y solidaria, ¿son teorías complementarias?". Revista de economía pública, social y cooperativa, 257-294. CIRIEC - España

< http://ciriec-revistaeconomia.es/ver_pdf.php?archivo=CIRIEC_8709_Gomez_y_Gomez.pdf&id_articulo=944&PHPSESSID=8437e07318fa321c6114b592444a5f64>

GURIDI, L. et al. (2014). Diálogos sobre Economía Social y Solidaria en Ecuador. Encuentros y desencuentros con las propuestas para otra economía. Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, UPV-EHU.

GURIDI ALDANONDO, L., et al (2011). "Experiencias de economía social y solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes". Papeles de Economía Solidaria nº 2, 73.

<http://emauscursos.com/pdf/Experiencias+ES+gazteleraz.pdf>

GURIDI, L., PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. (2014). La dimensión económica del Desarrollo Humano. Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, UPV-EHU.

<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0781/ESSDHL.pdf>

HARO CARRASCO, E. (2016). "Empresa social. Herramienta estratégica para el desarrollo territorial a través del patrimonio cultural y natural". XVI Congreso de Investigadores en Economía Social y Cooperativa. Valencia. CIRIEC España.

<http://ciriec.es/eventos/xvi-congreso-de-investigadores-en-economia-social-y-cooperativa/comunicaciones/?search-by=author&search-paper-type=0&search-keyword=0&search-string=esther+haro+carrasco>

HERRERO, Y. (2015). "Apuntes introductorios sobre el Ecofeminismo". Boletín de recursos de información nº 43, junio 2015. Centro de Documentación Hegoa.

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/278/Boletin_n%C2%BA43.pdf?1488539850>

INSTITUTO DE ESTADÍSTICA Y CARTOGRAFÍA DE ANDALUCÍA (2015) "Economía social y solidaria". Revista IECA nº 5.

<http://www.juntadeandalucia.es/institutodeestadisticaycartografia/InformacionEstadisticayCartografica/RevistaEconomia_Social.pdf>

ISEI EUROPE (2012). Guía de comercio justo y consumo responsable.

<http://www.economiasolidaria.org/files/Guia_comercio_justo_y_consumo_responsable_ISEI_Europe.pdf>

JIMÉNEZ, J.(2016). "Movimiento de economía social y solidaria de Ecuador. Circuitos económicos solidarios interculturales". Revista de la academia, vól. 21, 101-128.

< http://revistas.academia.cl/index.php/academia/article/view/58>

JUBETO RUIZ, Y. et al. (2012). Sostenibilidad de la vida: Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica. REAS Euskadi.

LIS, D. (2014). "La economía social y solidaria como proyecto posible en contextos de mercados competitivos". IX Jornadas de Estudios Sociales de la Economía, organizadas por el Centro de Estudios Sociales de la Economía del IDAES. 22 a 26 de septiembre de 2014, Buenos Aires (Argentina).

LOPERA GARCÍA, L.D., MORA RENDÓN, S.B.(2009). "Los circuitos económicos solidarios: espacio de relaciones y consensos". Revista Semestre Económico vol. 20 nº 42. Universidad de Medellín.

LÓPEZ GARCÍA, D. (2012). "Circuitos cortos de comercialización: una opción lógica para la producción y el consumo ecológicos". XX Jornadas técnicas SEAE sobre Agroindustria Ecológica: Innovación desde la Tradición. Mérida (Badajoz) 7 y 8 de junio de 2012.

<https://www.agroecologia.net/recursos/proyectos/ecoelabora/JT/presentaciones/5.%20D%20Lopez.pdf>

MADOERY, O. (2001). "El valor de la política de desarrollo local" en Vázquez Barquero, A. y Madoery, O. (comp.), Transformaciones globales, instituciones y políticas de desarrollo local, Homo Sapiens. Rosario, Argentina.

MANCE, E.A. (2006). Redes de colaboración solidaria. Universidad Autónoma de la Ciudad de México.

MANCE, E.A. (2013). "Sistemas de Intercambio Solidario. Construyendo otra economía. Políticas públicas para la promoción de sistemas económicos inclusivos y solidarios". XVI Seminario Latinoamericano ASOCAM. Quito. Noviembre 2013.

>http://www.economiainclusivasolidaria.info/blogeconomia/sites/default/files/archivos/documentos/SOLIDARIUS.pdf>

MARTINETTI A. F. (2014). "Los mercados solidarios desde la economía social y solidaria. La experiencia de la asociación de familias con identidad huertera (AFIH)". III Jornadas Nacionales sobre estudios regionales y mercados de trabajo. Universidad Nacional de Jujuy y Red SIMEL. San Salvador de Jujuy.

<https://www.aacademica.org/iii.jornadas.nacionales.sobre.estudios.regionales.y.mercados.de.trabajo/40>

MARTÍNEZ PALACIOS, J. (2013). "Democracia, crisis, alternativas y reproducción del patriarcado". XI Congreso de la Federación Española de Sociología. Madrid 2013.

<http://aecpa.es/uploads/files/modules/congress/11/papers/622.pdf>

MINCYTE, D., DOBERNIG, K. (2016). "Urban farming in the North American metropolis: Rethinking work and distance in alternative food networks". Environment and Planning A, 48 (9), 1767-1786.

MONTOYA CANCHIS, L. W. (2014). "¿Economías otras? Las reflexiones sobre las economías sociales, solidarias, comunitarias y populares en el Perú de comienzos del siglo XX". Revista de Sociología nº 24, 101-121. Lima, Perú. UNMSM.

<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0837/Montoya_Econom%C3%ADasotras_Peru.pdf>

MORAIS, L., BACIC, M.J. (2016). "Public policies and the social and democratic issues of globalisation. What challenges for the public, social and cooperative economy?" XXXI Congreso Internacional CIRIEC 21-23 de septiembre. Reims (Francia).

MOVIMIENTO DE ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA DE ECUADOR, MESSE (2015). Agenda política. Ecuador.

<http://www.messe.ec/2016/05/agenda-politica-del-messe.html>

MOVIMIENTO DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA DE ECUADOR (MESSE) (2015). Diálogo de saberes para la economía solidaria. Guía pedagógica. Quito (Ecuador).

<http://www.dhl.heg>oa.ehu.es/ficheros/0000/0791/Di%C3%A1ogo_Saberes_Gu%C3%ADa_Pedag%C3%B3gica_MESSE.pdf

NUSSBAUN, M. C. (2011). Creating capabilities. Harvard University Press.

ORTEGA, S. (2000). "Mercado Social". Seminario Construyendo un Mercado Alternativo de Economía Solidaria. Bilbao, 6 de noviembre de 2000.

PARLAMENTO LATINOAMERICANO (2012). Ley marco: Derecho a la alimentación, seguridad y soberanía alimentaria. Aprobada en la XVIII ASamblea Ordinaria 30 de noviembre a 1 de diciembre de 2002, Panamá.

PEREIRA MORAIS, L. (2014). Economía Social y Solidaria y Cooperación Sur-Sur y triangular: posibles conexiones y contribuciones al desarrollo sostenible inclusivo. Documento de trabajo. Centro Internacional de Formación de la OIT.

PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C., ETXEZARRETA ETXARRI, E. (2015). "Los debates entorno a la Economía Social y Solidaria". Boletín de recursos de información nº 42. Centro de Documentación Hegoa.

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/275/Boletin_n%C2%BA42.pdf?1488539848>

PÉREZ DE MENDIGUREN CASTRESANA, J. C., ETXEZARRETA ETXARRI, E. (2015). "Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica". Lan Harremanak. Revista de Relaciones Laborales, 33 (2015-II), 227-252.

<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/16110/14394>

PÉREZ DE MENDIGUREN CASTRESANA J. C., ETXEZARRETA ETXARRI, E., GURIDI ALDANONDO, L. (2009). "Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate". Papeles de Economía Solidaria Nº 01, 1-41.

PÉREZ HERNANDORENA, Z. et al. (2016). Transformando los territorios desde la economía solidaria. Herramientas para el impulso de políticas públicas locales. REAS Euskadi.

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2014). Informe 2014.

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (1999). El poder de un mercado diferente. Comercio Justo.

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2015). La Economía social y solidaria en el Estado. Proceso de Auditoría Social 2015.

<http://www.economiasolidaria.org/files/AUDITORIA_SOCIAL_ESTATAL_2015.pdf>

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2009). "Mercado social" en seminario Construyendo un mercado alternativo de economía solidaria de REAS Euskadi. 6 de noviembre de 2009, Bilbao.

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2017). Dossier presentación 2017.

< http://www.economiasolidaria.org/files/DOSSIER_REAS_RdR_2017.pdf>

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2016). La economía social y solidaria en el Estado. Proceso de Auditoría Social 2016.

RED INTERNACIONAL DE PROMOCIÓN DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA, RIPESS (2015). "Visión global de la economía social solidaria: convergencias y contrastes en los conceptos, definiciones y marcos conceptuales". Introducción: 1) La ESS como la vía de un cambio transformador y sistémico, 1-16. Febrero 2015.

< http://www.ripess.org/wp-content/uploads/2015/02/RIPESS_Vision-Global_ESP1.pdf>

ROBBINS, M. J. (2015). "Exploring the “localisation” dimension of food sovereignty". Third World Quarterly, 36 (3), 449 - 468.

<http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/01436597.2015.1023567>

RODRÍGUEZ MORILLA, C., GÓMEZ-ÁLVAREZ DÍAZ, R., MORALES SÁNCHEZ, R. (2016). "La economía del bien común en el ámbito municipal" en XVI Congreso de Investigadores en Economía Social y Cooperativa. Economía Social: crecimiento económico y bienestar. Eje temático: El municipio: espacio clave de desarrollo local, para gestar comunidad y fomentar la economía social. Valencia 19 a 21 de octubre.

< http://ciriec.es/eventos/xvi-congreso-de-investigadores-en-economia-social-y-cooperativa/comunicaciones/?search-by=author&search-paper-type=0&search-keyword=0&search-string=carmen+rodr%C3%ADguez+morilla>

ROSSET, P. (2004). "Soberanía alimentaria: reclamo mundial del movimiento campesino". Policy, 9 (4).

ROSSET, P. (2008). "Food Sovereignty and the Contemporary Food Crisis". Development, 51 (4), 460-463.

SAGREDO, M. (2014) Cuando la educación alimenta a la agroecología. Caminos que alimentan la agroecología en Gipuzkoa mediante la Educación Popular. Emaús Fundación Social.

<http://emauscursos.com/pdf/Cuando-la-educacion-alimenta-agroecologia.pdf>

UGALDE, S. V. (2013). “La dimensión (ausente) de género en la política pública de Economía Popular y Solidaria en Ecuador”. Revista Perspectivas de Políticas Públicas, año 3 nº 5, 101-119.

URRETABIZKAIA, L., FERNÁNDEZ-VILA, M. (2015). Circuitos económicos solidarios interculturales y su contribucióon a los derechos económicos de las mujeres: el caso de Loja. Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, UPV-EHU.

VÍA CAMPESINA, LA. (2016). "Declararación sobre comercio, mercados y el desarrollo" en el marco de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre comercio y desarrollo de 2016.

< https://viacampesina.org/es/images/stories/pdf/ES%20FNL%20-%20Draft%20Declaration%20on%20Trade%20and%20Markets%20in%20the%20Context%20of%20UNCTAD%20-%20ES%20Editado.pdf>

VERMETTE, F. (2013.) "Co-construcción de políticas públicas de fomento de la ESS". XVI Seminario Latinoamericano ASOCAM, 25-27 de noviembre de 2013. Quebec (Canadá).

<http://www.economiainclusivasolidaria.info/blogeconomia/sites/default/files/archivos/documentos/Chantier_final.ppt>

VVAA (2012). "Ecología y consumo responsable". Revista Crítica nº 980 julio-agosto 2012.

VVAA (2015). Políticas públicas para el fomento de un comercio justo y solidario. Primera fase de la investigación: los casos de Colombia, Ecuador y Brasil; Francia, Italia y España. CLAC-FTAO.

< http://clac-comerciojusto.org/wp-content/uploads/2015/04/Pol%C3%ADticas-p%C3%BAblicas-para-el-fomento-de-un-comercio-justo-y-solidario-CLAC-FTAO.pdf>

WANDERLEY, F. (2015). Desafíos teóricos y políticos de la economía social y solidaria. Lectura desde América Latina. CIDES-UMSA, 2015.

ZUNZUNEGUI, M. V., BÉLAND, F. (2010). "Políticas intersectoriales para abordar el reto del envejecimiento activo". Informe SESPAS 2010. Gaceta Sanitaria, 24 (SUPPL. 1), 68–73.

ZURBANO, M., GAINZA, X., BIDAURRATZAGA, E. (2014). Interrelación local-global en los procesos de Desarrollo Humano Local. Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, UPV-EHU.

< http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/254/LocalGlobalDHL.pdf?1488539809>

## EKONOMIA SOLIDARIOA

NESOLen proposamena: Ekonomia Solidarioa proiektu iraultzaile bezala, beste gizarte baterako proiektua.

Ekonomia solidarioa langileen borroka historikoaren erreskatea bezala sortzen da, lanaren esplotazioaren aurkako defentsa bezala eta ekoizpen eredu kapitalistaren aurrean alternatiba bat bezala. Modu solidarioan, kolektiboan eta auto-eratuan langileen eskutik antolatutako eta burututako ekintza ekonomiko multzo bezala ulertua izan daiteke (ekoizpenekoa, banaketakoa, kontsumokoa, aurrezki eta mailegukoa). Ekonomia solidarioan 4 ezaugarri osagarri daude: lankidetza, auto-eraketa, ekintza ekonomikoa eta elkartasuna.

REASen proposamena: Ekonomia Solidarioa, pertsonak, ingurumena eta garapen iraunkorra eta euskarritzen duen garapena kontuan hartzen dituen, ekintza ekonomikoaren ikuspuntu bat da, lehentasuna duen erreferentzia bat bezala beste interesen gainetik.

### Ekonomia Solidarioaren printzipioen eskutitza (REAS):

**- Ekitate printzipioa:**

Berdintasunean printzipio etiko edo justiziako bat barneratzen duen balore bat bezala, pertsona guztiak duintasun berdineko subjektuak bezala onartuz, eta menderatzean oinarritutako erlazioetan ez egotearen bere eskubidea babestuz, edozein dela ere bere gizarte izaera, genero, adina, etnia, jatorria, gaitasuna, etab.

**- Lan printzipioa:**

Pertsonen gaitasunen garapena posible egin ahal duten, lanaren giza, gizarte, politika, ekonomia eta kultura dimentsioa berreskuratu, onurak eta zerbitzuak ekoiztuz, biztanleriaren benetako beharrak asetzeko (gureak, gure gertuko ingurunekoa eta oro har, komunitatearena, pertsonen zaintzaren eremua barneratuz).

**- Ingurumen jasangarritasun printzipioa:**

Ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarri eta berdinetara aurrera egin, nahikotasunaren eta laztasunaren etika bat sustatuz.

**- Lankidetza printzipioa:**

Etika parte-hartzailea eta demokratikoa, pertsonen eta erakundeen arteko ikaskuntza eta lankidetza lana sustatu nahi dituena.

**- "Irabazi asmorik gabeko" printzipioa:**

Helburua, pertsonen garapen integral, kolektibo eta indibiduala da, eta bitarteko bezala, ekonomikoki bideragarriak, iraunkorrak eta integralki errentagarriak diren proiektuen kudeaketa eraginkorra, bere onurak berriz inbertitzen eta berriz banatzen direlarik.

**- Ingurumenarekiko konpromiso printzipioa:**

Partaidetza lurraldearen bertako garapen iraunkorrean eta komunitarioan. http://www.economiasolidaria.org/carta.php



The Six Pillars of Food Sovereignty, developed at Nyéléni, 2007

# ELIKADURA BURUJABETZA

La Vía Campesina-ren definizioa

Herrien, herrialdeen edo estatu batasunen eskubidea, beraien nekazaritza eta elikadura politika definitzeko, dumping gabe hirugarrengo herrialdeen aurrean.

## Elikadura Burujabetzaren printzipioak[4] :

**- Herriarentzako elikagaian fokatzeko printzipioa:**

Norbanako, herri eta komunitate guztientzat elikadura nahikoa, osasungarria eta kultura mailan egokia izateko eskubidea planteatzen du, elikadura, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza politiken artean, gosea jasaten duten, okupazio menpe dauden, gatazka egoeran dauden eta marjinatuak dauden horientzat ere; elikagaia nazioarteko agro-negoziorako merkaturatu daitekeen beste pieza bat dela proposamena baztertzen du.

**- Elikagaia hornitzen dutenei baloratzea printzipioa:**

Elikadura Burujabetzak gizon eta emakumeen, baserritarren eta familia nekazarien, artzainen, arrantza tradizionalaren artisauen, basoetako biztanleen, herri indigenen, nekazaritza eta arrantza langileen, elikagaiak landatzen, hazten, laboratzen eta prozesatzen dituzten pertsonen eskubideak errespetatzen ditu; era berean, beraien lana balioztatzen eta laguntzen dute. Gutxiesten, mehatxatzen eta beraien bizitza moduak eliminatzen dituzten politikak, ekintzak eta programak baztertzen ditu.

**- Elikadura Sistemak lokalizatzeko printzipioa:**

Elikadura Burujabetzak elikagai ekoizleekin eta kontsumitzaileekin topaketak sortzen ditu; hornitzen eta kontsumitzen duten pertsonak erabaki hartze prozesuen erdian jartzen ditu; hornitzaileak elikagaiak alperrik galtzetik babesten ditu eta tokiko merkatuetan laguntza eskaintzen du; kontsumitzaileak babesten ditu kalitate baxuko eta osasunarentzat kaltegarri den janaritik, elikadura laguntza aproposa ez den horretatik eta genetikoki aldatuak izan diren organismoek kutsatutako elikagaitik. Gobernuko egituren aurrean sendo mantentzen da, baita jasanezina eta bidegabekoa den nazioarteko merkatua defendatzen eta sustatzen duten kontratu eta praktiken aurrean ere. Hauek urruneko korporazioei boterea ematen dien eta beraien ekintzen erantzukizunik ez dute.

**- Tokiko mailan ahalduntzea printzipioa:**

Aurretiko printzipiotik abiatuz, lurraldearekiko, lurrarekiko, larrekiko, urarekiko, haziekiko, abereak eta arraiekiko kontrola ematen die, elikagaien tokiko hornitzaileei eta hauen eskubideak errespetatzen ditu. Beraiek baliabide hauek erabili eta partekatu ditzakete, sozial eta ekologikoki jasangarria diren moduan, aniztasuna babesteko; tokiko lurraldeak askotan muga geopolitikoak gainditzen dituztela onartzen du eta tokiko komunitateen eskubidea ziurtatzen du beraien lurraldeak bizi izateko eta erabiltzeko; elikagaien hornitzaileen arteko interakzio positiboa sustatzen du eskualde, lurralde desberdinetan eta sektore desberdinetatik. Horrela, barne gatazka edo tokiko eta nazional agintariekin gatazkak konpontzen laguntzen du. Lege, merkatari kontratu eta jabetza intelektualeko eskubideen erregimenen bitartez, baliabide naturalen pribatizazioa baztertzen du.

**- Ezagutza eta Trebezia garapena printzipioa:**

Elikadura Burujabetza elikagai hornitzaileen eta tokiko beraien erakundeen tokiko abilezia eta ezagutzak oinarritzen da. Hauek, ekoizpeneko eta uztako sistema lokalizatuak babesten, garatzen eta maneiatzen dituzte, babesteko ikerketa sistema egokiak garatuz eta beraien jakinduria etorkizuneko belaunaldietara transmititua izan dadin. Horrela, ahultzen, mehatxatzen edo kutsatzen dituzten teknologiak baztertzen ditu, ingeniaritza genetikoa bezala.

**- Naturarekin lana printzipioa:**

Elikadura Burujabetzak naturaren kontribuzioak erabiltzen ditu modu desberdinean, ekoizpen eta uzta biltze metodo agroekologikoekin, ekosistemen kontribuzioa maximizatuz eta doikuntza eta egokitzapen gaitasuna hobetuz, bereziki, klima aldaketaren aurrean. Planeta sendatzen saiatzen da, planetak gu senda gaitzan helburuarekin. Azkenik, onuragarri diren ekosistemen funtzioak kaltetzen dituzten metodoak baztertzen ditu, energia intentsiboko monolaborantzen eta abere fabriken menpe dauden horiek, arrantza praktika suntsikorrak eta ekoizpen industrializatuko beste metodo batzuk, ingurumena kaltetzen eta beroketa globala sortzen dutenak.

# BIDEZKO MERKATARITZA

## Bidezko Merkataritzaren Printzipioak:

**• Aukerak sortzeko printzipioa, desabantaila ekonomikoak dituzten ekoizleentzat:**

Pobrezia merkatuaren bitartez murriztea, erakundearen helburuen funtsezko atal bat da. Erakundeak alboratuta dauden ekoizle txikiei babesa ematen die, bai familia negozioak, independenteak edo elkarte edo kooperatibetan biltzen direnak. Beraientzat atea irekia bilatzen da segurtasun ekonomiko gabeziatik eta pobreziatik, norberaren trebezia ekonomiko eta propietatera. Erakundeak hau gauzatu dadin ekintza plan bat du.

**• Gardentasuna eta Erantzukizuna printzipioa – Kontuak argi:**

Erakundea gardentasunez jarduten da bere kudeaketan eta bere merkatu erlazioetan. Bere aktore guztien aurrean erantzule da eta emandako merkatu informazioen sentsibilitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzen ditu. Erakundeak modu egokiak eta parte-hartzaileak bilatzen ditu bere langileak, kideak eta ekoizleak barneratzeko, beraien erabaki hartze prozesuetan. Informazio garrantzitsuak merkatu-bazkide guztiei ematea ziurtatzen da. komunikabideak onak eta irekiak dira, horniduren kateko maila guztietan.

**• Bidezko Merkatari jarduera printzipioa:**

Erakundeek modu arduratsuan salerosi egiten dute, alboratuta dauden ekoizle txikien gizarte, ekonomia eta ingurumeneko ongizatea garatzeko eta ez dute negozioko diru-sarrerak handitzea bilatzen beraien kontura. Beraien konpromisoak modu arduratsuan betetzen dituzte, profesional eta garaiz. Hornitzaileek beraien kontratuak errespetatzen dituzte eta produktuak garaiz entregatzen dituzte, adostutako kalitatearekin eta ezaugarriekin.

Erakundeak elkartasunean, konfiantzan eta elkarren arteko errespetuan oinarritutako epe luzeko erlazio bat mantentzen du, Bidezko Merkataritzaren hazkundeari eta sustapenari lagunduz. Bere merkatu-bazkideekin komunikazio eraginkor bat mantentzen du. Merkatari erlazio batean dauden entitateek, beraien arteko merkatu bolumena igotzea bilatzen dute eta beraien produktuen balioa eta aniztasuna eskaintzen dute, Bidezko Merkataritza handitzeko neurri bat bezala, ekoizleek beraien diru-sarrerak handiko asmoz.

Erakundeak herrialdeko Bidezko Merkataritzako beste Erakundeekin lankidetza egiten du eta lehia desleiala ekiditen du. Bere baimenik gabe, beste erakunde batzuk produktuen diseinua bikoiztea ekiditen du.

Bidezko Merkataritza ekoizle txikien identitate kulturala eta trebezia tradizionalak onartzen, sustatzen eta babesten ditu, beraien artisau diseinuetan, elikadura produktuetan eta erlazionatutako beste zerbitzuetan islatzen den bezala.

**• Haurren lanik eta behartutako lanik ez printzipioa:**

Erakundeak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena betetzen du, baita haurren enpleguaren gaineko nazional/eskualdeko legeak ere. Erakundearen baitan dago ziurtatzea lan egiteko lekuan edota etxean bere kideekin edo lankideekin lan beharturik ez egotea.

Ekoizle taldeetatik Bidezko Merkataritzako produktuak erosten dituzten Erakundeek, modu zuzenean edo bitartekarien bitartez, ekoizpenean lan beharturik erabil ez dadin ziurtatzen dira eta ekoizleak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena eta haurren lanari buruzko lege nazional/eskualdekoak betetzea. Bidezko Merkataritzako produktuen ekoizpenean haurrak edozein modutan sartzea (artisau edo arte tradizional bat ikastea barne), beti publikoa eta monitorizatua izan behar du eta  ezin du modu negatiboan eragin haurren ongizatean, segurtasunean, hezkuntza beharretan eta beraien aisialdian.

**• Ez baztertzeko, Genero Berdintasuna eta emakumearen Ahalduntze Ekonomikoa eta Elkartzeko Askatasuna izateko konpromisoa printzipioa:**

Erakundeak ez du bazterketarik egiten, enplegua eman, konpentsatu, entrenatu, sustatu, botatzean edo erretiroa hartzeko garaian, arraza, gizarte maila, jatorri, erlijio, ezgaitasun, genero, sexu orientazio, sindikatu-kidetza, afiliazio politikoa, GIB/HIES estatus edo adin arrazoiengatik. Erakundeak genero berdintasuna sustatzeko politika argi bat eta plan bat du, emakumeak eta gizonak produktiboak izateko behar dituzten baliabideak eskuratzeko gaitasuna izatea bermatzen duena, baita politika orokorrean eta beraien bizitzeko baldintzei eta beraien bizitzei itxura ematen dien arauzko eta instituziozko ingurunean esku-hartzeko gaitasuna ere.

**• Lan-baldintza onak bermatzea printzipioa:**

Erakundeak lan-inguru ziurra eta osasungarria eskaintzen die langile edota kideei. Erakundeak, gutxienez, lege nazionalak eta eskualdekoak betetzen ditu, baita osasunari eta segurtasunari buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) hitzarmenak ere. Langileentzako edota kideentzako lan-ordutegiak eta lan-baldintzak lege nazionalek eta eskualdekoek nahiz LNEren hitzarmenek ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Bidezko Merkataritzako erakundeek, produktuak saltzen dizkieten ekoizle taldeen osasun eta segurtasun baldintzen inguruan informazioa izan behar dute. Osasun eta segurtasun gaien inguruan kontzientzia sortzea bilatzen dute etengabe, baita ekoizle taldeen osasun eta segurtasun praktikak hobetzea ere.

**• Gaitasunak garatzea printzipioa:**

Erakundearen helburua, alboratuta dauden ekoizle txikientzat garapenaren eragin positiboak handitzea da bidezko merkataritzaren bitartez. Erakundeak langileen edo kideen gaitasuna garatzea bilatzen du. Ekoizle txikiekin zuzenean lan egiten duten erakundeek berariazko jarduerak garatzen dituzte, ekoizle horiei beraien kudeatzeko gaitasunak, ekoizteko gaitasunak eta Bidezko Merkataritzako tokiko/eskualdeko/nazioarteko eta egokiak diren beste merkatuetara sartzeko dituzten trebeziak hobetzen laguntzeko. Bidezko Merkataritzako produktuak erosten dituzten erakundeek, hegoaldean Bidezko Merkataritzako bitartekarien bitartez, erakunde hauei laguntzen die beraien gaitasunak garatzen, beraiekin lan egiten duten ekoizle talde alboratuei laguntzeko.

**• Bidezko Merkataritza sustatzea printzipioa:**

Erakundeak Bidezko Merkataritzaren printzipioak eta merkatu globalean justizia handiago baten beharra ezagutzera ematen ditu, Bidezko Merkataritzaren bitartez. Bidezko Merkataritzaren helburuak eta jarduerak sustatzen ditu antolakuntzaren gaitasunarekin adostasunean. Erakundeak bere bezeroei, erakundearen beraren informazioa, merkaturatzen dituen produktuen eta produktuak egin edo landatzen dituzten erakunde ekoizleen edo kideen informazioa. Marketing eta publizitate teknika zuzenak erabiltzen dituzte beti.

**• Ingurumenarekiko errespetua printzipioa:**

Bidezko Merkataritzako produktuak ekoizten dituzten erakundeek, beraien eskualdean bertan manten daitezkeen jatorrietatik datozen lehengaien erabilera maximizatzen dute, posible den guztietan tokiko ekoizleetatik erosiz. Energiaren kontsumoa murriztea bilatzen duten ekoizpen teknologiak erabiltzen dituzte eta posible den guztietan, ingurumena kaltetzen duten berotegi-efektuko gasen isurpena murrizten duten energia berriztagarriko teknologiak erabiltzen dituzte. Beraien hondakinek ingurunean sortzen duten eragina txikiagotzen saiatzen dira. Bidezko Merkataritzako nekazaritza-produktuen ekoizleek ingurumen-eraginak txikiagotzen dituzte, beraien ekoizpen metodoetan ahalik eta pestizida gutxien erabiliz edo posible den kasuetan pestizida organikoak erabiliz.

Bidezko Merkataritzako produktuen erosleek eta inportatzaileek lehentasuna ematen diote, euskarritzen diren iturrietatik eratorritako lehengaiekin gauzatutako produktuei, eta ingurumenari gutxien eragiten dioten produktuei. Erakunde guztiek, ahal duten neurrian, material birziklatuak/birziklagarriak erabiltzen dituzte edo ontziak deskonposizio erraza dutenak eta produktuak itsasoz bidaltzen dituzte.

**• Bidezko prezioa ordaintzea printzipioa:**

Prezio justu bat, nahastuta dauden guztien artean adostu den prezio hori da, elkarrizketaren eta parte hartzearen bitartez, ekoizleei ordainketa justu bat ematen zaie eta merkatuak ere euskarritu dezake. Bidezko Merkataritzako prezioko egiturak dauden lekuetan, hauek produktuen prezioen kalkulurako gutxiengo bat bezala erabiltzen dira. Ordainketa justua, sozial mailan onartua den ordainketa bat ematea da (tokiko testuinguruan), justua den hori ekoizleek beraiek onartua dena. Era berean, lan berdinagatik ordainketa berdina printzipioa jarraitzen dute, bai gizonentzat bai emakumeentzat. Bidezko Merkataritzako erakunde inportatzaileak eta marketing egiten dutenek, ekoizleek eskatutako trebakuntzaren alde egiten dute, beraien produktuei prezio justu bat jartzeko gai izateko.